

2. GAIA. EKONOMIA MODERNOA (XVI.-XVIII. MENDEAK).

XV. eta XVI. mendetik aurrera, Erdi Aroko krisiaren ondorioz, europar ekonomia etapa berri batean sartzen da, historialari zenbaitek Feudalismo Garatua deitzen dutena (beste batzuek Antzinako Erregimena izendapena nahiago izaten dute). Erdi Aroko feudalismoaren ezaugarri askok bizirik jarraitu zuten, baina beste batzuk gehitu zitzaizkion, ekonomi eredu berri batera eramanez. Horrekin batera, Europa eta, batez ere, Europako alde atlantikoa nagusigoa hartzen hasi zen munduko beste eskualde batzuen gainean, batez ere Amerika eta Afrikaren gainean, eta harreman zuzenak eta gero eta sakonagoak ezarri zituen Asiako ekialde urrunarekin. Aldaketa horiek guztiek, pixkanaka, kapitalismoaren garapenera eramango dute, Europan, eta hazkunde ekonomiko jarraituko egoera batera, ordura arte ezagutu ez zen moduan.

2.1. Feudalismo garatua eta hedakuntza europarraren berrasiera.-

Peter Kriedte historialariari jarraituz, «XV. eta XVI. mendeen arteko trantsizioarekin garai berria hasi zen Europako ekonomiaren historian. Amaierara heltzen ari zen Behe Erdi Aroko krisialdia; XVI. mendeko Prezioen Iraultzaren aurrean geunden. Amerikaren eta Indiara zeraman itsasbidearen aurkikuntzek Europa itsasotik hedatzeko eta mundu osoa barruan hartuko zuen sistema kapitalista finkatzeko baldintzak ezarri zituzten. Horretarako ezinbestekoa zen elkar-trukaketako harremanak ezartzea. Etorkizunera begiratzen zuen eboluzioa baldin bazen ere, indar produktiboen eta produkzio harremanen sisteman nagusi zen oraindik produkzio modu feudala. Merkataritza-kapitala modu feudalean markaturiko muga barruan mantentzen zen; gizarte feudalaren “poroetan” eramaten zuen aurrera bere lana, gizarte hori zalantzan jarri gabe.

1500 urtearen inguruan, produkzio modu feudalaren ondorioz, familiaren ekonomiaren inguruan antolatutako nekazaritza-produkzioa zen ugariena, eta klase feudalak berretzat hartzen zituen nekazariak lortutako produktuen zati handiak.

1.- Nekazari-familia zen produkzioaren oinarria. Gurasoek eta seme-alabek osatzen zuten; familia nuklearra zen normalena. Gutxitan ikusten zen hiru belaunaldiko familia, hau da, famili buruaren aita edota ama familia berean bizi izatea, alegia. Familiak lan egiteko orduan zuen indarra kanpotik ekarritakoarekin osatzen zen batzuetan. Hori familia bakoitzaren biziraupen-margenaren eta familia-zikloaren araberakoa zen. Nekazari-bikoteak oraindik lan egiteko gai ez ziren seme-alaba txikiak baldin bazituen, ezinbestekoa zen kanpoko jendea ekartzea.

Lurra gurasoengandik seme-alabengana pasatzen zen, eta hori zen nekazari-familiaren produkzioa markatzen zuen medioa. Bertan zerealak lantzen ziren, urtaroen erritmoa jarraituz. Abeltzaintzak ere nolabaiteko lekua hartzen zuen, nekazaritzaren osagai bezala. Abereak ez ziren soroan lan egiteko indarra soilik, ongari bikaina ere ematen zuten. Mugatuak ziren nekazarien familiak zituen produkzio helburuak ekonomiaren produkzioari zegokionean. Nekazaria ahalegindu egiten zen oreka bat aurkitzen familiaren lanaren eta kanpoko beharren artean. Oreka hori ez baldin bazen lortzen sarritan egoten zen hurbil “auto-ustiapena” (“auto-esplotazioa”) delakoa (A. V. Txaianov). Hots, nekazariaren ekoizpen-zikloaren helburua ez zela truke-balioa, baizik eta erabiltzeko balioa. (...)

2.- Goi Erdi Arotik aurrera jaunak aldendu egin ziren produkzio-prozesutik. Ustiatagia [erreserba] mantentzen zuten kasuetan ordaindutako langileekin esplotatzen zuten. Bi une izan ziren bilakaera hori markatu zutenak: a) jaunaren ustiategi handia ez zen nekazarien etxea (baserria) bezain emankorra, produktibitate maila baxuagoa baitzuen, nekazaritza-teknikaren eta nekazariak “plus-lana” delakoa egitera bultzatzen zuten gizartearen mekanismoen ondorioz; b) faktore horrek pisu gehiago lortu zuen oraindik klase feudala, Goi Erdi Aroan klase desberdinen arteko orekan emandako aldaketen ondorioz, ordura arte nekazariak ezer kobratu gabe eginiko lana alde batera utzi beharrean aurkitu zenean eta, ondorioz, bere

jabegoaren oinarria zen lan-egitura alboratu behar izan zuenean [Behe Erdi Aroko krisian, alegia].

Ordutik aurrera jaunek diru-errentaren bidez eta produktuen errentaren bidez bereganatzen zuten nekazariaren plus-produktua (gainprodukzioa edo soberakina); ez zegoen indarrean jadanik lanaren errenta (korbeak). Lanaren prozesuaren kontrola nekazarien eskuetan zegoen erabat; nekazariaren ekonomiaren eta jaunaren ekonomiaren arteko erlazioa “transferentzia ordainketak” baino ez ziren. Hiru errenta moten artean zegoen gauza amankomuna zen lana eta jabekuntza [*apropiación*] bat ez etortzea (E. Balibar); bereizturik zeuden produkzioaren eta jabekuntzaren prozesuak. Lan-errentaren kasuan, bi prozesu hauen aldentzea gertatzen ez bazen (jaunaren lurretan egin behar zen morroi-lana zela medio), mantentzen zen egiazki, nekazarien familiak bere birprodukziorako “beharrezkoa” zuen lana bere kontura egin behar zuenez gero. Horregatik jaun feudalak biolentzia extraekonomikoarekin inposatu behar izan zituen nekazarien plus-produktuari buruz zituen asmoak.

Produkzio modu feudalaren dinamikak Europako nekazaritza-ekonomiaren epe luzeko gora-beheretan aurkitu zuen bere espresioa. Laboreen salneurriari eta beste datu batzuei buruz dagoen dokumentazioa ikusirik, Goi Erdi Aroaren gorengo maila XIV. eta XV. mendeetako krisialdiarekin amaitu zela dirudi. Kolonizazio mugimendua eta hirien sorkuntza gertatu ziren Goi Erdi Aroaren gorengo maila horrekin batera. Aipatu dugun krisialdi horren ondoren XVI. mendeko Prezioen Iraultza etorri zen, eta horrek, aldi berean, XVII. mendeko krisialdia eragin zuen. XVIII. mendeko gorakada izan zen garai berri batera eraman zuen lehena (...). Gorakaden eta krisialdien tartekatze horren zergatiak hiru norabidetan bilatu behar dira (...):

1.- Hazkunde garaia aurrera zihoan heinean, biztanleriaren eta ekonomiaren hazkundearen arteko harremanak indar produktiboen garapena eragiten zuen; hori, berriz, negatiboa bilakatzen zen denbora gutxira. Azeleratu egin zen biztanleriaren eta ekonomiaren gorakada; bata bestea azeleratzen zuen, eta alderantziz, nolabait esateko. Ondoren, ekonomiaren hazkundera biztanleriarena baino motelagoa izaten zen; biztanleria berandu egokitzen zitzaion ekonomiari, eta ez zuen beti egokitzerik lortzen. Ordura arte abeltzaintzarako erabili izaten ziren lur ez oso egokiak landu behar zituzten nekazariak. Jaitsi egiten zen ongariaren produkzioa. Desagerturik geratzen zen laboreen produkzioaren eta abeltzaintzaren arteko oreka, hau da, nekazaritzaren eta lurra emankorra bilakatzeko beharrezkoa zen abeltzaintzaren artekoa. Horrela hasten zen indarrean jartzen lurraren beheranzko etekinen legea (D. Ricardo) [*ley de rendimientos decrecientes, law of diminishing returns*]. Jaitsi egiten zen, baita ere, nekazaritzaren produktibitatea, behera egiten zuen *per capita* produktuak. Jabeek bizi-gutxiengotik [*mínimo vital, minimum subsistence figure*] gertu lantzen zituzten lur zati txiki kontaezinak agertzen ziren. Gosea zetorren uztaldia txarra baldin bazen.

2.- Produkzio-indarren inguruko aldakuntzek etengabe aldatzen zituzten produkzio harremanak. Produkzio mota feudalaren ezaugarria zen produkzioaren eta jabekuntzaren arteko banaketaren ondorioz, klase feudalak beretzat lortzen zuen nekazaritzako produktuen kopurua mendez mende behera egiten zuen [*baja tendencial de la renta feudal, declining rate of the feudal levy*]. Ekonomiaren produkzio egiturako tentsioak areagotzen ziren neurrian hazi egiten ziren nekazaritzako produktuen salneurriak. Diruarekin ordaindu behar ziren nekazarien ordainketek (errentek), berriz, ez zuten inolako aldaketarik izaten. Esan daiteke errenta ordaindu behar zuen hedaduraren gorakadak konpentsatu egin zuela nolabait tasa feudalaren beherakada. Konpentsazio aukera hori desagertu egiten zen lurralde berrien konkista bukatzen zenean. Hori gertatzen zen kasu guztietan errenta feudala igotzen ahalegintzen zen noblezia feudala, errenta hori kobratzeko modua aldatuz: ordainketak eskatzen zituen jabegoaren eskualdaketa egiteagatik, lurrak bereganatzen zituen ondoren alokatzeko, erreserbak gehitzen zituen eta morroi-lana erabiltzen zuen.

Nekazariak, horrela, presio bikoitzaren aurrean zeuden. Biziraupen margena gero eta estuagoa zen, eta, aldi berean, handiagoa bilakatzen zen euren lurrez jabetzeko presioa. Ondorio bezala gose-krisialdi sail bat ekartzen zuen krisi-potentziala garatzen zen. Krisialdi

mota hori uztekin zegoen erlazionaturik, uzten zikloaren adierazgarria zen alegia, eta meteorologiaren gora-beherak baldintzatzen zuten (...). Hilkortasunari buruzko datuetan ikus daitezkeen eraginak kontutan hartuz gero, berriz, irudi desberdina ikusten dugu. Lehentasuna ez da ziklo laburrarena, ziklo luzearena baizik. Hornigaiaren krisialdiaren ondorioak larriagoak ziren nekazarien pobrezia mendeetako joeraren barruan aurreratuagoa zegoen neurrian eta presio feudala handiagoa zenean. Ziklo luzeak laburra menperatzen zuen, baina guztiz baldintzatu gabe. Mendeetako joeraren aldaketa hornigaiaren krisialdi sail batek eragiten zuen. Krisialdi horiek oso jarraituak ziren sarritan, eta sail guztiak ziklo luzea osatzen zuen.

Gose krisialdi horietan gertatzen zen biztanleen kopuruaren beherakadak sakondu egiten zuen gehiago nobleziaren diru-sarreraren arazoak. Errenta ordaintzen zuten nekazariak hiltzen baldin baziren behera egiten zuen errenta feudala. Baina ez zen errentaren osotasuna jaisten zen bakarra: tasa bera ere jaitzi egiten zen. Lurren eskaera jaitzi egiten zenean nekazariak baldintza hobekien lortzeko aukerak zituzten nobleziaren aurrean, eta nobleziak, ondorioz, ezin ziren maila berean eutsi ateraketa tasei [*tasas de exacción*]. Beste sistema batzuk erabili behar zituzten. Nobleziaren aukerak gerra (sarrerak indarraren bidez lortzeko) eta kargu publikoak lortzea ziren. Estatua ere murgiltzen da orain arazo horretan, baina Estatu horrek, Estatu feudala zenez, autonomia mugatua zuen benetako agintea zuen klasearen aurrean. Krisialdiak berarekin eramaten zuen feudalismoaren oinarria zen ateraketa sistema. Aurretik zuten sarrera maila berreskuratzeko (eta, sarritan, handiagotzeko) ahaleginak nekazarien ekonomiaren nukleoa erasotzen zuen. Gerrateen ondorioek eta gero eta zerga altuagoek hutsean uzten zuten nekazarien ekonomia horren bertsitate aukera. Krisia gero eta larriagoa zen. Azkenean krisialdiaren bukaera ikusten baldin bazen, nekazarien ekonomiari bere oreka berreskuratzeko aukera ematen zioten indarrak agertzen zirelako zen. Biztanleen kopuruaren jaitzierarekin handiagotu egiten zen bakoitzak lantzeko zuen lur kopurua, eta horrek erraztu egiten zuen lanaren produktibitatearen gorakada. Hazkundeak markaturiko ziklo berria hasten zen horrela.

3.- Produkzio modu feudalaren ondorioz sorturiko eredu horretan garrantzi handiko lekua betetzen du populazioaren garapenak. Populazioaren garapen horren arrazoiak – populazioaren eta baliabideen eta ateraketa sistema feudalaren arteko erlazioa – ez dira kasu guztietan nahikoa izaten azalpen garbiak emateko. Populazioaren hazkundeak gorabeherak izaten zituzten produkzio modu feudaletik kanpo zeuden arrazoiak zirela medio. Hiru ziren arrazoi horietako aipagarrienak: izurriteak, gerrateak eta Estatua, modernitatearen hasieran hartzen zuen modu ezaugarritsuan. Arrazoi horiek agertzen dira nolabait 1. eta 2. puntuetako ereduetan. Hala ere, arrazoi horiek kasu askotan ez dira izaten produkzio feudalaren lege dinamikoen ondorioak. Ezinezkoa da ongi ulertzea 1348ko Izurriak eragin zuen sarraskia kontutan izan gabe Europako biztanleriaren zati handiak zuen pobrezia. Baina, horrez gain, fenomeno exogenoa izan zen, ekialdeko merkatariek Europan baziloa sartu zutenean gertaturiko “unification microbienne du monde” (E. Le Roy Ladurie) delakoaren ondorioa. Nazioak osatzen zituzten estatuen arteko gerrateak eta horien ondoriozko ateraketa presioak ere ez ziren beti diru-sarrera feudalen jaitzierarekin egoten erlazionaturik. Badirudi, alderantziz, lotura horiek ahuldu egin zirela mendeak igaro ahala, eta hori estatuen aparatuen autonomizazioarekin batera gertatu zela. Feudal produkzio moduaren ondorioa ez diren historiaren prozesuko indarrek baztertu ezinezko garrantzia dute historiaren prozesu horretan.

Arrazoi hauen ondorioa da Europako feudalismoak bere gorengo maila ezagutu zuen fase sekularrak birritan eten izatea eta luze iraun zuen krisialdia bilakatzea. Azken finean, neurri handian prozesu horren gorabeheren eta krisialdien erantzuleak izan ziren. Arrazoi horiek era horretan orekatu egiten zuten feudalismoaren produkzio modua. Oreka berria ezartzen zuten populazioaren eta baliabideen artean, eta klaseen arteko erlazioa markatzen zuten.

Goi Erdi Aroan sorturiko hiriekin merkataritza-produkzio inguru espezializatua eratu zen, aurretik zegoen landako produkzioaren ondoan. Familia mailako landetako ustiategiak eta feudoetan aurrera eramandako “lanaren banaketa autarkikoak” (K. Modzelewski) hirien

eta landa-gunearen arteko lanaren banaketari utzi zion lekua; nekazarien produkzioa baserri guneetara mugatu zen, eta eskuz eginiko merkataritza-produktuena hirira. Lanaren banaketa horretan, berriz, salbuespenak egon ziren lehen unetik. Landa giroko ekonomiaren barruan bakoitzaren premietarako manufakturak egiten jarraitu ziren. Errementaria bezalako lanbide batzuk guztiz beharrezkoak ziren nekazaritza guneetan. Meatzaritza eta metalurgia ere nekazal guneekin zeuden harremanaturik, haien kokapenaren ondorioz. Hiriak sortu eta garatu zitezen eta lana hiriaren eta nekazaritza-guneen artean bana zedin ezinbesteko baldintza zen inguruetakoa landa-demografian gaineratikoa egotea; hiriak hazteko modu bakarra landa guneetan biztanle kopuru gaineratikoa egotea zen. Esan dugunak balio du, baita ere, ondorengo garapenerako, baina badirudi biztanleria maila kanpotik etorritakorik gabe ere mantentzeko gai izango zirela hiri horiek. Landako gaineratikoak benetako garrantzia izan zuen garapen horretan. Hiri-sarea sortzea ezinezkoa izango zen aurretik nekazaritza-iraultza bat egon ez balitz, asko handitu zuena nekazaritzaren produktibitate maila. Herri askotako produkzio gaineratikoak ziren beharrezko hiri baten hornidura bermatzeko. Hirien eta bertan zeuden artisautza-lantegien hazkundera nekazal girotik etorritako produktuekin zegoen erlazionaturik. Produktu horiek, neurri handian, nekazariak jaunei ordaindu behar zizkieten errentetatik zetozen. Ateraketa feudalarrekiko lotura agertzen zaigu hirietako gizarte-nukleo bezala, eta hiri horiek garatzeko ezinbesteko baldintza bezala, aldi berean. (...)

Hiria artisautzaren produkzioaren gunea eta merkatua zegoen gunea zen, aldi berean. Ez zen hiriaren eta landa inguruaren artean Goi Erdi Arotik aurrera gertaturiko lan-banaketa gauzatzen zen gunea bakarrik, produktu desberdinen trukaketa gertatzen zen lekua ere bazen. Horrela, lanaren banaketak ekartzen zuen merkataritza-ekonomia koordinatzea eta antolatzea zegokion hiriari. Ekoizleak kontsumitzaileari bere produktua zuzenean saltzeko aukera ikusten zen kasuetan izan ezik, merkataria ziren eginbehar hori betetzen zutenak. Bi muturren artean zeuden merkataria horiek, produkzio modu bien arteko bidea osatzen zuten eta irabaziak lortzen saiatzen ziren, produktua erosi zutenean ordaindutako baino prezio altuagoan salduz. Zikloa bukatu eta berehala normala izaten zen hori hedatzea, kapitala metatzeko horrela. Joera hori oso egokia zen merkatarientzat, negozioa hedatu ezker eta irabazi handiagoak lortzen zituelako, batez ere produktu bakoitza banatzeak zekartzan gastuak gero eta baxuagoak izango zirelako [eskala-ekonomiak lortuz, alegia]. Erabiltzeko balioak gero eta garrantzia gutxiago agertzen zuen; truke-balioak hartu zuen bere lekua. “Merkataria lortutako irabazia kontutan hartzen baldin badu ere, bere begiak beti daude etorkizunean etorriko zaizkion irabaziei begira” (A. Genovesi, 1765). Autonomizatu egin zen zirkulazio-prozesua. Orduetik aurrera, ekonomiaren barruan zirkulazioaren esferak hartu zuen nagusitasuna, eta ez produkzioaren esferak. Merkataritza-kapitalaren balorizazioa eta metaketa bilakatu zen nekazal girotik kanpoko ekonomiaren elementu nagusia, garai honetatik industrializaziora bitartean. Badago zenbait arrazoi horretarako. Artisautza-lanak ematen zuen produktibitatea oso baxua zen, eta oso zaila zen lan hori irabazi handiak lortzeko moduan garatzea. Produktibitatea hedatzeko eta irabaziak handitzeko aukerak lurralde eta herrialde desberdinen arteko lan-banaketa zegoen [*división interregional e internacional del trabajo, interregional and international division of labour*], eta hau merkataritzaren esparruaren barruan sartzen zen. Merkatuen jarduera oso garbia ez zenez (...), posiblea zen irabazi ikaragarriak lortzea alor horretan.

Merkataritza-kapitala biltzeko prozesuak kapitalismoaren ezaugarriak zituen jadanik, baina garrantzi handiagoa betetzen zuten oraindik sistema feudalaren ondorioz sorturiko baldintzek. (...). Merkataritza-kapitalak botere feudalek bere esparrua ziurtatzea lortu zuen, monopolioekin eta pribilegioekin alegia. Sarritan ikusi ohi den “birfeudalizazio” [*refeudalización*] joera oso osorik sartzen da irudi horren barruan. Merkataria belaunaldiek merkataritza alde batera utzi eta landa-inguruko ondasunak lortu zituzten. Merkataritza-kapitala kapital higiezia bilakatzen zen; horrek ematen zuen errentan bat egiten ziren lur errenta kapitalista eta errenta feudalaren elementuak. (...)

Eskulangintzaren eta merkataritzaren dinamikak jarraitu egiten zuen nolabait nekazaritzarena, baina ez zen horren berdina. Nekazaritzatik ateratako produktuen

merkataritzak izan ezik, nekazaritzatik kanpo zeuden alorrek ez zituzten horrenbeste jasan epe luzeko krisialdiak eta gorabeherak. Eskulangintzak ematen zituen produktuen salneurrien mugimendua premiazkoak ziren elikagaien salneurriek zutenarekin parekatzeko joera zuten, baina joera hau ez zen hain markatua; prezio-talde bien artean desberdintasunak ikusten dira, hazkunde garaietan eskulangintzako produktuen kontra eta krisialdi garaietan alde. Bi zergati ditu guzti horrek:

1) Nekazaritzan ez bezala, eta salbuespen batzuk salbu, artisautza-produkzioa ez dago beheranzko etekinen legearen menpe.

2) Behar-beharrezko elikagaien eskaria ez bezala, artisautzako produktuen eskaera “elastikoa da diru sarreren arabera”, hau da, diru sarrerekin dago erlazionaturik.

Bestalde, epe luzeko zikloak eragin txikiagoa izatea bigarren arloan lehen arloan baino, bi faktoreen ondorioa izan daiteke, kasu bakoitzean: hazkunde epealdietan behera egiten zuten soldaten kostuak, eta behera egiten zuen, beraz, kontsumitzaileen eros-ahalmenak; beherakada epealdietan gora egiten zuten soldaten kostuak, eta gora egiten zuen kontsumitzaileen eros-ahalmenak.

Lehen ikuspegitik, badirudi ziklo laburrak luzeak baino garrantzi handiagoa izan duela artisautza-ekonomiaren garapenean. Laboreen salneurriak gora egiten baldin bazuen, uzta txar baten ondorioz, eros-ahalmena nekazaritza produktuetan kontzentratzen zen berehala, behar beharrezkoak ziren elikagaiak lortu ahal izateko. Behera egiten zuen eskulangintzako produktuen eskaerak. “Nekazaritzako azpiprodukzioaren krisialdiak” (E. Labrousse), azpikontsumoaren krisialdia eragiten zuen eskulangintzan (...). Epe laburreko krisialdi horien garrantziaren oinarria, epe luzerako baliagarriak ziren ondasunak arrisku handian jartzen zituztela zen, eta baieztatu egiten zuten merkataritza-kapitalak produkzioaren esferatik urruntzeko zeukan joera. Hala ere, berehala ikusten da “ziklo laburra ala luzea” izeneko kontua ez dela benetako alternatiba. Lehen ikusi dugun bezala, modu estuan daude biak loturik. Bestalde, hornigaien krisialdiak eskulangintzan dituen ondorioek agerian uzten dute eskulangintza, nolabaiteko autonomia izan arren, sistema feudalarekin dagoela loturik.

Produkzio modu feudalak eta berarekin loturik zeuden eskulangintza-merkataritza alorrek zuten transformazio-ahalmenaren hasiera txiki bat baino ez da ikusten 1500 urtearen inguruan. Baina, ekonomiaren eta gizartearen aldaketaren berri galdetu aurretik, komenigarria litzateke aldaketa horrek jasan behar izan zituen oztupoak, erresistentziak, gogoratzea. Erresistentzia guneak nekazari giroko erkidegoa eta gremioa ziren. Biek, nekazari eta artisau txikiak, kanpoko interbentzioen aurrean, jaun feudalen eta merkatarien aurrean batez ere, babesteko sortutako erakundeak ziren. Horrez gain, ekonomiaren eta gizartearen barne-oreka ez apurtzea lortu behar zuten. Barne oreka hori apurtu zezakeena truke-balioen sarrera zen. Horretarako, gremioek eta nekazari-erkidegoek arau estuen barruan mantentzen zituzten bertako kideak, “produkzioeko faktoreen” erabilerari zegokionean, eta mugatu egiten zuten kideen mugitzeko askatasuna. Ateraketa feudalararen loturaren eragina anbiguala zen. Produkzio prozesuaren kontrola nekazarien eskuetan uzten baldin bazuen ere, jauna nekazaritzatik ateratako zati handiarekin geratzen zenez eta lurraren kolektibismoa mantentzen zuenez, itxi egiten zen nekazaritzaren garapenearen bidea. Bestalde, jaun feudalek eskatzen zituzten diru-ordainketak eta baita estatuak ere eskatutako zergak kontutan harturik, nekazariak merkatura bideratuko zuten produkzioa ere atera behar zuten, dirua lortzeko alegia, eta gora egiten zuen horrela landa ingurutik etorritako produktuen kopuruak. Jabekuntzaren presioa merkatalpenaren motore bilakatu zen.

Produkzio modu feudalak elementu aurrerakoiak zituen bere barnean [hots, kapitalismorantz zeramatzenak, aurrerabidean sinesten duen perspektiba historiografiko batetik]. Gertaturiko gorakada sekularrek bultzatu egiten zuten metaketa prozesua. Zerealen salneurrien gorakadak, lehen ere aipatu ditugun prezioen maila desberdinek, eta soldata errealeen beherapenek neurri handiagoko ustategien alde jokatzeko zuten, eta bultzatu egiten zuten horien hedapena. Hazkunde fase sekularren bukaera aldean biderkatu egiten ziren azpiprodukzio krisialdiek, bestalde, bizkortu egiten zuten kontzentrazio prozesua, “lurra”

izeneko produkzio-bidearen banaketak, maila desberdinetan eginikoak, sakondu egiten baitzuen prozesu hori. Landetxe handiek etekinak ateratzen zizkioten krisialdiari; txikiagoa zen merkatura eraman beharreko produktuen kopurua, baina diru sarrerak handiagoak, laboreen salneurri altuagoei esker. Landetxe txikiak, berriz, oso egoera larrian jartzen ziren krisialdien aurrean. Alde batetik, askoz txikiagoa zen merkatura eraman zezaketen produktuen kopurua, eta, horrez gain, sarritan, merkaturian bertan erosi behar izaten zituzten lehen mailako betebeharrak asetzeko produktuak; zorrak ziren egoera horren ondorioa. Lurra saldu beharra zegoen sarritan prozesu horren bukaeran. Metaketa prozesuak [*proceso de acumulación, accumulation process*] aurrera egiten jarraituko zuen jaunek eta erkidegoek ez baldin bazuten ezer egiten prozesu hori gerarazteko. Ahalegin horiek, hasieran, biztanleen kopuruaren hazkundearen aurrekoak eta prozesuak sortarazi zituen biolentziaren kontrakoak baino ez ziren izan. Baina, denborarekin hedatu egin zen, azken helburua lurra askatasun osoz erabili ahal izatea baitzen, eskubide kolektiboek jartzen zituztenak bezalako inolako mugarik gabe, Ingalaterran hesitze (“enclosures”) izenarekin ezagutzen dena, alegia. Hesitze horiek zalantzan jartzen zuten landa giroko gizartearen oinarria. Aldi berean, ustiakuntza sistema berriak sartzeko eta nekazaritzan produktibitate maila igotzeko ezinbesteko baldintza bilakatu ziren.

Nekazaritza-metaketak behin baino gehiagotan aurkitu zuen bere bidean jaun feudalek eginiko akumulazioa, eta horren arerioa bilakatu zen. Tasa feudalararen erorketa gerarazteko irtenbide bat bilakatzeko asmoarekin, nobleziak hedatu egiten zituen bere erreserbak, landu gabeko lurak edo nekazarien eskuetan zeuden lurak bereganatuz eta euren lurren barruan sartuz. Bi aukera zeuden hortik aurrera:

1) Nobleziak bere aldetik esplotatzen zituen hedaturiko lurak, bai lan-errentak zor zizkioten langileekin, erdialde-ekialdeko eta ekialdeko Europan gertatzen zen bezala (landetxeak, jaunaren domeinuak), edo lan-indar menpekoarekin (jornalariak), Espainiako hegoaldean eta Italian gertatzen zen bezala (latifundioak).

2) Nobleziak itzuli egiten zuen harturiko lurra, baina ez enfiteusi moduan [hots, epe luzeko errenta kontratu baten bitartez], alokairuan baizik [*arrendamiento, renting*], alokairu hori inolako eragozpenik gabe egokitu baitzitekeen salneurrien mailara.

Lehenengo irtenbideak, jaunaren domeinuen hedatzeak batez ere, nekazaritza produkzio harremanen birfeudalizazio prozesua baino suposatu ez zuen arren, bigarrenak produkzio modu feudaletik haraindi begiratzen zuen, lurren hesitzearekin osatu zenean batik bat, Ingalaterran gertatu zen bezala. Nekazariak espropiazioa jasan zuten. Merkaturia jaunaren eta lurraren jabe berrien arteko elementu erregulatzailerik bilakatu zen. Errenta feudala lurraren errenta kapitalista bilakatu zen. “Ingalaterrako bidea” (nekazalgaroen eliminazioa) izan zen, historiaren ikuspegitik ikusita “kapitalismorako nekazaritza bidearen” (E. J. Hobsbawm) benetako alternatiba.

Eskulangitza-merkataritza alorrean dena zegoen merkataritza-kapitalak eskariaren bultzadaren eta produkzioaren esferaren aurrean hartuko zuen jarreraren menpe. Merkataritza-kapital horri nahikoa baldin bazitzaion gremioetan antolaturiko artisauek hirietan sortutako produktuekin lan egitea, ez zen aldakuntza handirik egongo. (...) [Baina] Egoera aldatu egin zen merkataritza-kapitalak ez zuenean gehiago onartu gremioen monopolioa eta ahalegin guztiak egin zituenean hori apurtzeko edo alboratzeko. Lehenengoa zaila zen, gremioetatik at produkzio-talde antolatuak sortzeko saiakera guztiek talka egin baitzuten jadanik ezarriarik zeuden gremioen jarrera guztiz kontrakoarekin. Merkataritza-kapitalak une batzuetan izandako arrakasta handia kontutan izanik ere (Italiako hirietan Behe Erdi Aroan, besteak beste), geratu zitzaizen aukera bakarra izan zen produkzioa gremiorik ez zituzten hiri txikiak, herrixken neurrikoak, edo landa inguruak eramatea. Horretan bat egiten zuten bi garapen desberdinek. Aipatu dugun metaketa prozesuak, aurretik, lur gutxi edo batere lurrik ez zuen nekazariaren irudia sortu zuen, biztanleen kopuruaren hazkundearekin batera alegia. Nekazari horiek beste bide bat behar zuten diru-sarrera gehiago lortzeko. Landa inguruak hirien aurkako produkzio-gune bilakatu nahi baldin bazituen, merkataritza-kapitalak aipaturiko pertsona horien indarra erabiltzea baino ez zuen egin behar. Lihozko ehunetan eta oihaletan

batez ere, landa inguruetako “etxeke lantegiarekin” [*taller doméstico, workshop*] (Karl Bücher) lotura ezarri zezakeen, autokontsumorako bideratutako artisautza-produkzioarekin alegia. Landa inguruetako artisau txikiek norberak erabiltzeko produktuak egiten zituzten printzipioz, baina merkatariaren menpe gera zitezkeen, gremioetan antolaturik zeudenak ez bezala. Ordutik aurrera bera, merkataria, izango zen baldintzak ezarriko zituen, eta ez gremioa. Produkzioaren esferaren eta zirkulazioaren esferaren arteko erlazioa azken horren aldera desorekatu zen erabat. Esfera honen nagusitasuna mantendu egin zen merkataria produkzioaren esferan sartu eta etxeetako lana antolatzen hasi zenean. Desagertu egin zen bi esferak bereizten zituen hesia, baina produkzio prozesuak zirkulazio prozesuaren menpe egoten jarraitu zuen. Merkataritza-kapitalak gremioek ezarritako mugak apurtu ondoren, bidea irekirik zegoen inolako trabarik izango ez zuen hedapenarekin hasteko, momentuz bederen.

Sistema feudalaren mugen barruan hasitako prozesuen lehen pausoak baino ez ziren ikusten 1500. urtearen inguruan. Historiak ondoren izango duen bilakaera kontutan hartuz gero, ikusiko da nekazaritzan eta eskulangintza-merkataritzan ikusitako joerak erlazionaturik zeudela euren artean. Landa inguruetan artisautza-produkzio handia lortzeko modu bakarra inguruetako guneetan artisautza-gune horietarako elikagaiak lortzea zen. Aipatu ditugun bigarren gune horiek ezinbestekoak ziren artisautza guneen garapenerako, bertan sortzen baitzen eskulangintza-produktuen eskaria. Gune baten espezializatorako baldintza beste gune baten espezializazioa zen. Prozesu horren barruan merkatuak zabaldu egin ziren. Ordura arte nekazaritza- eta artisautza-ondasunak ekoizten zituzten etxeak espezializatu egin ziren, eta bietatik bat aukeratu behar izan zuten.

Espezializazioak handiagotu egin zuen nekazaritzaren produktibitatea. Moteldu egin ziren uzten zikloaren gorabeherak. Ekonomiaren gero eta interdependentzia handiagorekin ondoren posible izan zen gune baten uzta-defizita bestean zeuden soberakinekin orekatzea. “Mota zaharreko” epe laburreko krisialdiek galdu egin zuten biolentzia-maila. Barne-eskariak ez zuen soilik pisua irabazi, orekatu ere egin zen. Horri, gainera, kanpoko eskaria gehitu zitzaion, eta eskari hori garrantzi handiko faktorea bilakatu zen, batez ere Europako potentziek euren menpe hartu zutenetik Europatik kanpoko mundua, bere prozesuaren barruan sartuz. Eskulangintzaren produkzioaren gorakadak baino garrantzi handiagokoak izan ziren hortik sorturiko gizarte-aldaketak; eskulangintza-produkzio panorama tinko baten erdian, dependentzia harreman berriek hartu zuten dependentzia feudal harreman zaharren lekua. Azken harreman horiek kapitalistak ziren jadanik. Sistema feudaletik haraindi zegoen gizarte baten egiturak hasi ziren ikusten.

Oraindik sortzen ari ziren estatu-aparatuak garrantzi handiko rola jokatu zuten aldaketa sozioekonomikoen prozesuan. Estatuaren zergek osagarritasun eta konpetentzia erlazioa mantentzen zuten ordainketa feudalekin. Mendeak igaro ahala gehitu egin zen Estatuaren zergen garrantzia, eta ordainketa feudalen maila gaintitu zuten. Ateraketa fiskala ateraketa feudalaren gainetik hazi zen, eta mugatu egiten zituen azken horren malgutasuna. Aurrena “feudalismo zentralizatu” bat (G. Bois) sortu zen; horrek ez zuen jatorrizko feudalismoaren lekua hartu, osatu baizik. Feudalismo zentralizatuaren ezaugarri nagusia Estatuak bilduriko zergak klase feudalaren artean birbanatzea zen. Produkzio-indarrak garatzen joan ziren neurrian, Estatuak, hala ere, izaera gero eta kontraesankorragoa hartu zuen, bi eskaera betetzen ahalegintzen baitzen aldi berean: klase feudalaren nagusitasuna bermatzea eta ekonomiaren hazkundera bizkortzea. Produkzio modu ezberdinak elkarrekin agertzen ziren gizartearen isla bilakatu zen. Gehitu egin zen Estatuaren autonomia erlatiboa. Prozesu horretan gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen bere ateraketa sistemak eta, hori dela eta, fiskalitate feudalaren gero eta kontrajarriagoa bihurtu zen. “Feudalismo zentralizatuaren” instantzia inpositibo bezala zuen betebeharra bigarren mailara pasa zen.

Bere bortxaren gaineko monopolioaren ondorioz Estatuak aukera zuen instantzia bakarra 1) produkzioaren esferan soldatapeko lana mantentzeko eta derrigortzeko, 2) salgaien zirkulazio askea instituzionalki bermatzeko eta, azkenik, 3) merkataritza-gizarte sortu berriaren oinarria bilakatuko zen zuzenbide formala sortzeko. Bestalde, azpiegitura materialaren

eraikuntzarekin batera, merkaturako ondasunen produkzioarako baldintza orokorrak ezartzen zituen. Estatuako aparatuek zuten kontraesan-izaerak posible egiten zuen ondorio disfuntzionalak sortzea, eta, horregatik, beharrezkoa zen aparatu horiek gizartearen egoera aldakorretara egokitzea.

Indar partikularrak, hala ere, zentralizazio prozesua indartsuegia bilaka ez zedin bezain boteretsuak izaten ziren, gehienetan. Europako feudalismoaren ezaugarriak izan ziren jabekuntza-egitura deszentralizatu eta partzelarioak (produkzio modu asiarretik argiki bereizten zutenak eta Europaren “garaipenerako” baldintza gehigarri erabakigarritzat jo behar duguna) horrenbeste markatzen zuen Europako gizartearen barne-egitura, trantsizioeko epealdi honetan, ezen, nekazaritza arloan mugatu eta erlatibizatu baldin bazen ere, oinarri berri eta ziur bat lortu baitzuen gero eta indar gehiagorekin ageri zen eskulangintzan.

Zalantzarik gabekoa da industrializazioa eramango zuen prozesuaren indarra. Nekazariak jaunei eta Estatuari ordaindu beharreko zergen zamak behartu egin zituen nekazariak merkatuaren bidea bilatzera eta bertara bideratutako produkzioa indartzera. Nekazariak zeukan lurra txikiegia baldin bazen, nekazari indartsuagoen landetxeetan edo jaunen erreserbetan egin zezaketen lana, edo diru sarrera gehigarriak lortu esportazioa bideratutako landa inguruetakoa eskulangintza-lantegietan. Bigarren aukera hartuz gero, merkataritza-kapitalaren eraginpean erortzen ziren. (...) Prozesu sozio-ekonomikoak itxura bortitzagoak hartu zituen Europako erdialde-ekialdeko eta ekialdeko domeinuetan eta Hegoamerikako eta Ertamerikako esklabo-guneetan. Sistemaren erdialdean, berriz, lur-sailen jabekuntza egiturak erresistentzia aukerak eskaintzen zizkien populazioaren menpeko taldeei. Ordainketen presioa itogarria ez izatea lortu zuten horrela»¹.

Hots, Kriedtek esandakoaren arabera, feudalismoaren oinarrizko landa-izaera nahiko finko mantendu zen, nekazariari dagokionean batez ere, baina elementu berri esanguratsuak gehitu zitzaizkion: merkatu ekonomiaren eta produktuak merkatura eramateko gero eta presio handiagoak, merkatarien klasearen gero eta presentzia eta eragin handiagoa hala artisautza produkzioan nola landan (*Verlagsystem*aren bitartez, eta baita kreditu zuzenaren bitartez ere), Estatu zentralizatuagoen garrantzi gero eta handiagoa arautzaile eta zerga-ezartzaile gisa, eta Europako zabalkunde geografiko-militarra.

Ehun Urteko Gerraren eta Behe Erdi Aroko krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, ondo dakigun bezala, Europako zenbait estatu feudalek, Mendebaldean batik bat, gero eta lur (eta meneko) gehiago hartu zuten beren baitan, hots, zentralizazio prozesu ezberdinei ekin zieten, monarkia modernoak edo estatu absolutistak sortuz; prozesu hori bereziki ikusgarria izan zen Frantzian, Ingalaterran, Monarkia Hispanikoan eta beste zenbait estatu txikiagoetan. Perry Andersonek dioen bezala, feudalismotik kapitalismora gertatzen den trantsizioa ulertzeko oinarrizko gakoak dira sartaldeko monarkia absolutuak. Jakina den bezala, monarkia absolutuek armada eta burokrazia iraunkorrak, zerga-sistema nazionalak, zuzenbide kodifikatua eta merkatu bateratua ekarri zuten, hots, haien hastapenak, prozesu horiek ez zirelako guztiz osatu kapitalismoa nagusitu zen arte, gehienetan XIX. mendean. Dena dela, ez dugu ahaztu behar garai horretan nagusi izan zen klase ekonomiko eta politikoa Erdi Aroko bera zela, hots, aristokrazia feudala. Andersonek azpimarratzen zuen bezala, “noblezia horrek aldaketa sakonak jasan zituen Erdi Aro osteko mendeetan, baina absolutismoaren historiaren hasieratik amaiera arte botere politikoa menderatzen jarraitu zuen”. Dena den, prozesu hori ez zen samurra izan noble guztientzat, autonomia politikoa eta militarra galdu zutelako, edo mugatuagoa ikusi zutelako, estatuaren mesedetan noski, eta ez da harritzekoa erresistentzia eta matxinada ahaleginak egotea, estamentu pribilegiatuen aldetik, erregearen boterearen zabalkuntzaren aurka (Frantziako *Fronde* izeneko altxamenduak kasu, 1648 eta 1653 bitartean). Baina, Aro Berrian zehar, jabegoaren arloan klase feudala indartua atera zen, lur gehiago

¹ Peter KRIEDTE, *Feudalismo tardío y capital mercantil*, Bartzelona 1982 (sarreratik hartua).

bereganatuz, lur gehiago binkulatuz (maiorazkoa bezalako erakundeen bitartez, hots, jabego horiek merkatutik ateraz) edo lur gehiago amortizatuz (Elizak, batez ere); Estatuak izan zen lur jabego horietan lan egiten zuten errentariak, morroiak eta jornalariak diziplinatuta mantentzeko erabili zen makineria berritua (izan ere, Aro Berrian zehar nekazarien matxinadak zanpatzeko gero eta ohikoagoa bihurtu zen errege-armadak erabiltzea, Erdi Aroan baino gehiago alegia, zeinetan jaunen gudarosteek protagonismo handiagoa izan baitzuten).

Dena dela, Estatuaren babespean beste gizarte talde batek egin zuen aurrera, lehenago ikusi dugun bezala: merkatariak, hots, Europaren zabalkunde geografikoaren protagonista suertatu zen burgesia, artisautza produkzioan aurreratze-sistemaren bitartez *infiltratzen* ari zena, eta gero eta diru-kopuru handiagoak maileguan emateko moduan zegoena, hala partikularrei nola, batez ere, Estatuari berari hain zuzen ere (kreditu horiek ezinbestekoak baitzuten bere gerrak finantzatzeko). Biei, Estatu absolutuari eta merkataritza burgesiari, egin zien mesede Aro Berriko monarkiek aurrera bultzatu zituzten zuzenbidearen arautzeak, horretarako sustrai erromatarreko zuzenbide zibil klasikoa erabili baitzen: zuzenbide horrek printzearen botere legegile absolutua azpimarratzen zuen, sustrai feudaleko zuzenbide pribatuaren aurrean, ohituran oinarritzen zena. Baina, aldi berean, zuzenbide horren erabilerak jabego pribatu absolutua bultzatzen zuen, merkatarien premietara eta, geroago, kapitalismoaren baldintzetara ezin hobeto egokituko zena.

Monarkia absolutuen ezaugarri klasikoak hauek ditugu: 1) armada zentralizatu, iraunkor eta profesionalak (Erdi Aroan nagusi ziren noblezia militarren behin behineko gudarosten edo *mesnaden* aurrean); armada hauek, egia esateko, mistoak ziren, konbinatzen zutelako, alde batetik, modu tradizionalan errekrutatutako gertziak (jaun feudalek ekarritakoak, edo soldadu-biltzeen [*levas, impressment*] bitartez lortutakoak), mertzenarioez osatutako soldadutalde gero eta handiagoekin (ohar zaitezte “soldadu” eta “soldata” hitzen etimologiaz); XVII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera mertzenarioen armaden garrantzia murrizten hasi zen eta armada profesional iraunkorrak nagusitzen joan ziren (estatuaren ohiko gastua, baita bake garaian ere, are gehiago handitu zuen zerbait). Perry Andersonek azpimarratu bezala, estatu absolutuak “guda-zelairako bereziki eraikitako makinak ziren”, eta huraxe zen bere gastuaren eta, ondorioz, zergen bitartez jasotzen zuen diru gehienaren zioa. Eta horrek azaltzen du, besteak beste, zergatik egon zen europar Aro Berria gerrez mukurua: “bakea salbuespen harrigarria izan zen Sartaldean” garai horretan guztian zehar. Izan ere, horrela galdu zuen botere politikoa nobleziak estatuaren aurrean: *iraultza militarra* (zalditeriaren gainbeherarekin, erdi aroko gaztelu feudalarren defentsarako ahalmenaren murrizketarekin eta, batez ere, suzko armen garrantziaren igoerarekin) gerraren garestitzea ekarri zuen, eta, ondorioz, jaun feudalak kontu belikoen erdigunetik aldendu zituen, makineria militar zabalago bat mugiarazi zezakeen instantziari (estatuari) protagonismo ia osoa emanez.

2) Beste ezaugarri bat burokrazia zibila izan zen, gero eta konplexuagoa, gero eta maila gehiago eta gero eta langile gehiago barneratu zituen, unibertsitateetan formatuko direnak, nagusiki. Dena dela, ezin dugu estatu kapitalisten burokrazia meritokratiko eta guztiz profesionalarekin nahastu: goi karguak, ia salbuespenik gabe, goi nobleziaren eta kleroaren partaideek bereganatzen zituzten (hala arlo administratiboan nola, batez ere, militarrean), eta, maiz, jabego pribatutzat hartzen zen, oso ohikoa bihurtu zen kargu-salmentaren praktikaren bitartez (Estatuarentzat diru-iturri inportantea izan ohi zena).

3) Zerga sistema gero eta eraginkorrago eta orokorrago baten ezarpena izango litzateke monarkia moderno edo absolutuen hirugarren ezaugarri nagusia: estatu-aparatu handiagotu hark eta, batik bat, armada iraunkor eta profesional zabalago haiek fiskoaren garapen bat ekarri zuten halabarrez. Dena dela, horrek ez du esan nahi zerga-sistema homogeen eta berdintzaile bat bultzatu zenik: pribilegio feudalak tinko mantendu ziren, eta horrek esan nahi zuen zuzeneko zergak herriak baino ez zituela ordaintzen (noblezia eta kleroa salbuesiak baitzeuden), eta erresuma barruko eskualdeen arteko desberdintasunak eta salbuespenak oso nabarmenak izan zitezkeela; testuinguru horretan, ez da harrizkoa, alde batetik, zeharkako fiskalitatearen garapen handi bat gertatu izana (denek ordaintzen baitzituzten salerosketen

gaineko zergak) eta krediturako joera areagotzea, monarkien aldetik. Gainera, zergak jasotzeko ahalmena beste instantzia batzuekin konpartitzen zuen oraindik estatuak: elizarekin eta nobleziarekin, hain zuzen ere, eta, gainera, zegozkion zergen portzentaje oso txikiak jasotzen zituen zuzenean estatuak, zergen jasotzea eta administrazioa enpresa pribatuen esku utzi ohi zirelako (gehienetan estatuaren hartzekodunak zirenak aldi berean, zer esanik ez). Dena dela, ezin da gutxietsi europar estatuak bultzatutako zerga-sistema berrien garrantzia, eta, Porshnevek esan zuen bezala, nabaria da “errenta feudal zentralizatu” hark gutxitu egin zuela, askotan, “tokiko errenta feudalarren” garrantzia, zeinarekin, gorago Kriedtek gogorazten zigun bezala, maiz sartzen baitzen kontraesanean (Aro Berriko matxinada askoren jatorria zergen igoeraren kontrako altxamenduak izateak frogatuko lukeen bezala, bestalde).

4) Merkantilismoaren bultzada, gertaera ekonomikoak aztertzeko modu gisa, eta estatuaren politika gisa, monarkia absolutuen ezaugarrien artean sartu beharko genuke orobat: estatuaren esku hartze ekonomikoaren eta muturreko protekzionismoaren premia azpimarratzen zuen, ondasunen kopurua finkotzat hartzen zen mundu batean. Hori logika guztiarekin egokitzen zitzaion estatu absolutuaren ezaugarriei, munduko ondasunen kopurua finkoa bazen, zati handiago bat lortzeko ondoko (edo urruneko) erresumari ebatsi behar zitzaiolako: alde horretatik, merkantilismoa erresumaren botere ekonomikoa handitzeko politika multzo bat izango litzateke, zeinaren azkeneko helburua erresuma indartzea izango bailitzan, beste erresumei gerra egiten jarraitzeko eta, ondorioz, erresuma handiagoa, boteretsuagoa eta aberatsagoa bihurtzeko. Dena dela, horrek ez du esan nahi barne-merkatu bateratuak lortu zituztenik monarkia absolutuek (horretarako urratsak eman zituzten arren, barne-aduana batzuk ezabatuz adibidez); helburu hori estatu burges nazionalak baino ezin izan zuten bete, XVIII. eta, batik bat, XIX. mendean.

5) Diplomaziaren garapena izango litzateke estatu absolutuaren bosgarren ezaugarri klasikoa, hau bai garaiko berrikuntza nabarmena (sustraiak Erdi Aroan dituen arren), eta, azken finean, erresumaren handitze-politikaren jarraipentzat hartu behar dena (baina, gerra bultzatu ordez, estatuen arteko itunak eta, batez ere, ezkontza-politika erabiliz; P. Andersonek idazten zuen bezala, “diplomaziaren mekanismo gorena, beraz, ezkontza zen, gerraren ispilu baketsua, eta, aldi berean, hainbat gerraren sorburua”); alde horretatik gogoan hartu behar dugu monarkiek ez zutela funtzionatzen lurraldetasunaren logika nazionaletik (hori geroago etorriko da), logika dinastikotik baizik, hots, familia baten boterea (ekonomikoa, politikoa, territoriala) handitzeko helburuarekin.

Estatu Modernoa, beraz, bere gabezia eta lorpenekin, feudalismo garatuaren indar ekonomiko garrantzitsua bihurtu zen: garaiko ekonomien bilakeran gero eta eragin handiagoa zuen aparatua (baina gaur egungo estatuena baino txikiagoa, edonola ere), soberakinaren ateraketaren elementu gero eta inportanteagoa (beti estamentu pribilegiatuen zerbitzuan, eta, batzuetan, haiekin lehian), eta, aldi berean, interes ekonomiko propioak mamitzen joan zen instantzia bat, kontraesan iturri bihurtuko dena, adibidez, zerga-bilketaren ez nahikotasuna nabarmen larritzen zen garaietan.

Feudalismo Garatuaren beste ezaugarri inportante bat hedakuntza geografiko-inperiala izan zen. XIII. mendearen bukaeratik aurrera, 1. gaian aipatu bezala, Europa kristauaren mugen hedakuntza geratu egin zen, hiruzpalau mendetako bultzadaren indarra ahitu eta gero; geldiene edo uzkurtze horrek Behe Erdi Aroko krisiarekin eta harekin batera eman zen indar demografikoen agorpenarekin izan zuen zer ikusia. XV. mendetik aurrera, ordea, hedapen horri ekin zitzaion berriro, batez ere Europako mendebaldetik, hots, beheraldi ekonomikoa leunen sentitu zen guneetatik, edo berreskurapena bizkorren hasi zen lekuetatik alegia (kasu horretan zeuden, esaterako, Portugal eta Gaztelako erresumak). Horretaz gain, kontuan hartu behar dugu Behe Erdi Aroan zehar merkataritza-ekonomia europarrak geroz eta garrantzi handiagoa hartu zuela (ikus berriro ere 1. gaia). Horrek urte eta zilarraren premia handiagoa ekartzen zuen, diru-zirkulazioari eusteko alegia, baina kontuan hartu behar da Europan txanpontzen zen urrea gehienbat Afrikatik inportatzen zela, merkatar

musulmanen bitartekaritza dela medio (Sudango meategietatik, esaterako), eta, bestalde, Europako zilar meategiak nahikoa agortuta zeudela (garai hartako ustiapen-teknologia kontuan hartuta alegia); alde horretatik, ez da harrizkekoa europarren grina metal preziatuak lortzeko, eta horrek Afrikarekin tratu zuzena bilatzera bultzatu zituen. Espezieen edo bizigarrien merkataritza hazkorra (piperrautsa, kanela, iltzea...), Mediterraneoetik iristen zena bitartekari askoren eskuetatik igaro ondoren (gogoan hartu Marco Poloren ahalegina, jada XIII. mendean), beste interesgune garrantzitsua zen, halaber. Eta produktu berrien eskaria, Behe Erdi Aroko merkataritzaren suspertzeak bultzatua, hortxe dago orobat, beste egile batzuek seinalatzen duten arrantza-leku berrien bilaketarekin batera (kontuan hartu Penintsula, eta Europa kristaua, oro har, arrain-kontsumitzaile handia zela, garizuman eta urteko beste zenbait egunetan haragia jateko debekuaren ondorioz, besteak beste). Esplorazio eta merkataritza bidaietarako pizgarri suertatu ziren premia edo bulkada horiek guztiak.

Bestalde, ezaguera, teknika eta teknologia berrien garapena, batez ere bidai eta itsaso arloetan, funtsezkoa izan zen Europaren hedakuntza berria azaltzeko; alde horretatik, ez da harrizkekoa, haren kokapen geografikoa eta “Errekonkista” prozesuaren amaiera zirela eta, arlo horretan buru Portugaleko erresuma egotea. Hala, itsasketa arloko asmakizun eta ezaguera zenbait garatu ziren XV. mendearen hasieratik, eta 1490eko hamarraldirako funtsezkoenak finkatuta zeuden jadanik europar itsasontzietan: besteak beste, astrolabioaz ari gara (sextantearen aurrekaria, eta jatorri musulmana zuena: Goi Erdi Arotik ari ziren garatzen, nahiz eta Europa kristauko lehenengoak Portugalen agertu XV. mendearen hasieran); iparrorratzaz (Txinatik etorria, eta ziurrenik 1410 inguruan erabiltzen hasi zena Europan, egile batzuk arrasto zaharragoak topatu direla defendatzen duten arren); popako lemaz (eraginkorragoa zena ontzia gidatzeko ordura arte nagusi ziren alboetako lemak baino); latindar eta greziar belen arteko konbinaketaz, haizeen aprobetxamendu hobea ziurtatzen zuena, eta, horrekin batera, ontzi mota berrien garapenaz (karabela, nagusiki, Erdi Aroko koka baino erabilerrazagoa); itsasontziak babesteko artilleriaz; *portulano* edo nabigazio-kartez (Mediterraneo aldeko marinel italiarrek, baleartarrek eta katalanek garatuta); eta, A.W. Crosbyk azpimarratzen duen bezala (funtsezkoa izan baitzen urruneko nabigazio ziur baterako), Atlantikoko haizeen eta korronteen ezaguera gero eta zehatzagoaz, mende oso bateko esperientzia luzeak baino ezin izan zuena eskaini. Hau guztia bereziki garrantzitsua izan zen, batez ere kontuan hartzen badugu aurreko urruneko europar konkista edo kolonizazio ahaleginen arazo nagusienetako bat komunikazio jarraitu bati eusteko ezintasuna izan zela: gogoan hartu Palestina eta Sirian ezarritako mendebaldeko kristau gudarosteek izan zituzten zailtasunak haien jatorriko lurraldeekin harreman zuzenetan aritzeko, eta, batik bat, bikingoek Groenlandian eta ziurrenik Ipar Amerikan egindako kolonizazio ahaleginak, ezertan geratu zirenak Behe Erdi Aroko garaietan (hotzaren areagotzeak kolonia horiek bideraezin bihurtu zituzten, eta metropoliarekiko kontaktu jarraituen ezean, inuitek okupatu zituzten bikingoek Groenlandian utzitako espazioak). Azkenik, Portugalgo eta Gaztelako erresumen kokapen geografikoak, Afrikaren ondoan, eta Mediterraneo itsasoaren eta Ozeano Atlantikoaren artean, azaltzen du, hein batean, Penintsularen protagonismoa XV. eta XVI. mendeetako esplorazio- eta kolonikuntza-bidaietan; hala, Kanariar irlen eta Madeiraren esplorazio (XIV. mendetik) eta konkistak (XV. mendearen hasieratik) jatorri askotako marinelak trebatzeko balio izan zuen: portugaldarrak, gaztelauak, mallorkarrak, katalanak, genoarrak, pisarrak.... Eta ez hori bakarrik: Amerikako konkista izango zenaren lehenengo “laborategiak” izan ziren, azukre kanabera plantazioen ezarpen goiztiarrak eta esklabo afrikarren inportazioak erakutsiko luketen bezala.

Europar hedakuntzaren lehenengo urratsa, irla horien konkistaz gain, Afrikako kostaldearen esplorakuntza izan zen, Portugalgo erresumak eraman zuena aurrera XV. mendean zehar, batez ere Henrike *Itsasgizona* printzearen gidaritzapean (1394-1460), lurralde batzuk konkistatuz (irlak) edo Afrikako kostaldean *feituriak* (faktoriak, merkataritza-guneak alegia) ezarriz: hala, 1419an Madeira konkistatu zuten, 1431n Azoreak, 1460an Cabo Verde,

1470ean Ginea; 1481n El-Mina (gaur egun, Ghanan); 1488an, ezaguna den bezala, Bartolome Dias Esperantza Oneko lurmuturrera iritsi izen, eta horrek Asiarako itsasbide zuzena zabaldu zuen, 1498an Vasco Da Gamak burutu ahal izan zuena Calicutera heldu zenean. Bidaia horietan portugaldarrek musulmanek urruneko merkataritzaren gainean zeukaten monopolioa hautsi, eta urrea (Afrikako trafikoa mendebaldeko kostaldera desbideratuz), bizigarriak (Afrikatik eta, ondoren, Indiatik), eta bolia lortzen zuten, besteak beste, eta Europan zehar birbanatzen zituzten; bestalde, apalki bada ere, esklabo-merkataritzan parte hartzen hasi ziren, besteak beste aipatu Atlantikoko irletan (Azoreak, Madeira) azukre-ekonomia bat bultzatu ahal izateko (plantazioek lan-esku merkea eskatzen baitzuten). Dena dela, azpimarratu behar da, Atlantikoko irletan ez ezik, Portugalek ez zuela lurralde-koloniakuntzako politikarik eraman aurrera, hots, harena merkataritza-hedakuntza izan zela nagusiki.

Gaztelako erresumak, aski ezaguna denez, mendebalderako bidea hartu zuen esplorazio-ahalegin haietan. Atlantikoko irletatik Kanarietako artxipelagoa baino ez zuen eskuratu (ez zuena konkistatzen amaituko 1496ra arte, guantxeen erresistentzia zela eta), eta Alcaçovasko itunak (1474), gainera, Portugalek Afrikaren gainean zeukan lehentasuna berretsi zuen. Ez dugu hemen errepikatuko Kristobal Kolonen historia eta Asiako ekialdera mendebaldetik ailegatzeko bere hipotesia: gogoratu, besterik gabe, Europako erresumen artean Gaztelakoa izan zela, azkenik, ideia aintzat hartu zuena, eta, ondorioz, Amerikaren “aurkikuntza” gauzatu zuena 1492an. Une horretatik eta, gutxi gora-behera 1550era arte luzatu zen esplorazio, konkista eta kolonizazio bolada bizkorra, Amerikako lurralde populatuena (Ertamerikakoak eta Hego Amerikakoak) Gaztelako koroaren esku utzi zituenak, hura inperio bihurtuz; mugarriak, jakina den bezala, Antillak, Florida eta Hego Amerikako kostaldearen esplorazioa izan ziren (Kolon eta beste esploratzaile batzuen eskutik, XV. mendearen azken hamarkadan), Mexikoren konkista (Hernan Cortes, 1519-1521) eta Inken inperioarena (Francisco Pizarro, 1532), zeinei Magallanes-Elkanoren bidaia globala gehitu beharko baikenieke (1519-21) eta Filipinen kontrola (1565). Gainontzeko potentzia europarren esplorazio ahaleginek, nagusiki iparraldera bideratu zirenek (esaterako, Giovanni Cabotorenak, ingelesen eskutik, 1497an, edo Giovanni da Verrazzanorenak eta Jacques Cartierrenak, frantsesen eskutik, 1524ean eta 1534-36an, hurrenez hurren) ez zuten koloniakuntza-ahaleginik ekarri berehala; ziurrenik ez zutelako metal preziaturik topatu, ezta menderatzeko aproposak suertatzen ziren zentralizazio-maila altuko egitura politikoak ere, zona horretan, Ternua inguruan batez ere, arrantzarako esparru garrantzitsua eratu bazen ere, XVI. mendean euskal arrantzaleek menderatu zutena. Salbuespena Pedro Alvares Cabral portugaldarrarena izan zen, Brasil aldean (1500), jarraipena izan zuena eta Portugalek Amerikan eraiki zuen inperio txikiaren oinarriak ipini zituen (1494ko Tordesillasko itunean ezartzen zen gisan).

Koloniakuntza eta konkista horiek A.W. Crosby historialariak *elkartruke kolonbinoa* deitzen duena ekarri zuten, munduak ezagutu duen aldaketa handi eta erradikalenetako bat. Horren arabera, Europak Amerikari egin zion “ekarpenaren” barruan, lehenik eta behin Amerikako kontinenteak hartu zituen immigratzaileak kontutan hartu behar ditugu, gutxienez XX. mendearen erdialdera arte mantendu den korronte bati hasiera emanez; zer esanik ez, Aro Berrian etorkin horiek konkistatzaile eta kolonizatzaile modura joan ziren, hots, lurra eta gizakiak menderatzera. Beste europar “ekarpen” nagusia germen patogenoak izan ziren: Mundu Berria isolatuta egon zen, gutxienez Paleolitikoaren amaieratik, Mundu Zaharrak (Eurasiak eta Afrikak) bizi izan zituen bakterioen eta birusen konbinaketa, mutazio eta bilakaera sakonetatik aparte, eta gaixotasun horiek ekarri zituzten europarrak, kasu askotan, inmuneak ziren bitartean (gaixotasuna ez zen horren hilgarria haientzat, gehienetan), ez zen gauza bera gertatzen bertako indigenekin: hura izan zen, nagusigo teknologiko-militarraren gaineratik (harrizko armak suzko armen kontra, oro har), konkista horren erraza egin zuen faktore nagusia, eta indigenen populazioaren bat-bateko murrizketa ekarri zuena. Jaitsiera hori ez zen, ordea, giza espeziara mugatu, gauza bera gertatu baitzen

bertako animalia eta landare askorekin, Mundu Zaharretik ekarritako askok (zerri, behi, ardi, zaldiek...) desplazatu zituztelarik; fenomeno horri *inperialismo ekologikoa* deitzen dio Crosby, esanguratsuki.

Amerikak Europari egindako ekarpenak oso bestelakoak izan ziren. Lehenik eta behin, eta Afrikarekin batera, ordainketa-bitartekoez hornitu zuen Monarkia Hispanikoa (eta, haren bidez, Europa osoa), hots, urrez eta zilarrez, urte luzeetan zehar Amerikako esportazio-gai nagusi bihurtuko zirenak. Bestalde, nekazaritza-produktu tropikal berri batzuk eskaini ahal izan zizkion (tabakoa edo kakaoa bezalako elikagaiak, edo palobrasil bezalako tindagaiak), eta, orobat, Mundu Zaharretik ekarritako landare batzuen produktiorako gune egokiak (azukrea edo kafea bezalakoak). Eta, azkenik, europar nekazaritzan txertatu ziren landare batzuk, XVII. mendetik aurrera Europako baldintza ekologikoetara egokitzen joango zirenak, bertako nekazaritzaren garapenerako (eta produktibitatearen hazkunderako) estrategikoak suertatu zirenak: artoaz eta patataz ari gara batik bat, eta baita (lehen itxura batean) garrantzia gutxiagoko beste batzuez ere (tomatea edo babarruna bezala)². Gaixotasunen aldetik, ordea, Amerikaren ekarpena ez zitzaion ezta hurbildu ere Europak Amerikari egin zionari: sifilia litzateke susmagarri bakarra (Napolin egin zuen bere lehenengo agerpena, 1494ean, hiria setiatzen zuten tropa frantsesen artean), eta, hala ere, ikerlariak ez dira guztiz ados jartzen haren jatorri amerikarraren gainean.

Ematen du, edonola ere, Aro Berriaren hasieran Europa nagusitzen hasia zela, lehenasuna hartzen mundu mailan, Erdi Aroan batera argi ez zegoena. Egia da nagusigo hori nabarmenagoa zela Amerikari zegokionean, Afrika edo Asiarekiko baino, non konkista militar handiak ez baitziren XVIII. eta XIX. mendeetara arte iritsi: baina ordurako argi zegoen iniziatiba europarren esku zegoela, haiek izan baitziren Asiara itsasbide zuzenetik iritsi zirenak, eta ez alderantziz, txinatarrak edo indiarrak Europara. Bizpahiru mende lehenago, ordea, nekez egingo zuen inork egingo apustu Europaren alde. Zer oinarri izan zituen Erdi Aroko krisitik atera berria zen Europak, Asiaren mutur horrek, lehenasun hori garatzeko eta XX. mendearen hasierara arte mantentzeko?

Izan ere, Txina izango zen, apustu hipotetiko hori egitea posible izan balitz, hegemonia globalerako hautagairik ziurrena, edo behintzat apustulari gehienek aldeotasuna bilduko zuena: XV. mendean, ziurrenik, BPGa per capita neurtzeko gai izango bagina, mundu mailako herrialderik aberatsena zen, populazio dentsitate-maila trinkokoa, nekazaritza-sistema konplexu eta zahar batekin, produktibitate handikoa, eta baita teknologikoki aurreratuena ere: mendebaldeak Erdi Aroan zehar jaso eta egokitu zituen berrikuntza gehienak Txinan zuten lehen jatorria (besteak beste papera, inprenta, bolbora, estriboa, iparrorratza, esku-orga, portzelana...). Are gehiago, inperio bateratu bat osatzen zuen (gutxienez) XIII. mendetik (tradizioa lehenagotik bazetorkion ere), eta XV. mendearen hasieran mendebalderantz esplorazio itsas espedizio handiak antolatzen eta bidaltzen gai izan zen, Afrikako ekialdeko kostaldea arakatzera iritsi zirenak (Zheng He almirantearen bidaiak, 1405-1433); portugaldarrek edo gaztelauiek XV. mendean zehar bultzatutakoak baino dezente ontzi handiagoz eta ontzidi kopurutsuagoz osatuta zeuden, bide batez esanda.

Baina Txinak bazituen, Europaren aldean, bilakaera horri eusteko eragozpen batzuk, E.L. Jones edo J. Diamond bezalako ikerlariek aipatzen duten bezala, epe ertainean hegemonia globala lortzeko oztopo bihurtu zirenak. Alde batetik, printzipioz abantaila bat zirudiena, inperio bateratu zahar eta zabal bat izatea, desabantaila izan zitekeen, inguruan kompetentziarik edo areriorik ez izateak immobilismora eraman zezakeelako erraz; Europa,

² Kontuz: produktu horiek guztiak (artoa, patata, babarrunak, tomatea...) ez ziren Mundu Zahar eta Berriaren arteko merkataritza-gai izan, azukrea edo tabakoa bezala, baizik eta Europako eta, oro har, Mundu Zaharreko nekazaritzan txertatzen joan zirenak, askotan oso pixkanaka eta, hasieran, abereentzako bazka bezala (eta, ondoren, behartsuenen elikaduraren osagarri...): patataren zabalkuntza Europan, adibidez, XVIII. mendetik joan zen nabarmena egiten

ordea, estatu ugarietan zegoen banatuta, borrokan ari zirenak haien artean etengabe, eta, ondorioz, pizgarri bat zeukatenak hala teknologiaren garapena bultzatzeko (batez ere arlo militarrean, baina ez soilik) nola haien aberastasuna handi zezaketen ekintzak aurrera eramateko edo, gutxienez, ez oztopatzeko (merkatarienganako begirunea eta babes frogatuko lukeen bezala). Inperio zahar eta ahaltu bat izateak, bestalde, nagusigo-sentipen harroegi bat eman zien txinatarrei eta, batik bat, haien agintariei, eta XV. mendearen erdialdetik XIX. mendera arte kontra egin zieten etengabe kanpoko berrikuntzen ezarpenari (beranduegi izan zen arte, hots, Britainia Handiaren kontrako Opioaren Gerrak galdu zituzten arte). Txinak, 1433 ondoren, ez zuen bestelako espediziorik bidali mendebalderantz, errotik moztu zuen bilakaera horrekin, eta, izan ere, urruneko merkataritzarako joera oro baztertu zuen gobernuaren aginduz. Jared Diamondek idazten duen bezala, Europa ez bezala, eskualde osoa bateratuta zegoen, eta, ondorioz, “erabaki batek Txina osoan geldiarazi zituen ontzidiak. Denbora baterakoa zen erabaki hori atzerazina gertatu zen, zeren ez baitzen geratu ontziolarik denbora baterako erabaki horren burugabekeria frogatuko zuten itsasontziak egin eta beste ontziola batzuk berreraikitzekeo eredu izango zenik. Orain, konparatu Txinako gertakari horiek Europatik –politika aldetik zatikatua– esplorazio-ontzidiak itsasoratzen hasi zirenean gertatu zena. Kristobal Kolon italiarra zen jaiotzez, baina Frantziako Anjouko dukearekiko leiala izan zen lehendabizi, eta Portugalgo erregearekiko leiala gero. Azken horrek ezezkoa eman zion, mendebalderantz esplorazioak egiteko eskatu zizkionean, eta, orduan, Medina-Sidoniako dukearengana jo zuen. Hark ere ezezkoa eman zion, eta Medina-Celiko kondearengana jo zuen. Hark ere ezetz esan, eta, azkenean, Espainiako errege-erreginei egin zien eskaria. Haien lehenbiziko eskariari ezezkoa eman zioten, baina berriro eskatu zion, eta, orduan, baiezkoa eman zioten. Europa lehen hiru agintari horietako edozeinen agintepean baturik egon izan balitz, Amerikaren kolonizazioa hasi gabe egongo zen oraindik. Europa zatikaturik zegoelako, hain zuzen, lortu zuen Kolonek European zeuden ehunka printzeetatik bat gogatzea, bosgarren ahaleginean. Behin Espainiak Amerikaren kolonizazioari ekinez gero, Espainiara bideratzen ari zen aberastasuna ikusi zuten Europako beste estatu batzuek, eta beste seik ekin zioten Amerikaren kolonizatzeari. Istorio bera izan zen Europako kanoiekin, argiztapen elektrikoarekin, inprentarekin, su-arma txikiekin eta beste hainbat berrikuntzekin: horiek guztiak gutxietsi edo arbuiatu egin zituzten Europako leku batzuetan, arrazoi idiosinkrasikoengatik, baina, eskualde batean erabiltzen hasi zirenean, azkenean, Europa osoan zabaldu ziren”³.

Egile askok azpimarratu dute, esplorazio bidaien debeku horrekin batera, Txinan merkataritza-jarduerek jasotzen zuten gutxiespena eta, horrekin lotuta, bertako agintarien despotismoak jabego-eskubideei ipintzen zizkien mugak⁴, eta, ondorioz, metaketa kapitalista bat aurrera eramateko oztupoak, European ez zirenak horren handiak izango, hain zuzen ere estatuen arteko konpetentzia etengabe hura zela eta (ez dago inperiorik, ezta erromatarra ere, Europa estatu baten pean batzera iritsi denik, behintzat Europar Batasuna iritsi aurretik, inperio bateratu bat izatetik oso urrun dagoena bestalde). Geografikoki, gainera, hala kostaldeari nola barrualdeari begiratuta, Txina homogeneoagoa da, eta garraio-komunikaziorako zailtasun gutxiago aurkezten ditu Europak baino, zatikatuagoa dagoena fisikoki eta, ondorioz, elkarren artean independenteak izan zitezkeen espazioak sortzeko

³ J. Diamond, *Su-armak, germenak eta altzairua*, Bilbo 2010.

⁴ Antzeko argudioak erabili dira mundu musulmanaren eta, horren barruan, Inperio Otomanoaren atzerakuntza eta bazterketa gero eta handiagoa azaltzeko, batez ere XVII. mendetik aurrera (eskualde horrek Europa eta Asia arteko bere merkataritzarako bitartekaritza protagonismoa galdu zuenean), nahiz eta, zer esanik ez, azalpena askoz ere konplexuagoa izan behar den. Dena dela, badaude egileak, Pomeranz bezala, zalantzan ipintzen dutena ekialdeko “despotismoen” inguruko ikuspegi zurrunezi hau, eta ez dutenak horrenbesteko alde ikusten jabego eskubideek etab. European eta Txinan zeukaten “babesaren” artean; Pomeranz-entzat, esaterako, elementu erabakigarria Amerikaren kolonizazioa eta bertako baliabideen kontrola izan zen, europarren aldetik...

gaitasun handiagoa duena (baina baita osagarritasun ekonomikoak eta espezializazioak garatzeko ere, kontsumoko produktu merkeen *nazioarteko* urruneko merkataritzaren bultzadak frogatuko lukeen bezala, gogoratu 1. gaian esandakoa). Ezaugarri geografikoekin harremanatuta ere, hondamendi naturalen eragina egongo litzateke (uholdeak, lurrikarak, etab.): Europa haietatik libre egon ez bada ere (batez ere giza kapitalaren bat-bateko suntsiketetatik), egia dirudi, garai historikoetan bederen, haien eragin puntuala txikiagoa eta tokikoagoa izan dela kapital fisikoari dagokionean, munduko beste eskualde batzuetan, eta batik bat oso dentsoki populatuta zeudenetan (India, Txina edo Asiako hego-ekialdea bezala), larriagoa izan den bitartean, berreraikuntza-ahalegin handietara behartuz zenbait alditan, eta garapen ekonomiko jarraiturako oztopo bilakatuz, ondorioz; Europa ere ekialdeko estepetako herrien inbasio suntsitzaileetatik urrunxeago egongo zen (Hungariako lautadetaraino iritsi ziren, askoz jota), Txinak, Asiako hegoaldeak eta ekialde hurbilak halakoak modu bortitzagoan eta gehiagotan jasan behar izan zituzten bitartean. Bestalde, badago esaten duenik portaera demografikoetan dibergentzia bat gertatzen ari zela, Europa garatzen joan zelako, pixkanaka eta eskualde batzuetan batik bat, presio baxuagoko eredu demografiko bat (ezkontza adina atzeratuz lortzen zena), eta katastrofe demografikoak ekiditen ez zituen arren, leuntzen zituena (ikus beheerago, “balazta positibo” eta “prebentibo” buruz dioguna), Asiako ekialdeko ereduak, ezkontza adina baxuagokoa (eta, ondorioz, joritasun handiagokoa), krisi demografiko errepikakor eta gogorragoetara eramango zuen bitartean (baina, aldi berean, dentsitate handiagoa ekartzen zituenez, eredu demografiko horrek berme ona eskaini zezakeen katastrofe naturalek eragindako kapital fisikoaren suntsipenen ondoriozko berreraikuntza-aroetan, lan-esku ugari mobilizatu zitekeen neurrian...).

Ikuspuntu horietako asko, E.J. Jonesek *Europar miraria* liburu klasikoan laburbildu zituenak, zalantzan jarri izan dira azkenaldi honetan, batez ere K. Pomeranz bezalako sinologoek aldetik, argudiatuz 1750 bezalako urte berantiar batean Txina ez zegoela Europako mendebaldeko herrialdeak baino askoz ere atzeratuagoa, ekonomikoki, eta luraren produktibitatearen edo jabego eskubideen inguruko desberdintasunak ez zirela horren handiak. Eta diferentzia ezarri zuena, Europaren alde, Amerikaren aurkikundea eta kolonizazioa izan zela, hain zuzen ere, zeina aurrera eramateko Europa hobeto kokatua baitzegoen geografikoki: Amerika aberastasun iturri inportantea izateaz gain (europar ekonomia mobilizatzeko balio izan zuena), soberakin demografikoentzako irtenbidea izango zen, produktibitate handiko landare eta elikagaien iturburu, lur “libre” asko zituen oinarritzko produktuen produkzioarako (kotoia, adibidez), eta egur iturri inportante bat, Europako deforestazioa (eta, ondorioz, desoreka ekologikoak) konpentsatzeko balio izan zuena; harriatzaren erabilera XVII. mendetik, ildo horretan, garrantzitsua izango zen luraren gaineko europarren presioa murrizteko (bigarren sektorearen garapen handiago bat bultzatzeko erabakigarria izango zena). Dena dela, *dibergentzia handiaren* inguruko eztabaidak irekita jarraitzen du (are gehiago kontuan hartzen badugu Txina eta mendebaldearen arteko aldea bizkor murrizten ari dela), eta ekonomi historiaren gai bizi eta interesgarrietako bat da.

2.2. Demografia eta nekazaritza-arloa.-

Feudalismo klasikoan bezala, eta Kriedtek gorago aipatzen zuenaren arabera, feudalismo garatuko ekonomiak eta gizarteak nagusiki landatarrak izaten jarraitu zuten: hiritartze-prozesuaren aurrerakadak ezin du inolaz ere ezkutatu Antzinako Erregimenaren ezaugarri nagusi hori. Eta, alde horretatik, Europako sistema demografiko tradizionalaren ezaugarriak ez ziren asko urruntzen Erdi Aroan sumatu ditugun pautak eta joeretatik, haiei buruz xehetasun gehiago dugun arren, parrokiatako bataio, ezkontza eta heriotza-liburuek eskaintzen diguten informazio zehatzagoari esker batik bat: gogoan hartu Trentoko Kontziliotik aurrera (1545-1563) orokortu egiten zela erregistro hauek zehaztasunez eramateko erabakia, eta gauza bera

gertatu zela, garai bertsuan, mundu protestantean ere; estatuak aurrera eramaten zituen populazio kontaketa, gehienetan helburu fiskalekin, geroz eta zehatzagoak joan ziren bihurtzen, bestalde, eta lehenengo zentsuak edo erroldak, egungo ikuspegi estatistikoaren araberrakoak alegia, XVIII. mendean hasi ziren jasotzen Europako zenbait erresumatan.

Laburbilduz, lehendik ere ondo ezagutzen ditugun ezaugarriak izan ziren garai honetako egitura demografikoan adierazgarri. Alde batetik, nekazari-populazioaren nagusigoa, familia nuklearraren inguruan antolatua (salbuespenak albuespen) eta nekazaritza arloaren koiunturaren gorabehera, nola ez, oso lotua. Populazio landatar horren jaiotza eta ugalkortasun tasak oso altuak ziren (%35-45 bitartekoak), gaur egungo gizarte (gain)garatuenekin konparatuta alegia, eta berdin gertatzen zen hilkortasun tasekin: haien batz bestekoa, urte “normaletan”, hots, katastrofe berezien agerpenik ez bazegoen, %30 ingurukoa izan ohi zen (egun, gure artean, %10aren inguruan ibili daiteke); haur-hilkortasunaren zama oso handia zen hilkortasun orokorraren barruan: lehenengo urteko hilkortasun tasa %150-250 bitartean egon ohi zen (hots, leku batzuetan jaiotakoan laurden batek ez zuen urtea betetzen), eta kalkulatu da gutxi gora-behera jaiotakoan erdiek ez zituztela hamar edo hamabost urteak betetzen. Horrek populazioaren hazkunde natural nahiko mantso batera eramaten zuen, ondorio bezala, are gehiago apurto eta, epe luzera, mantsotzen zutena ez-ohiko hilkortasunaren erasoek (goseteek, gaixotasun epidemikoek edota gerrek eragindakoak, hots, giza kontrolatik at zeudenak oro har): krisi urteetan heriotza tasa %200era igo zitekeen erraz, eta zona mugatuagoetan %300-400era arte igo zitekeen.

Dena dela, gizarteak bazeukan nolabaiteko kontrola joritasunaren gain, are bitarteko antisorgailuak horren eraginkortasun gutxikoak ziren garai batean, eta horiek bi ziren batez ere (beti ere kontuan hartuta ezkontzatik kanpoko ugalkortasuna oso mugatua zela: apenas iritsiko zen jaiotako guztien %5era): ezkongabetasuna, populazio talde zabalak “ezkontza merkatutik” at utziz (erlijiosoak, hirietako zerbitzari asko, bigarren semeak...), eta ezkontza-adina, hots, Malthusek populazio hazkundearen “balazta prebentibo” gisa izendatzen zutenak, heriotza katastrofikoak eragindako “balazta positibo” delakoetatik bereizteko; hala, ezkontza-adina nahikoa altua izaten zen Europan (emakumeen ezkontza-adinen batz besteko nazional gehienak 24,5 eta 26,5 urteren artean dabilta Aro Berrirako), eta, eskualde batzuetan, lurren okupazioak muga batera heltzean igotzeko joera handia izaten zuen, jaiotza-tasak jaitsi arazten zuena. Joera horrek, bestalde, populazioaren susperdurarako mekanismoa eskaintzen zuen populazioa tupustean jaisten zenerako, krisi garaia eta gero alegia: ezkontza-adina jaitsi egin ohi zen eta ezkonduen proportzioa handitu egiten zen, familia berriak edo berregituratuak ezartzeko lur-sail huts gehiago sortzen zen heinean.

Landa aldeko biztanleria nahiko iraunkorra zela pentsatu ohi da, hots, ez zela gehiegi mugitzen geografikoki edo, beste era batean esanda, gutxi migratzen zuela. Hori hala izan zitekeen nekazaritza aberatseko zona batzuetan, baina are horietan ere lur sailik aurkitzen ez zuen jendea sorrarazi zezakeen populazioaren hazkundeak, eta soberakin demografiko horrek emigrazioaren bidea hautatzen zuen maiz: hirietara, adibidez, edo beste eskualde batzuetara (askotan sasoko emigrazioa izan zitekeen, jornalari galiziarrena edo hargin euskaldunena bezala), eta batzuetan are urrunagora ere (Amerika emigrazio transozeaniko baten helmuga bihurtzen hasi zen, nahiz eta ezin dugun inolaz ere konparatu XIX. mendean gertatu zenarekin, noski); edonola ere, mugimendu hauei buruzko informazioa urriagoa da, bataioena edo heriotzei buruzkoa baino. Izan ere, eskualde batzuetan superpopulazio erlatiboa muga zezakeen beste balazta mota bat migrazio-mugimenduek osa zezaketen, batez ere lurralde (nekazaritza) pobre, menditsu eta gainpopulatuetatik abiatzen zirenak (Eskozia, Suitza, Bavaria, Euskal Herria bera...): hangoak izan ohi ziren europar armadak osatu zituzten soldadu profesional dezente, adibidez.

Esan bezala, landa aldeko populazio gaineratiko horren zati inportante bat hirietara zuzentzen zen: gizezkoak, industria hiritarrean aritzeko (ikaslari gisa hasieran) edo hirietan sortzen ziren bestelako lan-aukerez profitatzeko, eta emakumeek lana ehungintzan edo zerbitzu domestikoan aurkitzeko. Izan ere, Aro Berrian zehar hiritartze prozesua bizkortu zen

(are XVII.a bezalako mende ez horren espantsiboan). Espezialista askok adierazi bezala, nekazaritza-arlotik hirira zuzentzen zen jende gaztearen jario jarraitu hura beharrezkoa zen hiritartzeko, hirien hazkunde naturala, berez, negatiboa zela frogatu delako, bertako higie eta jende-pilatze baldintzak zirela eta; epidemiek ere eragin handiagoa zeukaten hirietan, ingurune landatarretan baino, baina baita bertako biztanleen portzentaje nabarmenek ere ezkontza egiteko –eta, ondorioz, ugaltzeko– arazo eta muga handiak zituztelako (neskameek, ikaslariek...). A. Sharlinek adierazitakoaren arabera, gainera, hirietako biztanleria bitan banatu beharko litzateke, zehatzagoak izateko: alde batetik, aspaldiko populazio hiritarra (orokorrean aberatsagoa, hiriko gaixotasunekiko zailduagoa, eta ezkontzeko muga gutxiago zituena), eta, bestetik, etorri berriak, horiek bai ahulagoak familia iraunkorrak osatzeko orduan.

Portaera demografiko bereziko beste gune batzuk protoindustrializazio-zonak izan ziren (beherago aztertuko ditugunak), zeinak, landan egon arren, hiriek bezala nekazaritza-arloaren muga eta gora-beherekiko lotura tradizional estuekin hausten baitute, hein batetan behintzat. Etxeko artisautza eskuarki praktikatzen zen zona horietan ikusi da, kasu batzuetan bederen, ezkontza adinak jaisteko joera izaten zuela (inguruko nekazaritza soileko inguruneekin konparatuta alegia), bertako joritasun-mailak altuagoak bihurtuz: zona horiek pobregokoak izango ziren nekazaritzaren ikuspuntutik, eta horrek bultzatuko zituen, besteak beste, bertako biztanleak jarduera osagarriak aurkitzera eskulangintza arlora (hainbeste ezen batzuetan eskulangintza jarduera domestiko hori, jadanik ez zena autokontsumora bideratzen, merkatura baizik, nagusi bihurtzen baitzen); nekazari-artisau horiek, lur-sail bat oinordetzan hartzeko premiatik aske, lehenago osa zezaketen familiak, gazteago ezkontzen ziren, alegia, azalduko lukeena zergatik jaiotza-tasa handiagoa izan zitekeen eskualde protoindustrial horietan. Halere, zona batzuetarako froga sendoak dauden arren, demografo batzuek zalantzak dituzte eredu horren funtzionamendu orokorraz.

Eskema horrek zer ondorio ekarri zituen, Aro Berrian zehar, Europako populazioaren hazkundeari dagokionean? Oro har, esan daiteke XVI.-XVII. mendeek osatzen duten etapa hazkunde apalekoa izan zela, eskualdekako diferentzia askorekin eta Europako populazioaren pisuaren birbanaketa batekin: ipar mendebaldea joan zen bihurtzen, bi mende horien hondarrean, populazio-kopuru eta dentsitate handienak zituen zona, XVI. mendearen hasieran Mediterraneoko ardatza populatuagoa zegoen bitartean.

Edonola ere, XVI. mendeko hazkunde demografikoa handiagoa izan zen, XVII.ekoa baino, motelagoa izan zena. Hazkunde hori, eskualde batzuetan, XV. mendearen erdialdetik gertatzen ari zen eta, edonola ere, XV. mendeko populazioaren berreskurapenean zeuzkan sustraiak, hots, XIV. mendeko galera handien berreskuratze-prozesu luzean; populazio hazkundearekin batera, bestalde, hiritartzearen aurrerakada nabarmen bat gertatu zen XVI. mendean. Hazkunde hori, ordea, moteltzen hasi zen mendearen azkeneko hamarkadetan: eskualde ezberdinetarako unea berbera ez den arren, esan daiteke joera demografikoen norabide aldaketa 1580-1620 bitartean gauzatu zela, eta demografia-krisialdi baten zantzu asko aurkezten dituela XVII. mendeak.

Izan ere, XVII. mendea orokorrean, geldialdikoa dela esan genezake, batez ere bere lehenengo erdialdea; sistemak berriz ere hazteko oztupoekin egin zuen topo: guden eta gizarte gatazken areagotzea, izurriak, muga malthustarrek eragindako urritasunak eta goseteak; horrek guztiak hilkortasun tasa gora bultzatuko zuen, katastrofiko batez ere, eta jaiotzak murriztuko zituen, galga prebentiboen eraginez: ezkontza adinak eta ezkongabetasunak gora egingo zuten XVI. mendearen amaiera eta XVII.aren hasiera artean. Baina, XIV. mendeko hausturarekin konparatuta, beheraldia leku batzuetan besteetan baino sakonagoa izan zela esan dezakegu. Hala, Europa mediterraneotarrak eta Erteuropak, geroago azalduko dugun bezala, krisi demografiko sakonagoa jasan zuten (Erteuropan, batik bat Alemanian, ez da ahaztu behar 1618-1648 bitarteko Hogeita Hamar Urteko gerrak izan zuen eragin negatibo handia); beheraldiaren eraginak ez ziren izan horren katastrofikoak beste zona batzuetan (esaterako, Herbehereak, Ingalaterra, Frantzia edo Errusian...): izan ere, Europak ez zuen, XVII. mende amaierarako, populaziorik galdu, hazkunde oso apala izan zen arren. Fenomeno hori

azaltzeko, itsasoz haraindiko lehenengo emigrazioek bete izan zezaketen rol orekatzailea azpimarratu dute E. Fernández de Pinedo bezalako egileek, eta, jakina, Europako ipar mendebaldean gauzatzen ari ziren nekazaritza-produkzioako aldaketak, izurri epidemien indarraren galera erlatiboarekin batera. Gainera, hiritartze prozesuak jarraitu zuen XVII. mendean, orokorki (nekazaritza-krisia sakonagoa izan zen eskualdeetan mantsotu zen arren, Mediterraneo aldean alegia). Baina aldaketa batzuk gertatzen ari ziren hiritartze prozesu horretan: XVI. mendean hiri-sistema *polinuklear* bat zegoela esan daitekeen arren (zaila da esatea zein hirik okupatzen zuen balizko hierarkia ekonomikoaren burua XVI. mendean: Veneziak? Anberesek? Genoak...?), XVII. ean, geroz eta gehiago, hiri sistema *hierarkizatua* izango genuke, buruan egongo litzatekeen hiri batekin; XVII. mendean Amsterdam izan zen, ezbairik gabe: kapitalismoaren joera bat, XVI. mendean oraindik indarrean ez zegoena, baina XVII.etik aurrera sakondu besterik ez dena egin. Horrek adieraziko luke, historialari batzuen arabera, merkataritzaren bultzadaren garrantzia gero eta handiagoa zela, eta hori Atlantiko aldeko kostaldean gauzatzen ari zela hain zuzen ere (beherago ikusiko dugun bezala), eta, bestetik, hiriburuen eta administrazio-guneen garrantzia hazten ari zela, estatu absolutuaren administralgoaren inguruan alegia.

XVII. mendeko beheraldiaren edo geldialdiaren ondoren (eskualdearen arabera), hazkunde demografikoa hasi egin zen berriro ere, kasu batzuetan indar handiaz. Hazkunde hori, soilik XVIII. mendekoa hartzen badugu kontuan, ez zen izan aurreko mendeetako baino askoz ere nabarmenagoa (adibidez, XVI.ekoarekin konparatuz gero), eta, izan ere, Argien Mendearen amaieran muga malthustarrak berragertzen hasi ziren zenbait lekutan: garestialdiak, uzta txarrak, gosea... Baina XVIII. mendeak badu berezitasun bat Europa tradizionalaren historia demografikoan: haren ostean Europako populazioak ez zuen, oro har, krisi orokorrik ezagutu, salbuespen batzuk alde batera utzita (adibidez, 1845-49ko Irlandako Gosete Handia), eta horrek erregimen demografiko berri baten hasiera ekarri zuen; beste era batean esanda, leku batzuetan trantsizio demografikoa XVIII. mendearen amaiera aldera hasi zela, alegia. Bestalde, XVII. mendeko krisi demografikoak utzitako hutsuneen ondoren, jaiotza-tasa igo egin zela dirudi, bataio-liburuek aditzera ematen duten bezala: jendea lehenago eta gehiago ezkondu zen, eta horrek jaiotza-tasa gora bultzatuko zuen, XVIII. mendearen lehenengo erdialdean edo lehenengo bi herenetan, behintzat, hazkunde demografikoa eraginez.

Bestalde, badirudi, Europako zenbait zonatan behintzat, hilkortasun krisialdien eragina gutxitu egin zela, eta haurtzaro-hilkortasuna pixka bat apaldu zela. Halere, beheraldi horren jatorria esplikatzea zaila da. McKeown bezalako egile batzuentzat, elikadura mailen hobekuntzaren poderioz gertatuko zerbait izango zen. Zaila da, ordea, hala izan zenik ziurtatzea, nekazaritza-produktibitate mailek bakarrik gune konkretu batzuetan egin baitzuten gora, Nekazaritza Iraultza mantsoa aurrera eramaten ari ziren Europa ipar-mendebaldekoetan alegia, eta besteetan nekez aurkitzen delako nekazaritza etekinen (errendimenduen) aurrerakada handirik. Hala ere, kontuan hartu behar da European landare-espezie berri batzuk ezartzen hasi zirela XVII. eta batez ere XVIII. mendeetan zehar, artoa eta patata alegia, produktibitate handikoak zirenak eta urtean zeharreko elikadura-hornikuntza hobetu zutenak. Bestalde, garraio arloan aldaketa iraultzailerik gertatu ez bazen ere, monarkia ilustratuek bultzatutako errepide eta ubideen eraikuntza-politikek populazioaren hornikuntza hobetzeko balio izan zutela pentsa daiteke; trukeen hazkundeak, oro har, hori adieraziko liguke. Horren guztiaren ondorioz, beraz, gosete handi eta zabalduak desagertuz joan zirela dirudi, nahiz eta ez guztiz (Españian bertan, Irlandan, Ekialdeko herrialdeetan gertaera ohikoak izan ziren oraindik XIX. mendean); egile batzuk formulatzen duten bezala, kontua da XVIII. mendean ez zela agian aurreko mendeetan baino askoz ere gehiago jango, baina badirudi maizago jango zela, oro har.

Badago, horrekin lotuta, eta aurreko garaietan bezala, XVIII.eko populazio-hazkundeak klima-aldaketekin lotzen duenik: XVII. mendearekin konparatuta (“Izotzeko Garai Txikia”) XVIII. mendeko klima epelagoa bihurtu zen eta, ondorioz, uzta txarrak eta klimak eragindako

hondamendiak ez ziren horren sakonak eta ohikoak izango; berez, europar ekonomiarekin lotura gutxi zeukan Txinako populazioak ere mende horretan hazkunde nabarmena ezagutu zuela dirudi.

Beste egile batzuek, ordea, hilkortasun epidemikoaren eraginaren jaitsiera eta medikuntza arloan emandako aurrerapenak aipatzen dituzte hilkortasunaren atzerakada erlatiboaren iturri nagusi gisa; izan ere, izurri bubonikoaren azken agerpena Mendebaldeko Europan XVIII. mendearen hasieran kokatzen da, 1720ko Marseillako izurria hain zuzen ere. Azalpen posibleen artean demografo historikoez aipatu dute europar populazioak, XIV. mendetik gaixotasunarekin kontaktuan egon ondoren, immunizazio-prozesu bat jasaten joango zela, biziraun zuten belaunaldiak erresistenteagoak bihurtuko zirela baziloaren erasoaren aurrean. Bestalde, badago monarkia absolutistek hartutako neurri prebentiboen eragin-kortasuna aipatzen duenik: izurri beltzak kutsatutako hiriak eta eskualdeak isolatzeko ezarritako osasun-lerroen [*cordones sanitarios, cordons sanitaires*] efikazia gero eta handiagoa egingo zen denborarekin, Marseillako kasua berak frogatuko zuen bezala. Azkenik, badago epidemiaren bektore gisa aritzen zen arratoi espeziean gertatutako atzerakadari egozten dionik izurritearen desagertzea (*Rattus norvegicus* delakoak, hots, arratoi marroiak, lehenago zona hotzetan ohikoagoa bide zen *Rattus rattus* edo arratoi beltza ordezkatu zuen heinean), nahiz eta hori ez dagoen frogatuta.

Edonola ere, izurria “ordezkatza” beste gaixotasun epidemiko batzuk etorri ziren: baztanga (nahikoa ezaguna ordurako), kolera, tuberkulosia, sukar horia, difteria... Ez dirudi, beraz, medikuntza aurrerapenek asko egin zutenik, nahiz eta XVIII. mendean medikuntza katedra dezente eratu, medikuntza liburuen produkzioa ugaltu eta sendagintzan interesaturiko elkarteak sortu. Izan ere, gaixotasun horien kontrako lehenengo erremedio arrakastatsuek (txertoak, antibiotikoak, sulfamidak) ez ziren garatuko XIX. eta, batez ere, XX. mendeetara arte; salbuespena, jakina den bezala, baztangaren kasua da, Edward Jenner ingelesak deskubritutako txertoa dela medio: baina txerto hori 1798tik baizik ez zen zabaltzen hasi, hots, nahikoa berandu, eta, izan ere, baztanga ez da guztiz desagertutzat jo 1978ra arte. Higiene arloan ez dirudi aurrerapen handiak egin zirenik XVIII. mendean, oro har, hiri handietako estolderiaren erreforma sakon gehienak ez zirelako XIX. mendera arte hasi; kanposantuak elizetatik eta, ondorioz, hiriguneetatik urruntzeko ohitura mende honetan hasten den arren, bestalde, eragin mugatu bat baizik ez zuen izango.

Badago, bestalde, XVIII. mendeko hilkortasun katastrofikoaren jaitsiera guden eragin txikiagoarekin lotzen duenik, populazio zibilaren gaineko kalteei dagokionean alegia (teknologia militarra, oro har, suntsitzaileagoa egin zelako mende honetan zehar), baina ez guda gutxiago egon zelako, baizik eta armadetan mende honetan gertatzen ari ziren antolakuntza arloko aldaketek populazio zibilaren gaineko ondorio negatiboak mugatu zituztelako baizik (adibidez, kanpalekuak eta gotorlekuak hirietatik kanpo ezartzen hasi ziren, zakuratzak eta istiluak mugatuko zituen zerbait, eta higienikoagoa gertatzen zena, oro har).

Badirudi, beraz, XVI. mendean nekazaritza-hazkunde orokor bat gertatu zela, eskaeraren hazkundeak eragindako Prezioen Iraultzak frogatuko lukeen bezala. XVII. mendean, ordea, demografi krisialdiarekin lotuta, geldialdi edo beheraldi bat gertatuko zen, produkzioaren beherakada ekarri zuena, leku guztietan hori gertatu ez zen arren, ezta aldi berean ere: badirudi mediterranean lurraldeetan goizago hasi zela krisia (XVI. mendearen bukaeran) eta Pirinioetatik eta Alpeetatik iparraldera geroago, 1620-30 inguru; berreskurapena, gainera, mantsoagoa izan zen Europaren hegoaldean.

Nekazaritza-produkzioaren gorabeherak aztertzeke unean kontuan hartu behar dugu, alde batetik, oso lotuta daudela populazioarekin, maila teknikoarekin eta gizarte antolakuntzarekin; ezaugarri horiek elkar lotzen dira nekazaritza-produkzioaren gorabeherekin. Populazioa haztean, XVI. mendean gertatuko zen bezala, lur gehiago erabili beharko zen jendea mantentzeko, hots, hazkunde hedakor edo estentsibo bat gertatu behar izan zen; aldaketa teknikorik gabeko hazkunde horrek, lur eskasagoak barneratzean,

beheranzko etekinak agerraraziko zituen, nekazaritza-produkzio *per capitaren* bilakaera negatiboa izango zen eta uzta txarrak ugalduko ziren; kontuan hartu behar da luraren okupazioa handiagoa zela XIV. mendean baino, hots, dentsitateak handiagoak izango zirela eta eskualde gehiago egongo zirela “beteta”, lur marginal edo bigarren mailako gehiago bihurtu ziren labore-lur, eta, ondorioz, arazo mota horren pilaketa gertatuko zela eta hornigaiaren krisien agertzea, hilkortasun katastrofikoak haziz beraz. Hori izango litzateke Europako eskualde gehientsuenek jasan zuten bilakaera XVI. mendearen bigarren erdialdean zehar eta batez ere amaieran, XVII. mendeko krisialdiaren azalpenaren muinean egongo litzatekeena.

Bestaldetik, leku batzuetan, antza denez, handitzen ari zen populazioaren presioak aldaketa kualitatiboak ekarri zituen nekazaritza-arloran, batez ere XVII. mendetik aurrera, mantso-mantso zabaltzen joan ziren arren. Beste era batean esateko, teknika intentsiboagoen saiakera eta erabilpen geroz eta zabalagoa gauzatzen joan zela, produktibitatearen igoera bat ekarriz alegia. Hori gertatu bide zen, adibidez, oso dentsoki populatuta zeuden zenbait hiriren inguruko nekazaritza-eremuetan, eta, batik bat, Europako ipar mendebaldeko ardatzean.

Azkenik, ezin ditugu produkzio harremanak ahaztu, hau da, laborari-familiak lurraz zuzenean esplotatuz lortzen zuen produkzioaren soberakina nola xurgatzen zitzaion. Esan daiteke klase feudalarrekin batera (noble eta eliztarrekin, alegia) soberakinaren ateraketan geroz eta parte hartze handiagoa lortu zutela garai honetan, alde batetik, Estatuak (fiskoaren bidez) eta, bestetik, burgesiak (kredituaren bidez; merkataritza-burgesiaren zenbait familiari buruz ari gara batez ere, beren kapitalen zati nabarmenak lurraz erosteko erabili zituztenak eta nekazariari mailegu hipotekarioak egiteko, kitatu ezean lurren galera ekar ziezaikeen zerbait...). Baina hala ere produkzio modu feudalak nagusi izaten jarraitu zuen Europan: lurra lantzen zutenen gaineko ateraketa feudalen zati handi bati eutsi zitzaion (lurraren errentaren bitartez, eta jatorri eta mota desberdinetako jaurgio-eskubideen bitartez), kasu batzuetan morrontza eta korbeak berrezarri ziren (Europako ekialdeko zona askotan gertatu zen bezala), nekazarien erkidegoen eskubide kolektiboek sendoak izaten jarraitu zuten, eta lurra (eta lan denbora), orokorrean, ez ziren libreki eros edo sal zitezkeen ondasunak.

Izan ere, nekazari familiaren eta erkidegoaren helburua, orokorki, Erdi Aroan bezala, buruaskitasuna zen, ahal zuen guztia etxean produzitzea eta kontsumitzea alegia. Zerealek oinarritzko produkzioa izaten jarraitu zuten; etxe ondoan baratza izatea oso zabaldua zegoen; nekazari familiaren aberastasunaren arabera, abere kopuru handiagoak edo txikiagoak mantenduko ziren, horien artean bereziki garrantzitsuak tirabereak, ongarrri-iturri ere izan zitezkeenak; herri-lurretan, bestalde, egurra, egur-ikatz, belarra, garoa, animalientzako bazka, ehiza edo arrantza bezalako osagarri ekonomikoak aurkitzen zituen nekazariak. Ezaugarri orokor horiek alde batera utzita, noski, eskualdekako desberdintasun nabarmenak zeudela aipatu beharra dago, esaterako zona menditsuetako nekazaritzaren, mediterraniar nekazaritzaren, Europako erdigune atlantikoaren eta Ekialdekoaren artean bereziki.

Esan bezala, eta nahiz eta buruaskitasuna izan nekazari erkidegoen helburu orokorrenetako bat, aipatu beharra dago, eskualde batzuetan espezializazio prozesuak geroz eta inportanteagoak izan zirela, Erdi Arotik zetorren joerari jarraiki: esaterako, mahats eta ardo produkzioan (Frantziako zenbait eskualde, Borgoina edo Bordele bezala; Arabar Errioxa Euskal Herrian), zerealen produkzioan (Polonia edo Ekialdeko Alemaniako zona batzuk), landare industrialetan (lihoa, urre-belarra bezalako tindagaiak, eta abar, Herbeheretako zenbait hiriren inguruan gertatzen zen bezala)... Horrek esan nahi du zona horietan ez zela jada autokontsumorako produzitzen, merkataritzarako baizik, eta horrek nekazaritzaren komertzializazio handiago baterako joera sakontzen ari zela esan nahiko luke. Gauza bera esan dezakegu “etxeko industria” (edo “industria domestikoa”) oso garrantzitsua bihurtu zen nekazaritza-zonen kasuari buruz, *eskualde protoindustrialak* deitu ohi direnak: horietan espezializazioa bigarren arloko jardueretan gertatu zen, ordea, nekazaritza-lanekin konbinatzen ziren arren.

XVII.-XVIII. mendetarik aurrera batez ere, gainera, Ameriketarik ekarritako landare mota berriak egokitzen eta lantzen hasi ziren European, artoa eta patata bereziki, zereal tradizional batzuek baino etekin handiagoak zituztenak eta aurrerapen nabarmena ekarri zutenak hazkunde hedakorrek menperatzen zuen panorama horretan: jendetza handiagoak elikatzea posible egingo zuten, eta uzten banaketa hobe bat urtarotan zehar.

Hortaz, orokorrean aurkitzen dugu hazkunde tradizional bat, estentsioan oinarrituta, hazkunde demografikoarekin batera beheranzko etekinak ekartzen zituenena, baina zeinetan aldaketa mantsoak, txikiak ematen ari baitziren. Ezin ditugu horiek, agian Britainia Handiko eta Kontinenteko zona mugatu batzuen kasuak alde batera utzita, Nekazaritza Iraultzat hartu, XVIII. menderen hasieran behintzat. Baina egia dena zera da: European jende gehiago bizi zela XVIII. mendearen bukaera aldean XVI. mendearen hasieran baino, eta jende hori guztia elikatzeko gehiago produzitu behar izan zela.

XVIII. mendean, beraz, hazkundera nagusi izango litzateke, eta leku batzuetan gainera modu ia iraultzailean; beste batzuetan, ordea, apalagoa izan zen, esaterako Frantziako eta Penintsulako barne aldeetan.

Izan ere, nekazaritza-etekinaren eboluzioa oso ezberdina izan zen Aro Berrian zehar zona ezberdinetan, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Etekinak

(ereindako hazi bakoitzeko aleen emaitza)

	Ipar mendebalde	Mediterraneo	Erdialdea	Ekialdea
1550	1/7,3	1/6,7	1/4,4	1/4,3
1650	1/9,3	1/6,2	1/4,1	1/3,8
1750	1/10,1	1/7	1/5,1	1/4,7
hazkundera (%)	72,2	4,4	15,9	9,3

Europako ipar mendebaldeak jasan zuen produktibitatearen hazkunderik nabarmena, beste esparruetako aurrerakadak oso apalak izan ziren bitartean. Horrek gutxienez esan nahi du zona horietako berezitasun batzuei buruz aritzea komenigarria izan daitekeela.

Hala, Mediterraneo aldean (Italia, Iberiar Penintsularen zatirik handiena, Frantziako hegoalde-erdialdea) zoru eta klima berezitasunak nahikoa antzekoak ziren (lehortea udaran, zoru finak eta ez oso sakonak, golde erromatarraren erabilpena, txandakatzeko sistema sinpleak –biurtekoak edo “herenekoak”–, etekin ez oso altuak); hala ere, desberdintasunak ere handiak izan zitezkeen: Piemonteko labore-lur intentsiboak eta Siziliako latifundioak oso ezberdinak ziren, Gaztelako meseta eta Valentziako baratza bezainbeste. Salbuespenak zeuden arren, ustiategi txikietan aritzen zen maiztergoa zen lurra esplotatzeko modurik erabiliena; errentaren bide horretatik eta eskubide juridikzionalak zirela medio (zergak, hamarrenak...) lurraren jabe feudalek soberakinaren zatirik handiena jasotzen zuten. Bazeuden oso espezializatutako eskualde batzuk, batez ere hiri handi batzuen inguruan (Iparraldeko Italian adibidez), baratz ekonomia inportantea zen eskualdeak (Valentzia bezala), abeltzaintzara emanagoak (gogoan hartu Gaztelako Mestaren kasua⁵) eta mahastzaintza-ardogintza zona tradizionalak eta berriak (Borgoina, Bordele, Charente, Errioxa, Malaga, Kanariar uharteak...), baina lurraren gehiengo zerealen ekoizpena bideratzen zen eta oso tradizionala zen, hazkunde estentsibo edo hedakorra praktikatzeko zuena, herri eskubide oso indartsuekin eta abeltzaintza tradizionalarekin (hedakorra hura ere). Aro Berrirako hura “mundu bete” bat zen,

⁵ Mesta artalde ibiltari edo transhumantez arduratzen zen erakundera zen, Erdi Aroan fundatua eta Gaztelako Koroaren babespean zegoena. Behe Erdi Arotik dezente hazi zen, eta, izan ere, Aro Berrian artilea Gaztelako esportazio gairik inportanteena bihurtu zen.

historialari frantsesek aipatu ohi zuten bezala, eta, hortaz, bertan hazkunde hedakorra / larreen eta abeltzaintzaren atzerakada / beheranzko etekinak / errenten igoera / laborarientzako soberakin urriagoa / urri-aldia / prezioen igoera / gosea eta krisi demografikoa segida eskematikoa errepikatu ohi zen, zeinaren ondoren lur libre eta hobe gehiago geratzen eta ganadu gehiago hazteko aukera izatean, berreskurapenerako baldintzak ipiniko baitziren: hori da, gehienbat, mediterranean aldean aurkituko dugun eredu. Errentak asko igo ziren XVI. mendearen bigarren erdialdetik, luraren gaineko presioa areagotu zuten jaunek, eta soldata errealak asko jaitsi ziren, maizterren eta jernalarien egoera ekonomikoa asko ahulduz.

Horren ondorioz, XVI. mende hazkor baten ondoren geldialdia nagusitu zen mende horren amaiera aldetik bertatik, eta XVII. mendearen lehenengo erdialdean krisi eta beheraldiki bihurtu zena. Zergatik izan zen gogorragoa krisi hori mediterraneo aldean Europako beste eskualde batzuetan baino? Dударик gabe, “mundu bete” bati zegokion bezala, azalpen malthustarrak inportanteak dira, baina gainera kontuan hartu behar dugu absolutismoaren diru beharrek presio fiskal gogorra eragin zutela nekazari ahulduen ekonomien gainean; gerrateek eta erreboltek ekarritako galerak; eta nobleziaren presioaren areagotzea, populazioaren jaitsieraren ondorioz, 1620-40tik aurrera batik bat prezioak eta errentak ere jaisten hasi zirenean, eta baita fiskoaren eta luraren errentaren arteko kontraesanagatik (zergak igotzen baziren nekez igo zitezkeen gehiago luraren gaineko errentak, are gutxiago okupatu gabeko lur asko zegoenean). Irtenbidea nekazarien gaineko presioa areagotzea izan zen, 1) ohitura zaharrak berpiztuz edo 2) errenta ateratzeko era gogorragoak ezartzen edo eraldatzen ahaleginduz, adibidez *métayage*, *mezzadria*, *rabassa morta* edo partzuergoa bezalako kontratu gogorragoak, Frantzia gertatzen zen bezala; 3) ustiategi handiak zabalduz eta jernalarien bidez landuz (maizter askoren artean banatu beharrean); 4) luraren gaineko maiorazko edo binkulazio forma ezberdinak ezarriz, jabegoa nobleziaren esku mantentzeko eta merkatuzirkuitutik ateratzeko helburuarekin; edo 5) herri-lurren eta eskubide komunalen gaineko kontrola areagotuz; gainera, Gaztelan adibidez, *maiorazkoa* bezalako erakunde batek epe laburreko maiztertzak-kontratuak behartzen zituen nekazariak, titularraren aldeko neurria izan ohi zena. Ez da harriztekoa, beraz, XVII. mendean nekazaritza-errebolten kopurua eta biolentzia dezente handitzea, askotan arazo fiskalekin lotuak (zergak igo egin ziren XVII. mendearen lehen erdialdean, gerra-zikloa mantentzeko, baina altu mantendu ziren ondoren ere, Hogeita Hamar Urteko gerrak utzitako zorrak handiak izan baitziren). Horren guztiaren ondorioz, bestalde, Mediterraneo aldeko eskualdeetan hiritar bizitzaren gainbehera orokor bat (salbuespenekin noski) gertatu zen edo, nahiago bada, *erruralizazio* edo *landataritze* prozesu bat, eta baita subordinazio prozesu bat nazioarteko mailan ere, politikoa baina baita ekonomikoa ere, batez ere Espainiako eta Italiako zona batzuetan; izan ere, I. Wallerstein historialariarentzako zona hauek semi-periferia izaera hartzen ari ziren garai horretan, Europako ipar mendebaldea osatzen ari zen Erdigunearekiko zeharkako mendekotasun ekonomikoa bati lotuak. Horrek guztiak esan nahi du XVII. mendearen bigarren erdialdean nekazarien eta langile xumeen baldintza ekonomikoa “objektiboek” (merkatuaren aldekoek) hobeak izateko itxura guztia bazuten ere, erreazio feudalak oso mugatu zituela, nekazarien arteko gizarte eta aberastasun derberdintasunak haztaraziz, eta berreskurapen ekonomikoa bera oztopatuz (eskualde batzuetan, izan ere, landa berreskurapena ez zen iritsi XVIII. mendearen lehen erdialdera arte).

XVIII. mendea, esan dugun bezala, hazkunde mende bat izan zen baita Mediterraneo aldeko nekazaritzan ere. Izan ere, egile batzuek aipatu dute nekazaritzari buruzko literatura ilustratuaren ugaltzeak eta nekazaritza-munduan oinarritutako ekonomialarien eskola bat sortzeak (fisiokrazia) hazkunde horren isla izango ziratekeela; orokorrean badirudi, ordea, M. Morineauk zioen bezala, hazkundera muga tradizionalen barnean geratu zela, aleen etekinen bilakaerak adierazten duen bezala. Hazkunde tradizional horren lekuko izan ziren ez hain jarraiki errepikatu ziren hornigaien krisialdiak, gosete eta prezio igoerekin gertatzen zirenak: adibidez, Frantzia Iraultza aurreko urteetan gertatu zirenak, edo Espainian XVIII.

mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran errepikatu zirenak. Gehiago produzitu zen, eta goseteen kopurua, antza denez, murriztu zen, baina populazioa, oro har, elikagaien produkzioa baino gehiago hazi egin zen, mendearen bigarren erdialdean batez ere, eta produktua biztanleko, beraz, zer edo zer jaitsi zen, nekazarien batz besteko kontsumoa bezala (ez ahaztu hiritartze prozesuak, motel bada ere, aurrera egin zuela Aro Moderno guztian zehar, nekazaritza-produkzioarekiko dependentea zen biztanleen ehuneko pixka bat handituz); kontuan hartu behar da XVII. mendeko krisialdiak eta horrekin lotutako erreakzio feudalak eta fiskalak, merkatuaren eraginaren zabalkuntzarekin batera landan, oso zaurgarri eta ahul bihurtu zituela nekazarien ekonomia asko.

Europako Ekialde eta Erdialdean Aro Modernoa Bigarren Morrontza delakoren garaia izan zen, batik bat. Behe Erdi Aro luzearen erreakzio feudalaren emaitza feudalismo klasikoko zenbait ezaugarriren berrezartze orokorra izan zen: nekazalgoaren morrontza edo joputza, lurrarekiko lotura, lan zerbitzuak edo korbeak, jaun nobleen menpeko jaurerri eta erreserba zabalen berrindartzea... Horrelako ezaugarriak garatzen eta indartzen joango dira Ekialdeko Alemanian (Prusian), Polonian, Moravian, Hungarian, eta geroago Errusian (1649ko kode errusiarrak lurra edo jaunarekin lotzen zuen nekazari-morroia). Hori ez zen gertatu leku guztietan eredu berdina jarraituz (eta zona batzuetan nekazalgo askeak indartsu izaten jarraitu zuen), baina bai nahikoa ezaugarri orokorra bilakatu zen.

Eboluzio hori ulertzeko kontuan hartu behar dugu zona horietan populamenduaren dentsitatea txikiagoa zela Mendebaldean baino (Elba ibaiaren ekialdean apenas iristen zen 15 biztanletara kilometro karratu bakoitzeko; Errusiako zona batzuetan 5 biztanletik beherakoa izan zitekeen), eta ezarlekuen dispersioa handiagoa, XI.-XIII. mendeetako koloniakuntza ereduaren eta Behe Erdi Aroko populazio beheraldaren ondorioz. Lur huts horiek erraz bereganatu zituzten noblezia handiak eta Elizak, koloniakuntza garaitik lur zabalera oso handiak menderatzen zituztenak bestalde; populazioaren hazkundearekin batera, nekazariak jaun horiengana jo behar izan zuten eta askotan haien inposaketak onartu behar izan zituzten.

Bestalde, hirien eta burgesiaren ahultasuna beste faktore garrantzitsu bat izan zen: koloniakuntzaren ondorioz ez zen apenas garatu hiritar burgesia autonomorik lurralde haietan, eta, ondorioz, ahulak izango ziren jaun nobleen boterearen aurrean, Mendebaldean gertatu zen ez bezala (hots, ez ziren izan jaunen boterea orekatzeko kontrapisua). Hiriak, oro har, txikiagoak ziren eta, askotan, nobleziak menderatzen zituen; ondorioz, bertako nekazariak aukera gutxiago izan zuten hirietara *ihes* egiteko (“hiriko aireak libre egiten du”), eta erregeek ez zuten izan bertako burgesiaren laguntza nobleziaren boterea orekatzeko (Poloniako kasuan argi ikusten den bezala: erregeak oso botere gutxi izan zuen nobleziak kontrolatutako Dietaren aurrean...). Gainera, birfeudalizazio prozesuak berak burges talde horien garapena oztopatu zuen; merkataritza eta trafikoa “atzerriko” burgesiaren esku zeuden, Hansako merkataria alemaniarren edo Herbeheretako merkatarien ordezkarien esku, eta horrek ere burgesia propio baten garapena oztopatu zuen.

Bestalde, ezin da inola ere ahaztu Mendebaldeko Europaren zereal-eskariak eraman zuela Europako Ekialdea sartzera, garai horretan, zona hark menderatutako mundu-ekonomian. Europako eskualde oso hiritartu batzuk, Herbehereek batez ere, geroz eta nekazaritza-produktu gehiago inportatu behar zituzten beren hornikuntzarako, zerealak batez ere, eta zereal produkzioan eta esportazioan espezializatutako zona batzuen eraketa bultzatu zuten Ekialdean, zereal merkeena alegia. Nobleziak morrontza inposatzeko boterea zuen bertan eta zereal produkzioaren kontrol zuzena lortuko zuten, erreserbak zabalduz, nekazarien lur sailak txikituz eta korbeak luzatuz (Pomeranian, hots, egun Poloniakoa den ekialdeko Alemaniako eskualdean, asteko bi egun izatetik sei izatera igaro zen garai honetan); izan ere, botere publikoek morrontzaren berrezarpena legeztatu zuten. Nobleak zuzenean atzerriar merkatariekin aritzen saiatu ziren, irabaziak areagotzeko, bertako merkataria taldeak baztertuz eta burgesia are gehiago ahulduz. Artisau autoktonoak ere kaltetuak atera ziren, atzerriarrek nobleziaren luxuzko eskaria hornitu zutelako haiek inportatutako produktuekin.

Bilakaera hori nabarmena izan zen XV. mendetik aurrera, eta XVI. mendean indartu egin zen bere; XVII. mendean, ordea, krisiarekin eta guden eraginarekin (Hogeita Hamar Urtekoa batik bat) egoera zaildu zen, eta jaunen erantzuna (sarreraren erortzearen aurrean) morrontza are gehiago gogortzea eta zabaltzea izan zen: krisialdi demografikoaren ondorioz mendebaldar eskaria jaisten joan zen eta baita zerealen prezioak ere; Ekialdean bertan populazio galerak izan ziren ere, eta nobleziaren irabaziak gutxitu egin ziren. Irtenbidea nekazarien ahulezia aprobetxatzea izan zen morrontza prozesuan sakontzen jarraitzeko (Alemaniako historiografian “Bauernlegen” edo nekazarien zapalkuntza politika deitzen zaio horri), eta are zabaltzeko ere, Errusiara esaterako.

Azken finean, I. Wallersteinen eskema jarraituz, Europako Ekialdeko lurralde horiek, Amerika koloniala bezala, kostu txikiko lehengaien eta oinarrizko salkarien produkzio-zonak bihurtu ziren Aro Berrian, zona horietan erabiltzen ziren soberakinaren xurgatze erak sistemaren erdigunean erabilitakoak baino “atzeratuagoak” zeuden heinean: esklabotza, sasiesklabotza edo morrontza.

Errusiaren kasua, hemen sartzan badugu ere, nahikoa ezaugarri bakanak zituela esan beharra dago. Bertan, adibidez, estatu despotikoak (tsarismoak) askoz ere botere gehiago zeukan Poloniako monarkiak baino, aparatu administratiboa aspaldi sendotu zelako ekialdeko inbaditzaileen aurrean (tartariarren aurrean, batik bat) defentsa sendo bat aurkezteko; jaunak ere interesatuta egon ziren estatuaren sendotzean, ihes egiten zieten morroien harrapaketa laguntza izateko, eta, horrela, gobernu eredu aristokratiko bat baino (Polonian bezala⁶), eredu despotiko bat garatu zen Errusian. Hala, XVIII. mendeko nekazaritza-hazkundearen garaian Mendebalderako esportazioak areagotu ziren eta Errusiar Inperioko lur emankorrenetan batez ere (Ukrainan) lan zerbitzuek (*barschina*) diru-errentak (*obrok*) ordezkatzeko jarraitu zituzten.

Europako zonarrik dinamikoena, beraz, ipar mendebaldea izan zen: nekazaritzarik intentsiboena praktikatzen zen bertan, hiritartuena zen eta, ondorioz, baita dentsoki populatuena ere (Holandan dentsitateak kilometro karratu bakoitzeko 100 biztanleen gainekoa izan zitekeen). Lehenengo garaian nekazaritza-garapenaren gune nagusia Herbehereak izan ziren (Flandria eta Holanda), zeinetan nekazaritza-hazkundera intentsiboagoa izan baitzen beste zonetan baino. Faktore ezberdintzaile nagusienetako bat bilakaera hori ulertzeko, historialariek aditzera ematen dutenez, lurjabe txiki askeen proportzio handiagoa bide zen (Europako beste zona batzuekin konparatuz alajaina). Han hasi ziren garatzen ziren lurgintza teknika berriak, emankorrak, denborarekin Nekazaritza Iraultzaren muina osatuko zutenak. Garapen hori ez zen bat-batekoa eta orokorra izan (tokian tokikoa izan zen); mantsoa izan zen eta pausoka eman zen. Funtsezko ezaugarria lurralde hauetako *hiritartze* prozesu inportantea izan zen, Erdi Arotik zetorrena eta Aro Modernoko merkataritza-bultzadarekin batera areagotu zena: Europako zona urbanizatuenetako bat zen. Inguruko lurrek ezin zuten hiri horietako populazio hazkorra ase, eta zerealaren hornikuntzaren zati bat atzerrian bilatu zen gero eta gehiago, itsaso bidezko garraio merkeagoaz profitatzeko baldintza onak probestuz: Ekialdean gertatutako bilakaerak izan zuen horrekin zer ikusirik. Zerealen laboreetara, beraz, lurrik emankorrenak bideratu ziren eta zerealentzako horren onak ez zirenak horietara hobeto egokitzen ziren belar, tuberkulu edo bestelako landareetara. Beraz, badirudi inguruko lurraldeetan hiri horietako eskari handiak bultzatu egin zuela nekazaritza intentsiboago bat, teknika berriak garatzen joango zena, landare berriak ezartzen (are tulipak ere, hots, elikadura edo industria erabilerarik gabeko loreak), lan inbertsio handia eskatzen zutenak.

Horren guztiaren ondorioz baratz ekonomia bat joan zen zabaltzen, hirietan kontsumituko ziren produktu espezializatuekin; ganaduaren ukuiluratzeta eta haragi, gurin eta gazta produkzioa areagotu ziren, halaber, hiritarrak produktu horietaz hornitzeko (hurbilean egin beharreko zerbait, halabeharrez, janariaren usteldura saihesteko); ondorioz, areagotu ziren

⁶ Zeina, jakina den bezala, herrialde independente izateari utzi zion, eta Austria, Prusia eta Errusia artean banatua izan zen XVIII. mendearen amaieran (1772-1793).

halaber belar-bazka landareen lanketara bideratutako lur sailak, animalia horiek elikatzeko alegia, ongarri kopuru handiagoen erabilera ekarri zuena eta lugorrian utziko den lur-azalaren gutxitzea, txandaketa konplikatuekin batera: txandaketa horietan, esaterako, gero eta gehiago sartu ziren lekadunak, zoruari nitrogeno ekarpena egiten diotenak, lurraren produktibitatea berreskuratzen lagunduz. Bestalde, ezin da ahaztu Holandan jarraitu zuela “polderizazio” prozesuak, XVI. mendean berraktibatu zena eta 1620-40 arte itsasoari lur azalera zabalak lapurtu zizkionak, oso nekazaritza-lur emankorrak eskuratuz, lan eta kapital inbertsio nabarmenen truke, hori bai.

Hegoaldeko Herbehereen hazkundera mantsotzen eta zona batzuetan aldrebestu zen arren Monarkia Hispanikoaren kontrako gerra luzeen ondorioz, Iparralde independenteak (Probintzia Batuak, Holandaren gidaritzapean) XVII. mendeko krisialdia gorabehera handirik gabe igaro zuen; izan ere, XVII. mendea izan zen Holandaren merkataritza-zabalkuntzaren loraldiarena. 1680tik aurrera, ordea, merkataritza-lidergoaren galerarekin, Holanda krisirantz bideratu zen; halere, XVIII. mendean nekazaritza aurreratuenetako europar eskualdeetako bat zen. XVIII. mendean batez ere aurreko mendean Iparraldean garatutako teknikak Herbehere Austriarretara (egungo Belgika, gutxi gorabehera) pasako ziren, lurralde horien nekazaritza-hazkundera nabarmena izango zelarik.

Mudantza zabalena, edonola ere, Britainia Handian gauzatu ziren, batez ere Ingalaterrako zona aberatsenetan, egile batzuek Nekazaritza Iraultza bezala ezagutzen dutena [*Revolución Agrícola, Agricultural Revolution*]; izan ere, aurrerapen horiek Ingalaterratik zabalduko dira, XIX. mendean batez ere, Europa guztira. Horrek ez du esan nahi, edonola ere, aldaketak erradikalak, azkarrak eta orokorrak izan zirenik, nekazaritza eta nekazalgo tradizionalaren iraupena oso luzea izango baitzen baita Ingalaterran ere; ikuspegi tradizionalak “iraultza” hura XVIII. mendera mugatzen bazuen (eta hesitze prozesuekin estuki lotzen bazuen), azken hamarraldietako ikerketek erakutsi dute prozesua luzeagoa eta konplexuagoa izan zela eta martxan zegoela jada XVII. mendean, eta are kasu batzuetan XVI. mendetik ari zela mamitzen (eta hesitzeek, alde horretatik, aldaketa finkatzen lagundu zutela, nekazaritzaren orientabide kapitalista indartuz, baina ez zirela izan bere kausa nagusia).

Aldaketa horiek azaltzeko kontuan hartu behar da, lehenik eta behin, Behe Erdi Aroko krisialdiaren ostean gauzatu zen panorama. Hala, noblezia handiaren lurren zabalera oso handia izango zen, eta halaber geroz eta inportanteagoa izango diren noblezia txikiak (*gentry* delakoak) kontrolatutako lur azalera. Nobleziaren jabego hori, gainera, oso zuzena zela esan dezakegu: epe luzeko errentak (errenta enfiteutikoak) oso arraroak ziren landa ingelesean; lur jabeen eskubide juridikozionalak, ordea, oso ahulduta atera ziren Behe Erdi Aroko krisialdi garaiko gizarte-gatazken ondorioz. Bestalde, ez da ahaztu behar Behe Erdi Aroan artile produktioa asko handitu zela Ingalaterran (gogoratu XIV. eta batez ere XV. mendean nekazaritza-prezioak beheraldian zeuden bitartean, artilearenak ez zirela hainbeste jaitsi): horrek nekazaritza-lur askoren hesitzea ekarri zuen, ardientzako larre bezala erabiltzeko, kasu batzuetan nekazariak baztertu eta pobretu egin zituen joera bat, batez ere XVI. mendean, hazkunde demografikoarekin talka egin zuenean: testuinguru horretan ulertu behar ditugu Tomas Moreoren hitzak, bere *Utopia* liburuan (1516), ardiek gizakiak jaten zituztelako protesta egiten zuenean.

Dena dela, Aro Berriko ingeles nekazaritzan nagusi ziren oraindik zerealen lurgintza eta abeltzaintza konbinatzen zituzten lurak, oso antolaketa komunitario estuarekin: lurren gehiengo hiru urteko labore-txandaketa sistemaren bidez lantzen ziren (lur pobregoetan biurtekoa) eta, hortaz, lurak ez zeuden banaturik, bateratuak baizik, hesitu gabe. Horrela, lugorrian uzten zen herenean eta uzta bildu ondoren beste bi herenetan herritarren ganadua libreki sartu ahal zen, eta auzolan batzuk egitera behartuak zeuden. Hots, *openfield* delakoa zen nagusi, nekazaritza-lur irekiak. Lur horien osagarri bezala herri-lurak zeuden, zeinetan, dakigun bezala, egurra, belarra, ganaduarentzako larreak, eta bestelako gai osagarriak lortzen baitziren. Kasu batzuetan, herri-lur horietan nekazari txiroenek lur batzuk luberritzen zituzten

mantenua ziurtatzeko helburuarekin; *squatter* delako horien legez kanpoko praktikak *de facto* onartzen ziren, batzuetan.

Nekazaritza-arloan gertatu ziren aldaketa “iraultzaileak” nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arteko kontraesan tradizionalen hausturaren bidetik etorri ziren, eta hala aldaketa teknikoak nola sozialak ekarriko zituzten. Europar nekazaritza hedakorrek zuen oztopo tradizionala zen nekazaritza-produkzioa handitzeko premia zegoenean abeltzaintzarako lurak urratu egin behar zirela, eta horrek bi ondorio ekartzen zituela: lur kaxkarragoen erabilera eta ongarri gutxiagoren produkzioa, behezko etekinen eta produktibitatearen jaitsieraren ondorioak ekarri ohi zuena. Oztopo horiek gainditzeko bide bat nekazaritzaren eta abeltzaintzaren konbinaketa berri eta estuago bat izan zen: lur azalera handiak urte batzuetan nekazaritza-produkzioerako erabiltzea (zerealen ekoizpenerako, batez ere) eta beste urte batzuetan abeltzaintzarako, batez ere ardiak hazteko, *nekazaritza trukagarria* [*agricultura convertible, convertible husbandry*] deitzen dena alegia; kontuan hartu behar da horrek inplikatzeko zela merkatura zuzendutako produkzioa nagusituko zela, noski.

Aldaketa horiek lur-azalera eta, hortaz, ustiategi zabaletan hedatu ziren bereziki (baina ez soilik), eta batzuetan kontraesanean sartzen ziren hiru urteko labore-txandaketaren sistemak inplikatzeko zituen betebeharrak kolektiboekin. Tradizionalki uste izan da aldaketa horren bidea, Britainia Handian, hesitze-prozesuaren bitartez gauzatu zela, ingelesez *enclosure* bezala ezagutzen dena. Badirudi hesitzeak Behe Erdi Aroan hasi zirela, baina XVI. eta XIX. mendeen artean zabaldu ziren nagusiki, XVIII. mendean ugaltu zirelarik bereziki. Hasiera batean batez ere jabe handien eta ertainen akordio bidez gertatzen ziren: haiek zirenez udalerririk bakoitzeko lur gehien titularrak, akordioak erraz lor zitezkeen batzuetan. Hesitze prozesua abiatzea erabakiz gero, ordura arte kolektiboki eta hesirik gabe ustiatzen ziren lurren tasazio bat egiten zen lehenengo, gero jabeen artean kontzentratzen eta banatzen ziren proportzionalki (ordutik aurrera hesitzeko aukera izango zuten); prozesu horrekin batera, gainera, herri lurak ere jabeen artean proportzionalki banatu eta saltzen zitzaizkien. Banaketa guztiak egin ondoren, esan bezala, jabeek inbertsio batzuk egin behar zituzten lurak hesitzeko, beharrezkoa zena ganadurako lur bihurtu behar baziren.

Prozesu hori, esan bezala, ez zen guztiz finkatu XVIII. mendera arte, baina bere lehenengo ondorioak nabarmenak izan ziren jada XVI. eta XVII. mendeetan. Alde batetik, jabego handiaren geroz eta nagusigo nabarmenagoa, lurak maizter askoren artean banatu ordez, errentari handiei alokairuan emateko geroz eta joera nabarmenagoarekin batera; gainera, XVI. mendeko lur eklesiastikoen desamortizazioak (erreforma anglikanoaren testuinguruan) eta XVII. mendeko monarkiaren lur askoren salmentak (Iraultza Ingelesaren ondorioetako bat) lurjabe handi eta ertainen jabegoak zabaldu zituzten, aberatsak izan baitziren eroslerik handienak. Bestalde, lur horietan nekazaritza-teknika berriak ezartzeko gero eta joera handiagoa egon zen, batik bat Herbeheretatik ekarriak, haien errentagarritasuna handitzeko asmoz: teknika horiek hobeto egokitzen ziren ustiategi zabalagoetara, etekinak eta, ondorioz, lur horiek ematen zituzten diru-mozkinak igoz. Beste alde batetik, horrekin guztiarekin batera, nekazari txikia –maizterra zein jabea– geroz eta baztertuagoa gelditu zen, nahiz eta kasu batzuetan, Moro bezalako intelektualen kritikez gain, nekazaritza-kapitalismora zeraman bilakaera horren kontrako ekintzak eta matxinadak gertatu ziren, *diggers* delako mugimendu komunitarioarena bezala (batzuentzat, aurre-komunistak), Iraultza Ingelesaren garaian (1640-1660) zanpatuak izan zirenak. Azkenik, aldaketa horien ondorio nagusien artean nekazaritza-produkzioaren eta landa-bizitzaren merkaturatze-prozesu geroz eta sakonagoa aipatu behar da.

Prozesua XVIII. mendean finkatu zen, “hesitze parlamentarioak” delakoekin, hots, Ingalaterrako Parlamentuak legez agintzen zituenak herriko jabe batzuen eskakizun baten ondorioz: dekretuz agindutako hesitze horietan ez zen udalerririk jabeen gehiengoaren akordioarik behar, lehen egin ohi zen bezala, eta, beraz, hesitze prozesua erraztu eta bizkortu zutela esan daiteke. Baina azken hamarraldiotako ikerketa-ikuspegi berriagoek zalantzan jarri dute, R.C. Allenek azpimarratzen duen bezala, prozesu horren zurruntasuna: *openfield* sistemari

lotutako *yeomen* edo jabe txikiek, eta baita maizterrek ere, protagonismo handiagoa edukiko zuten *convertible husbandry* horren zabalkuntza pixkanakakoan (izan ere, goiko taulan ikusi dugun bezala, produktibitatearen eta errendimenduen hazkundera XVII. mendetik zetorren gutxienez), nahiz eta ondoren finkatuko eta azeleratuko zen nekazaritza antolatzeke forma kapitalisten ezarpenaren ondorioz.

Beraz, beti gogoan hartu behar dugu Nekazaritza Iraultzak bi alderdi horiek eduki zituela, teknikoa (produktibitatea handitu zuena, eta lotuta joan zitekeena, ala ez, ustiategi handiaren zabalkuntzarekin) eta soziala (nekazari familia txikiaren, hots, *yeomanry* delakoaren eta maizter txikien baztertze progresiboarekin zer ikusia zuena, eta jabego ertainaren eta batez ere handiaren nagusitzearekin). Produktibitatearen igoeraren aldetik kontuan hartu behar dugu nekazaritzaren eta abeltzaintzaren aipatu erlazio estuagoak ongarri gehiago produzitzen zuela eta lurraren emankortasuna hobetu zuela. Bestalde badirudi tamaina handiagoko ustiategiak bereziki egokiak gertatu zirela atzerritik iritsitako nekazaritza-teknika berriak ezartzeko, behintzat XVII. mendetik aurrera, nahiz eta ikuspegi hau, aipatu bezala, ñabartu egin behar den agian. Esan bezala, aldaketa horiek Herbeheretatik etorri ziren nagusiki eta Nekazaritza Iraultzat ezagutzen den prozesuaren muina osatuko lukete: ganaduaren ukuiluraztea, ongarrien erabilera intentsuago bat (ukuilurazte berak posible egiten zuena), labore-txandaketa laburragoak eta lugorriaren murrizketa edo desagerpena, lekadunen eta bazka-belarren sarrera labore-txandaketetan (arbia, hirusta, astorkia [*esparceta, common sainfoin*]...), zingiren lehorketa prozesuak (Fens delakoetan, adibidez, Cornelius Vermuyden holandarraren proiektuari esker) eta lurren hezetasun maila hobetzeko ubidetze eta drainatze lanak... Teknika horiek, askotan, Herbeheretako erbesteratuek eraman zituzten, eta badirudi ondo egokitu zirela Ingalaterrako zenbait lurren baldintzetara, bereziki nekazaritza kapitalista garatzen ari zen lekuetan eta irabazi nahiak inbertsioak bultzatu zituen lekuetan.

XVIII. mendean, bultzada horri jarraituz, aurrerapenak egiten jarraitu ziren, geroz eta gehiago jatorri autoktonokoak: hemendik aurrera Ingalaterra izango da europar agronomoen eredu. Orduan garatu ziren, adibidez, Norfolk bezalako urteko txandaketa sistemak (lurra lau zatitan banatzen zuena: batean zerealak, normalki garia, ereiten ziren; bigarrenean bazkarako tuberkuluak, arbia bezala; hirugarrenean garagarra; eta laugarrenean argi-belarra [*alfalfa*] edo hirusta, lugorria ezabatuz beraz); lurren ubidetzea hobetu zen; tresnerian hobekuntzak gertatu ziren, burdin gehiagoren erabilpenaren bitartez (adibidez, igitaia ordezkatzeko joango diren segatan) eta are makina berrien asmakuntzaren bidez (esaterako, Jethro Tull-en ereiteko makina). Horren guztiaren ondorioz produktibitate eta etekin orokorrak astiro baino etengabe igotzen joan ziren. Hala, epe luzean lurraren produktibitatea eta produkzioa igo egin ziren, eta hala badirudi XVII. mendearen bukaeran eta, ziurrago, XVIII.aren hasieran Ingalaterra zerealak esportatzen zituela, lehen inportatzera behartuta zegoen bitartean.

Bestalde, aipatu bezala, nekazaritzaren komertzializazioa areagotu zen: geroz eta gehiago merkaturako produzitzen dela, ez autohornikuntzarako, eta merkatu prezioen gorabeherak geroz eta inportanteagoak bihurtu ziren nekazaritza-produktuen ekoizleentzat. Joera horrekin batera kontuan hartu behar dugu zona eta konderri batzuetan nekazaritza-industria domestikoak (protoindustriak) irabazi zuen garrantzia, esaterako, West Country, East Anglia, Ulster, Yorkshire edo Lancashire (horietako batzuek, azkeneko biek bezala, industrializaziorako urratsak emango zituzten gero, baina ez besteek).

Jabego handiaren zabalkuntza eta lurren kontzentrazio handiagoak ondorioak izan zituen: 1870erako, adibidez, jabeen %1,4-ak lurren %69 menderatzen zuen. Lur horiek, geroz eta gehiago, era kapitalista batean ustiatuko ziren, hau da, jabeek, jabegoa lur sail txiki askotan zatitu eta maizter txiki askori alokairuan eskaini beharrean, ustiategi handi osoak ematen zituzten errentan, maizter handiei alegia, eta maizter handi horiek, geroz eta gehiago, lurra nekazaritza-langile soldatadunen bidez, hots, jornalarien bidez lantzen jo zuten. Hala, jabe eta errentari txikiak desagertuz joan ziren Ingalaterrako nekazaritza-paisaiatik. Hesitze prozesuak zaildu egin ziren bizimodua: eskubide komunalak eta herri-lurrak desagertzean haien bizi-mailak mantentzeko geroz eta zailtasun gehiago izan zituzten: ez zuten ahalmenik izango

hainbeste abelburu mantentzeko, basoko osagarri ekonomikoak lortzeko aukerak txikiagoak izan ziren, *squatter* delakoak lantzen zituzten lurretatik bota zituzten gehienetan. Jabe txikiak, lurrak galdu aurretik ere, apenas zuten aukerarik hesitze-prozesuan parte hartzeko, ezin baitzituzten jasan hesitzeak barneratzen zituen gastu handiak. Haietako asko zorduntzen joan ziren eta lurrek, askotan, noblezia handiaren eta *gentry*aren eskuetan amaituko zuten. Prozesu horrek, beste aldetik, protoindustrializazioaren garapena ekarri zuen zona batzuetan: pobretutako maizter eta jabe txiki askok etxeko industrian aurkitu zuten irtenbide bat. Industrializazioak eta hirirako emigrazioak eskainiko diete, XVIII. mendearen amaieratik, beste irtenbide bat. Prozesu hauek ez ziren, edonola ere, egun batetik bestera gauzatu, eta hasiera batean behintzat hesitzeek ez zuten lan-eskuaren premiak murriztu: jende gehiago behar zen hesiak ipintzeko, garai batez behintzat, eta lurra galdutako askok jornalari bihurtu edota etxeko industrian aurkitu zuten lana. Azken emaitza, ordea, batez ere XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, nekazalgo txikiaren murrizketa izan zen; handik abiatu zen Industri Iraultzarekin batera sortutako fabriketan lan egitera iritsitako proletalgoaren zati bat behintzat.

Badirudi, hortaz, Nekazaritza Iraultza batez hitz egin daitekeela Ingalaterrarako behintzat XVIII. menderako, nahiz eta egile batzuk bere hasiera XVII. mendean kokatu; beste espezialista batzuen arabera, antzeko aldaketak gertatzen ari ziren, batzuetan lehendik, Herbeheretan, Frantziako ipar ekialdean eta Alemaniako mendebaldeko zenbait zonatan. Prozesua bat-batekoa izan ez zen arren, emaitzak europar nekazaritza tradizionalaren sorgin gurpilekin bukatu zuen azkenean, hots, populazioaren gorakada eta elikadura produkzioaren hazkundera kontrajartzen zituen. Horren lekuko argiena XVIII. mendeko Britainia Handiak ezagutu zuen populazioaren hazkunde nabarmena izango litzateke, eta Industri Iraultza bera, nekazari proportzio txikiago baten lanaz gizarte guztia mantentzea ahalbidetu zuen heinean. Zona horietan, bestalde, eta pixkanaka Europako mendebaldeko leku batzuetan, bizkorrago beste batzuetan, nekazaritzan produkzio harreman kapitalistak ezartzen joateko bideak irekitzen joan ziren⁷, hesitze prozesuen bitartez, desamortizazioen bitartez, herri-eskubideen gutxipenaren bitartez, jornalariak erabiltzen zituzten etxaldean kopuruaren hazkunderaren bitartez, kredituaren eta protoindustrializazioaren zabalkuntzaren bitartez... Tokiko mailan, Britainia Handiko kasuan aipatu dugun bezala, laborari pobreenek aurre egin zieten, indar handiagoz edo txikiagoz (eta bortizkeria gehiagoz edo gutxiagoz), prozesu horiei, baina ez nahikoa indarrez: kontuan hartu behar da mendebaldean gertatu zen azkeneko matxinada handia nekazari alemaniarrena izan zen (1524-1525), eta hain izan zen bortizki zanpatua ezen horrek, ziurrenik, aurrerantzean mugimendu zabalagoen pizkundera oztopatu baitzuen luzaroan⁸ (Aro Berriko laborarien matxinada tipikoa, tokiko mailan eman ohi zena, antifiskala izaten zen, hots, aparatu politiko feudal zentralizatuaren –monarkia absolutuen– zergen presio hazkorrari erantzun gisa, gero aztertuko duguna; hurrengo altxamendu zabala, Europako mendebaldean, XVIII. mendearen amaieran Iraultza Frantsesarekin batera gertatu zena izan zen, zer esanik ez).

Hiru mende luze horietan zehar, beraz, aldakuntza nabarmenak gertatu ziren nekazaritza-gune ezberdinetan. Laburbilduz, esan daiteke sakondu egin zela merkatuaren eragina nekazaritza-ekonomia haietan, orokorrean. Modu batean edo bestean, jende gehiago geratu zen merkatura lotuta, edo modu estuago batean lotu ziren merkatuarekin, lehendik hala bazen. Ohiko irudia nekazari autokontsumitzailearenak izaten jarraitzen zuen, noski, baina, modu batean edo bestean, mundu guztia “igarotzen” hasi zen merkatutik, gutxi edo asko, Aro Berrian zehar.

⁷ Batez ere, nahiz eta ez soilik, erreforma protestantea nagusitu zen lurraldeetan, beraz, Max Weber soziologo klasikoari eta bere eskolari protestantismoaren eta kapitalismoaren garapenen artean harreman bat dagoela defendatzera eraman zituen, kontu bat agian argiago islatzen dena hiri, artisautza eta batez ere merkataritza munduan, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala.

⁸ Wallersteinen eskolako historialarientzat Nekazarien Gerra hura izan zen kapitalismoaren garapenaren aurkako nolabaiteko “laborarien bide alternatibo” bat gauzatzeko azkeneko aukera galdua...

Alde batetik, lur gehienek jabeak ziren noble, eliztar eta, geroz eta gehiago, merkatari eta burges aberatsak, hala lurra zuzenean ustiatzen zituztenak, nola lur horiek errentan ematen zituztenak (gehiengoa): haiek zirenez nekazarien soberakinaren gehiengoa jasotzen zutenak (errentaren, eskubide juridikuzialen, hamarrenaren, zergen eta kredituaren tresnak erabiliz), haiek ziren, logikoki, produkzioaren gehiengoa merkaturatzen zutenak.

Nekazari txikiak, ustiatze txikiak jabeak edo kolonoak (maizterrak) zirenak, printzipioz, merkatura gutxiago jotzeko joera zuten: hala izaten zen, batez ere, uzta oso ona lortzen zuten urteetan (soberan zeukatena saldu ohi zuten gero). Baina leku batzuetan (esaterako, Frantzia) fisko presioaren areagotzeak, edo errentak dirutan ordaintzeko betebeharrak produkzioaren zati bat saltzera behartzen zituen. Eta uzta txarra zenean, ezinbestez, elikadura edo hazia erostera jo behar zuten merkatura, askotan zordundu ondoren, merkatuarekiko lotura sendotzen zuena berriro ere. Azkenik, lur oso gutxi edo batere ez lantzen zutenak, eta, hortaz, artisau edo jornalari bezala lan egitera behartuak aurkitzen zirenak, merkatura jo behar zuten, halaber, kontsumitzen zituzten ondasun asko erostera.

Izan ere, Aro Berria zehar nekazariak jasan zuten lurren gaineko jabearen eta kontrolaren galera jarraituak merkatura bultzatu zituen geroz eta gehiago, eta gauza bera esan daiteke nekazaritza edo abeltzaintza-espezializazioaz, gainontzeko produktuak geroz eta gehiago merkaturatu erostera bultzatzen zuena (hori gertatu zen, esaterako, XVII. mendean ardogintza eta pattargintzara bideratu ziren zonetan); gune hiritarren hazkundeaz, haiek hornitzeko baratz-ekonomia eta abeltzaintza bultzatu zirelako hirien inguruan; eta, azkenik, fiskoaren presioaren aurrerakada jarraituaz.

XVI. mendean, oro har, prezioak eta errentak igo egin ziren: izan ere *Prezioen Iraultzaren* fenomenoak izan zen garai horretako ezaugarri nabarmenena, garaiko idazle eta pentsalari askok nabaritu zuten bezala. Batzuetan beste prezioak hirukoiztu edo laukoiztu ziren (zonaren arabera) mende betean. Garaikide batzuek Amerikako metal preziatuen etorrera masibo eta “bat-batekoari” egotzi zioten salneurrien igoera nabarmen hori: urre eta batez ere zilarrezko diruaren zirkulazioa handitu zirenez kontinente osoan (kontuan hartu metal preziatuak Monarkia Hispanikora iristen baziren ere, hark baitzuen Mundu Berriaren esplotazioaren monopolioa, nahiko berehala banatzen zirela Europa osoan, agintari hispanoek Europako nazioarteko bankariekin zituzten zorren ordainketa zela medio, edo Penintsulak Europako erdigune ekonomikoaren zeukan merkataritza-balantza negatiboa zela bide), eta txanponen ugartasun hori ondasunen eta zerbitzuen produkzioa baino azkarrago hasi zenez, diruaren balioa murriztu eta prezioak igoko ziren. Egun historialari ekonomiko batzuk hipotesi horrekin bat datozen arren, beste askok geroz eta garrantzi gehiago eman diote eskaeraren portaerari, hots, populazioaren hazkundeak eragindako presioei, ekoizpenarena baino bizkorrago baitzirela, jangaien eskaintza murriztuz eta, oro har, prezioak igoz (izan ere, prezioen hazkunde erlatiborik nabarmenena mendearren lehenengo erdialdean zehar gertatuko zen, metal preziatuen etorrera horren masiboa ez zen garaian hain zuzen ere: kontuan hartu Potosí fundatu ostean, 1545etik beraz, hasi zela Europarako zilar *uboldea*...); metal preziatuen etorrera, beraz, faktore laguntzailea izango zen, askoz jota, historialari horientzat.

Prezioen portaera horrek higitu zituen lurra errentan hartzen zutenen eta soldata jasotzen zutenen sarrerak eta, ordea, lurjabe handien sarrerak emendatu zituen. Ondorioz, batez ere XVI. mendearren bigarren erdialdean, ugaltu egin ziren nekazarien artean zordunketa eta lurren galera prozesuak, Mendebaldean nahiz Ekialdean, non, dakigun bezala, korbeen hedakuntza eta morrontzaren gogortasuna zabaldu baitziren.

XVII. mendean, ordea, kontrako fenomenoak aurkituko ditugu ia Europa osoan: deflazioa. Prezioen jaitsiera lehenago hasi zen leku batzuetan (XVII. mendearren hasieran) eta geroago besteetan (Hogeita Hamar Urteko Gerraren ostean). Eskariaren geldiuneari dagokio arrazoia: populazioaren hazkundeak mantsotu zen eta, leku batzuetan, populazio jaitsierak egon ziren, eskaintza nahikoa zurruna mantentzen zen bitartean. Horrek nekazaritza gaien eta batez ere zerealen prezioak jaitsi zituen XVIII. mendearren hasierara arte, aldi berean soldata errealek

eta, agian, herri xehearen elikadura mailak zertxobait igoz: populazioaren geldialdiaren osteko abeltzaintzaren hazkundeak posible egin zuen haragi kontsumoa pixka bat handitzea, esate baterako (nahiz eta, ziurrenik, ez Behe Erdi Aroko krisiaren ostean bezainbeste: nekazari eta herritar europarrek ez zuten jan, Aro Berrian zehar, XV. mendearen amaieran edo XVI.aren hasieran bezain ugari eta anitz), edo baita pattarrarena ere, mahastizaintzara bideratutako eskualdeentzako mesedegarria suertatu zena. Orokorrean, lur-jabeak eta errentak jasotzen zituztenak kaltetuak atera ziren edo, behintzat, ez zuten aurreko garaietan bezainbat jasoko.

Galera horien aurrean, lurjabeek, pribilegiadunek nahiz ez-pribilegiadunek, mekanismo ezberdinak erabili zituzten. Adibidez, lurrak juridikoki babesten saiatu ziren jabego galeren eta zatiketen aurrean; hor koka ditzakegu herrialde ezberdinetan talde pribilegiatuek estatuarengandik lortu zituzten abantaila juridikoak, esate baterako, oinordeko bakarreko sistemak inposatzeko: *maiorazkoa* Gaztelan, *strict settlement* Ingalaterran, *fideikomisoa* Italian... Tresna horien bitartez, jabegoaren zatiketa saihesten eta burgesiaren erasoetatik defendatzen zituzten haien lurrak, halako erakundeen baitan uzten ziren lurrak arduragabeak zirelako, hots, ezin ziren saldu edo zorrak kitatzeko erabili; beste era batean esanda, merkatutik kanpo geratzen ziren lur horiek guztiak.

Erabili zen beste bidea fisko presioa gogortzearena izan zen, nekazarien gain alegia; estatuak xurgatutako ondasun horiek klase gorenen artean birbanatzen ziren bide ezberdinetatik: soldatak, sariak, Gortea, aginte-postuen banaketa... Nekazarien gaineko presioaren areagotzea, bestalde, zuzena izan zitekeen ere, haiei ordainketa eta eskubide berriak ezarri, edo zaharrak aldarrikatu. Horixe gertatu zen, aipatu bezala, Frantziako eskualde batzuetan, baina baita Europako ekialdean ere, zeinetan mendebaldeko eskariaren jaitsierak morrontzaren gogortzea ekarri baitzuen; Ingalaterran, ordea, jabego handiaren hazkundeak izan zen nagusi, abeltzaintza eta nekazaritza konbinatzen zituzten sistema ezberdinak ezarri zirelarik, abeltzaintza-produktuen prezio altuagoak aprobetxatzeko hain zuzen ere.

Ahalegin horiek Mendebaldean, erreboltak eragiteaz gain, ez ziren orokorrean iritsi nekazalgoaren eta, oro har, herriaren bizi-baldintzen okertze absolutu bat eragitera. Izan ere, frogaz guztien arabera nekazariak merkatura gehiago joko zutela ematen du, maila baxuko eskari bat bultzatuz, adibidez, oihal merkeena: hori erraz lotu daiteke gune protoindustrialen hazkundearekin eta etxeko artisautzaren zabalkuntzarekin.

Ekialdean, ordea, bide batetik edo bestetik, nekazalgoaren zapalkuntza gogorragoa egin zela dirudi, eta haren aberastasun zein askatasun mailak jaitsi zirela; merkaturako atea itxi egin zitzaizen, jaunak eurentzako erreserbatutako bidea bihurtu zutelarik.

XVIII. mendean, ordea, kontrako prozesua gauzatu zen, kasu batzuetan 1720ko hamarralditik eta, beste batzuetan, 1750kotik: errentak eta prezioak igo ziren, eta soldata errealak jaitsi; joera horiek argiagoak bihurtu ziren mendearen erdialdetik. Nekazariak geroz eta gehiago galduko zuten lurren gaineko kontrola eta, horrek, paradoxikoki, mendebaldean batez ere, gehiago lotu zituen merkatuarekin, artisautzan geroz eta espezializatuagoak bihurtuko ziren zonak eratuz (gune protoindustrialak deitukoak) eta, leku batzuetan, produktibitatea areagotu zuten beste prozesu batzuekin nahastuz, eta, ondorioz, industrializaziorako aurrebaldintzak ezarri. Jorنالarien eta soldatadunen kopurua handitu zenez, hots, merkatuarekin lotuta zegoen jendearena, haien arteko lehia handitu zen eta horrek beherantz bultzatu zituen soldata errealak; ustategien gaineko presioa handiagoa zenez, eta lur libreen eskaintza estuagoa, errentek igotzeko joera hartu zuten, maizterren egoera ekonomikoa okertuz (lurjabe txikien kopurua leku gehienetan murriztu zenez, salbu eta agian Frantziako eta Alemania mendebaldeko zona batzuetan, errenten igoera bereziki kaltegarria izan zen nekazalgo europarrantzat). Hori izan zen, jakina, Britainia Handiko hainbat eskualderen kasua, baina baita Europa kontinentaleko beste xumeago batzuen ere. Enrique Llopis historialariak dioen bezala, "XVIII. mendearen hondarrean, europar gehienek aurrez baino ondasun iraunkor eta erdi iraunkor gehiago kontsumitzen zituzten, baina arbasoek

baino gutxiago eta eskasago jaten zuten”⁹; hori, neurri batean, gorago aztertutako bilakaeren ondorio izan zen, eta ondorengo puntuan jorratuko ditugun bigarren sektoreko eta merkataritzako aldaketen ondorio ere.

2.3. Manufakturak, merkataritza, koloniak eta finantza-arloa.

Nahiz eta Europa nagusiki nekazaritza-ekonomia izan, eta bertan mudantza nabarmenak gauzatu Aro Berrian zehar, agian aldaketarik handienak bigarren eta hirugarren sektoreetan gertatu ziren, hots, artisautzan eta merkataritzan; estatuaren rol ekonomikoa, bestalde, dezente handitu zen.

Aro Berrian zehar artisautza sektorearen baldintzatzaileak Erdi Arokoen berdintsuak ziren, hots, alde batetik bigarren sektorearen eskaria malgua edo elastikoa zela sarrerei zegokienez (eta, ondorioz, premiazko hornigaien prezioak asko igotzen zirenean, jaisten zela produktu manufakturatuen kontsumoa); eta, bestetik, landan ematen zen buruaskitasun maila altua, produktu espezializatuen kontsumoa mugatzen zuena.

Hala ere, mende horietan zehar artisautza produktuen merkaturak zertxobait zabaldu zen; geroz eta jende gehiagok egin zuen lan sektore honetan; produkzioa eta espezializazioa inportanteagoak egingo dira. Zabalkuntza erlatibo honen eragileen artean aipa daitezke, alde batetik, populazioaren hazkunde orokorra eta batik bat hirietako biztanleriarena. Bestetik, Europako kolonia-hedakuntza, europar produktuentzat merkatu berriak irekiz (are gehiago kontuan hartuta kolonietako merkaturak metropolietatik esportatutako manufakturentzat erreserbatuta egon ohi zela); Italia, hasiera batean, eta Holanda, Ingalaterra eta Frantzia izango dira gehienbat Amerikako kolonietarako produzituko dutenak, Espainiaren produkzio-ahalmen eskasaren ondorioz (koloniak, bestalde, bigarren arloak geroz eta gehiago erabiliko zituen produktu eta lehengaien iturri bihurtu ziren). Beste alde batetik, gudek ere konplikatzen eta garestitzen jarraitu zuten garai honetan: burdinazko kanoia orokortu zen, untzigintza militarrean bilakaera nabarmenak gertatu ziren, etab, arlo horietako ekoizpena bultzatu zuen zerbait. Bestetik, historialari ekonomikoek nabarmentzen duten beste datu bat jendearen gustuen eta, oro har, modaren geroz eta eragin handiagoa izan zen (aristokraziari eta, geroz eta gehiago, goi burgesiari eragin zion zerbait, noski). Berrikuntza tekniko batzuek, bestalde, eskariaren presio handituari erantzuteko gai egin zuten garaiko artisautza: inprenta, labe garaia, paper-errota eta nabigazio-teknika berriak bezalakoez ari gara, adibidez.

Garaia beste ezaugarri bat erdigune “industrialen” birkokapena litzateke: hala, Erdi Arotik heredatutako testuinguruan Italia eta Herbeheretako hiriak baziren artisautza espezializatuaren produkzio gune nagusiak, artisautza eskualdeen erdigunea, XVI. mendean bukaeratik eta batez ere XVII. mendean zehar Iparralderantz lekualdatu zen, batez ere Herbeheretara eta Holandara eta, argiago oraindik, Britainia Handira, XVIII. mendean bigarren erdialdetik aurrera arlo horretako funtsezko Iraultza aurrera eramango zuena hain zuzen ere. Lekualdatze geografiko progresibo horren oinarrian kontuan hartu behar dugu, alde batetik, Atlantikoak irabazi zuen garrantzia merkataritza-erdigune bezala, eta, bestetik, hazi ziren artisautza enpresak, garai horretan, batez ere etxeke artisautzarekin eta landako gune protoindustrialekin harremanatuta egon zirela; ordea, gremio antolakuntzak boteretsua izaten jarraitu zuen lekuetan artisautza jardueren indarra ahultzen joan zen, guztiz desagertzera heldu ez zen arren.

Oso aipagarria da, beraz, nekazaritza-artisautzaren garrantzi geroz eta handiagoa. Leku batzuetan artisautza jarduerak hirietatik *ibes* egin zuten, normalean merkataritza-kapitalaren interesen sarearen mende eroriz. Joera hori, dakigunez, Behe Erdi Arotik zetorren eta badirudi indartu egin zela Aro Berriko mendeetan. Kontuan hartu behar da,

⁹ E. Llopis, “Europa Westfaliaren eta Waterlooren artean, 1648-1815: uztaro baino gehiago, ereinero”, *Munduaren historia ekonomikoa. X.-XX. mendeak*, Bilbo 2013.

gremioen egiturek babestuta, hiritar eskulangileek eskatzen zituzten soldatak nekazaritza-eskulangileenak baino altuagoak zirela. Laborarien familiak, ordea, lurra lantzetik ateratzen zuen bizimodua, nagusiki; gainera, ez zeukan gremio erakunde baten babesmerkatarien interesen aurrean. Bestalde, hiritar artisautzaren eskaintzak malgutasun falta nabaria izan ohi zuen, gremioek prezioak (altu) mantentzeko egiten zutena; nekazaritza-familiaren artisautza-produkzioa, kontrara, malguagoa zen: produkzioa igotzea komenigarria zen unean familia guztiak egin zezakeen ahalegina, inolako araureraren menpe ez zeuden heinean.

Beraz, esan daiteke joera orokor bat egon zela hiru mende horietan zehar: artisautzaren landatartze edo *erruralizazioarena* alegia. Horrela eratuko dira, Europako herrialde ezberdinetako eskualdeetan *protoindustrializazio guneak*¹⁰ deitu izan direnak (H. Mendels historialaria izan zen termino horren bultzatzaile nagusia). Produkzioa etxe partikularretan egiten zen, baserrietan, hots, sistema domestiko baten baitan (*domestic system*), lantegi hiritarretan oinarritutako gremio-sisteman ez bezala.

Gune horietan produkzioa antolatzeko modu nagusia *Verlagsystem* delakoa izan zen, hots, *putting-out system* edo *aurreratze-sistema* delakoa: horren bitartez merkataritza-kapitalaren artisautzarekin lotzen zen, baina produkzioan zuzenean sartu gabe. Merkataria (*Verlager* delakoak) famili lantegi independentea lehengaiez hornitzen zuen eta, aurrerapen edo “mailegu” horren trukean, produktu bukatuaren prezioa alde aurretik ezartzen zuen, normalean gremio arloan lortuko zukeenaren azpikoa izango zena. *Verlagsystem*arekin batera bazegoen beste produkzio modu bat, *Kaufsystem* izenarekin ezagutzen dena gaur egun, antzekoa baina merkatariekin mendekotasun maila txikiagoa agertzen zuena: ekoizlea, eskulangilea alegia, produkzio tresnen jabea izateaz gain, beharrezko lehengaiak bere aldetik lortzen zituen *Kaufsystem*ean (hala ere merkatariaaren kontrol maila oraindik altua zen, produktu bukatuaren komertzializazioaren eremuak bere esku jarraitzen zuelako). Edonola ere, *Verlagsystema* izan zen landa-artisautza zabaltzeko biderik erabiliena.

Garai haietako beste ezaugarri bat *manufakturen* ugalpena izan zen, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan. Manufaktura produkzio bat edo produkzio prozesuaren faseren bat kontzentratzen zituzten egoitzak ziren, artisautza tailer hiritarra baino handiagoak (batzuetan dezente handiagoak), eta langile gehiago biltzen zuten (industria-fabrikekin desberdindu dituen ezaugarria horren mekanizaturik ez egotean datza: langileriaren abileziak baliabide nagusia izaten jarraitzen zuen bertan, eta ez zeukaten, oro har, energia-eragile zentralik; hala ere, fabriken aitzindarietat jo daitezke). Aro Berrian zehar, edonola ere, manufaktura horien tamaina eta kopurua handitzen joan zen, eta gehienetan sistema domestikoaren barnean lortzen ziren produkzio prozesuen osagarri bezala erabiltzen ziren, batez ere azken faseak egiteko. Adibidez, chungintza arloan bolatzea [*abatanado, tucking*], tindaketa eta irarketa [*estampado, print*] manufakturetan eraman ziren aurrera geroz eta gehiago. Halere, sistema domestikoak beti garrantzi handiagoa izaten zuen, azken finean lantegi zentralizatu horietan oinarria eskulangileen trebetasunak izaten jarraitu zuelako, familia-lantegi txikietan bezala alegia, hots, ez zuten aurrerapen inportanterik suposatu produktibitateari dagokionez, manufakturek kalitatearen eta produktuaren uniformetasunaren aldetik hobekuntzak ekarri ohi zituzten arren. Bestalde, kontuan hartu behar da, orobat, landa aldeko eskulangintza, askotan, sasoikoa izan ohi zela, eta produkzioa handitu behar bazen (urte osora, adibidez) komenigarriagoa izan ziezaiokeela merkataria produkzioaz zuzenean arduratzea; gauza bera gertatzen zen merkatariek ezartzen zituzten *Verlagsystem* sareak geografikoki gehiegi zabaldu eta deserosoak bihurtzen zirenean. Azkenik, gogoratu beharra dago sistema domestikoa ezin zela sektore guztietan erabili (merkataritza eta gerra itsasontzi handietarako olak horren adibide izan daitezke)

¹⁰ Ez direnak eskualde *aurreindustrial*ekin nahastu behar. Eskualde protoindustrialak landa-eskualdeak ziren, zeinetan etxeko eskulangintza oinarritzat izatera heldu baitzen: populazioaren gehiengoa eskulangintzara dedikatuko zen, beraz, urruneko (eta ez tokiko) merkatuak helburu gisa zituen jardura batera alegia.

Manufakturak, beraz, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan zabaldu ziren, bereziki ehungintza arloan. Kasu askotan estatuak bultzatutako produkzio guneak izan ziren, merkataritza eta artisautza autoktonoa babesten zuten politika merkantilisten ekimenez. Ekinbide ezagunena Luis XIV.aren finantza-ministro Colbertek bultzatutako Errege-Manufakturak izango lirateke, zeinetan kalitatezko ehunak, portzelana, altzariak etab. egiten baitziren (Sedan, Gobelins, Sèvres, Abbeville, Troyes, Saint-Etienne...).

Edonola ere, *Verlagsystemaren* zabalkuntzak eta manufakturen sorrerak ez zuen inolaz ere baztertu eskulangintza espezializatuaren erdigune tradizionala: lantegi hiritarra, gehienetan gremio sistema baten babespean egoten zena. Zona askotan gremioak dekadentzian erori baziren ere, beste zona batzuetan tinko mantendu ziren, eta Iraultza Burgesak izan ziren haien eraikuntza juridiko eta ekonomikoen oinarriak deuseztatu zituztenak.

Oihalgintza espezializatuari dagokionez XVI.a hazkunde mendea izan zen ordura arteko erdigune inportanteenetan: Italiako hiritar oihalgintzan, bai artileari bai zetari dagokienez; Herbeheretan eta Ingalaterran; Hegoaldeko Alemaniako zenbait eskualdeetan (hemen artilea eta lihoa nahasten zen ehun batetan espezializatu ziren, *fustan* delakoan alegia); Suitzako eta Frantziako zenbait eskualdeetan (han Lyon-eko zetagintza bereziki inportantea bihurtu zen); Gaztelako hiri batzuetan, etab. Esan daiteke hazkundera bai artisautza hiritarrean, bai landakoan gertatu zela (azken horretan, mendearen lehenengo erdialdean batik bat). Ekoizpen horien “burua” edo “produktu izarra”, edonola ere, artilezko oihal astun tradizionalak ziren, lodiak, kalitate onekoak eta garestiak, gremio-testuinguruan produzitu ohi zirenak.

XVI. mendearen amaieratik, ordea, gauzak aldatzen joan ziren. Alde batetik kontuan hartu behar da populazioaren multzo handien eros ahalmena jaisten ari zela (Prezioen Iraultzaren garaia zen: leku askotan produkzioaren hazkundera bere mugetara ailegatzen ari zen, prezioak eta errentak igotzen ari ziren, soldata errealak, oro har, jaisten ari ziren bitartean), eta horrek aldaketak ekarri zituela eskarian. Eskualde batzuek egoera berrira egokitzea lortuko zuten bitartean, beste batzuek garrantzia galdu zuten ehungintza gune espezializatuak bezala.

Hobekien egokitu zirenak *New Draperies* edo “Oihalgintza Berria” praktikatu zuten zonak izan ziren: oihal tradizionalak baino artile eskasagoa erabiltzen zuten, artile hori gainera kardatu egiten zen (ez orraztu, maila garaiegoko ekoizpenetan bezala), eta lortzen ziren ehunak ia ez ziren bolatzen [*abatanar, to tuck*]; ondorioz, arinagoak eta merkeagoak ziren. Gainera erakargarriagoak gertatzen ziren bere kolore biziagoen ondorioz. Landa jatorria zuten eta badirudi Herbeheretan sortu zirela XV. mendearen amaiera aldera. XVI. mendean zehar, eskariak jasango dituen aldaketei esker, inposatzen joan ziren. Haien ekoizpen-punturik inportanteenak Herbeheretan (Lille, Hondschoote) eta Ingalaterran egongo ziren, eta nekazaritza arloko produkzio domestikoarekin lotuta egongo ziren, nagusiki. XVII. mendean, leku askotan jo zuen krisiarekin batera eta errentaren banaketa berriari esker, guztiz inposatu ziren, haien merketasuna zela eta.

Horren ondorioetako bat beste oihalgintza erdiguneen krisia izan zen: arrazoi ezberdinak zirela medio, Italia eta Gaztela bezalako herrialdeek ezin izan zuten bertako oihalgintzak egokitu eta haien merkatu tradizionalak *new draperies* delakoek konkistatu zituzten. Italiako kasua hiritar artisautzaren egokitze-ahalmen txikiarekin lotzen da: gremioen arauak zurruneziak ziren eta haien boterea handia; Gaztelako kasuan, gainera, fisko-presio hazkorraren kausa aipatu izan da. Hemendik aurrera, izan ere, gremio erakundeen garrantzia eta boterea, orokorrean, txikitzen joango da Europa guztian. Horri gehitu behar zaio Italiak edo Penintsulak jasan zituzten nekazaritza-krisialdiak oso inportanteak izan zirela, eta berreskurapen ekonomikoa zaildu zutela bertan gauzatu ziren populazio galera luze eta kopurutsuek, eta erreazio feudalaren bortitzak.

Ingalaterra izan zen, hortaz, XVII. mendearen azkeneko erdialdean, oihalgintza potentziarik inportanteena bihurtuko zena: badirudi hobeto aprobetxatu zuela bere

nekazaritza-oihagintzak eskaintzen zituen aukerak eta, gainera, estatuak politika protekzionista eraginkor bat bultzatu zuela; aipatu izan da, ordea, holandarren truke askerako joera erlatiboak ez ziola lagundu bertako oihagintzari ingeles ehunen erasoaren aurrean.

XVIII. mendea leku guztietan hazkunde mendea izan zen, nahiz eta XVII. mendeko krisia sakonagoa izan zen herrialdeetan hazkunde hori apalagoa izan. Merkatua berriz ere zabaldu zen, populazioaren ugaltzearen esker (hiritarra, batik bat), amerikar merkatuaren garrantzi handiagoari esker, eta populazioaren bizi-mailen igoera orokorrari esker (mendearen lehenengo erdialdean behintzat). XVIII. mendean aurreko joerak indartu ziren, hots, landa-industrien garrantzi geroz eta handiagoa (merkataritza-kapitalaren nagusigo argiago batekin), eta manufakturen presentzia ere nabarmenagoa bihurtu zen. Baina azpimarratu behar da ehungintza produktu tradizionalekin batera (artilea, lihoa, zeta) lehendik horren ezaguna ez zen eta kontsumo merkea hornituko zuen beste baten ekoizpena ugaltzen hasi zela: kotoizko ehunena. Merkeagoa izateaz gain (merkatuen zabalkuntza erraztu zuena), behin eta berriro garbi zitekeen zuntza zen, higiene arloan hobekuntzarik ekarriko zuena, aditu batzuen aburuz. Azkenik, ezin da ahaztu XVIII. mendean hasi zela Industri Iraultza Ingalaterran eta horrek bigarren sektorearen aldaketa sakona ekarri zuela. Produzitzeko bideen iraultza horren protagonistetako bat ehungintza izan zen, hurrengo gaietan ikusiko dugun bezala.

Industria astunaren alorrera joz, XV. mendeko berreskurapen ekonomikoak meatzaritzaren bultzada ekarri zuen ere, hala metalezko produktu batzuk behar zirelako (nekazaritza-hazkundera bultzatzeko eta industria belikorako), nola elkartruke bitartekoak lortzeko (hots, urrea edota zilarra eskuratzeko). Hala, meatzaritza berraktibatu zen, meategi berriak aurkitu eta esplotatu ziren, eta ustiapen teknika berriak garatu ziren. Erteuropan izan zen, Ameriketako metal preziatuak alde batera utzita, meatzaritza-erdigune geografikorik inportanteena: Palatinadoa (burdina), Turingia, Erzgebirge –Metal Mendiak, egungo Alemania eta Txekiaren artean–, Karpatoak (zilarra), Tirol (kobrea); Erteuropatik kanpo kontuan hartu beharko lirarteke Kornualles (eztainua), Tolfa (aluna, tindaketan erabiltzen zen aluminio-potasiozko sulfatoa –*alumbre*, *alum*–), Suedia, Errusia, Euskal Herria, Ingalaterra (burdina), etab.

Aplikatu ziren teknika berriak oso inportanteak izan ziren produkzioaren hazkundera bermatzeko, batez ere ura ateratzeko tekniken aldetik: lehenengo ur-bonbak erabiltzen hasi ziren, meategien uholde arazoak saihesteko. Beste asmakizun inportante bat, zilarra ekoizteko alegia, merkurio nahaspilaren metodoa izan zen [*método de la amalgama de mercurio*], zeinaren bitartez zilar-mea txikituta merkurioarekin nahasten baitzen hondakinak energia-gastu handiegirik gabe baztertze eta, ondorioz, kalitate ez hain puruko zilar-mea lantzeko aukera eman zuena, merkurio meategien esplotazioa beharrezkoa egiteaz gain (Almadén Espainian; Huancavélica Perun). Beste asmakizun batzuek zeharkako eraginak izan zituzten meatzaritzan, adibidez labe garaiaren erabilera, kalitate txikiagoko burdin meak ematen zituzten meategien esplotazioa baimendu zuena.

Asmakizunok, orokorrean, produkzioa eta langileko produktibitatea handitu zuten. Baina beste eragin bat ere izan zuten: meategien ustiakuntza konplikatu eta garestitu zen eta inbertsio handiagoak egitera behartu zuen, bereziki kapital finkoan. Ondorioz, Aro Berrian zehar geroz eta maizago aurkituko ditugu merkatariak sartuta meatzaritza arloan, aurretik nekazari edo meatzari txikiak praktikaturako lanbidea zen bitartean. Horren adibide on bat Fugger familiak eskaintzen digu: Erdi Aroan oihalgileak ziren, eta egoera horretatik oihal-merkatariak izatera igaro ziren; ondorez zetaren eta espezieen merkataritzara dedikatu ziren, Veneziatik, eta geroago banka lanetan arituko dira, erregeei eta agintariei maileguak eginez, eta horien truke lortuko zituzten Tiroleko kobre meategien kontzesioa (Europako kobre eskaintza menderatuko dute) eta Gaztelako Orden Militarren lurrena. Gainera kontuan hartu Europako eskualde gehientsuetan lur azpia erregearen monopolioa zela eta berak ematen zituela, erraztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, hura ustiatzeko eskubidea.

Sektore horretan aurkituko ditugun enpresak, geroz eta gehiago, handiak eta kontzentratuak izan ziren, beraz, inbertsio kostu handiak konpentsatu behar zituztelako, eta horrek ekarriko du, ondorio bezala, enpresa horiek bihurtuko direla enpresa kapitalisten aitzindari: langile soldatadunak erabiliko dituzte, lehenengo proletariotzat jo ditzakegunak; ezagutzen diren lehenengo greben adibide historikoak, greba hitzaren zentzu modernoan alegia, Aro Berriko meategietan piztu ziren.

Ez dirudi, edozein modutan ere, XVII. mendeko krisiak asko murriztu zuenik meatzaritza produkzioa, baina, jakina, pentsatzen da XVIII. mendeko nekazaritzaren eta populazioaren hazkunderik bultzaturik meatzaritza produkzioa ere nabarmen zabaldu egin zela, batez ere burdinari zegokionez. Zerbait nabarmentzearen, XVII. mendetik geroz eta gehiago ustiatuko den gai “berri” bat harrikatza izan zen. XVI. mendetik erabilia burdingintza lan batzuetarako eta lehendik ezaguna ere, orduan hasi zen hazten haren ustiaketa: hasiera batean batez ere berotzeko erregai bezala; geroago zeramikagintzan eta malta produkzioan eta, azkenik, burdingintzarako, XVIII. mendetik aurrera: siderurgiaren itomen teknologikoei eta deforestazioak ekarritako arazoei erantzuna suertatu zen, hein batean, harrikatzaren erabilera.

XVI. mendeko hazkunderik burdinaren produkzioaren ugaltzea ekarri zuen, eta horri erantzuteko (eta kostuak jaisteko) berrikuntza teknologiko batzuk hedatu ziren siderurgia arloan, batik bat labe garaiak, zeharkako sistemaren erabilera ekarri zuena, antzinatik ezagutzen eta erabiltzen zen sistema zuzenaren edo tradizionalaren aurrean. Labe garaietan tenperatura handiak lortzen zirenez burdin mea eraldatzeaz gain urtu egiten zen. Ateratzen zena burdina urtua edo kolatua zen, oso burdina zarpaila, gogorra baina, aldi berean, hauskorra, bere zurruntasuna dela medio: bigarren eraldaketa prozesu bat eraman behar zen aurrera burdina hori burdin geza bihurtzeko, hots, tresnen fabrikazioan erabiltzen zen burdin malgua. Burdin urtua, beraz, labe baxu edo burdinola tradizional batean landu behar zen ondoren, labe garaietan jasotako karbonoa murrizteko: bigarren lanketa horri fintzea deitzen zaio [*afinado, refining*]. Horregatik honi zeharkako sistema deitzen zaio, burdinoletan erabiltzen zen zuzeneko sistematik desberdintzeko: burdinoletan edo labe baxuetan burdin mea ez zen urtzera iristen, eta burdin geza zen emaitza, zenbait ordutan zehar luzatzen zen lanketaren ondoren.

Zeharkako sistemarekin ordura arte erabiltzen ez ziren burdin mea ugariago erabili ahal izan ziren; bestalde, burdina labe garaietan urtzen zenez, lan mota berriak egin ahal izan ziren burdin kolatua erabiliz, adibidez moldegintza lanak (kanoiak, balak, lapiko handiak...); gainera, labeak handiagoak zirenez produkzioa handitu zen, eta konplexu hauek langile gehiago erabili arren, lan-eskua aurreztu bide zuten, langileko produktibitatea haziz. Hala ere, labe garaiak erregai asko kontsumitzen zuten, handiagoak zirelako eta gehiago berotu behar zutelako, eta gainera bigarren lanketa bat egin behar zelako burdin geza lortzeko: ondorioz, basoen ustiakuntza handitu zuten. Izan ere, oso ohikoak izan ziren sistema horrekin funtzionatzen zuten enpresa “ibiltariak”, urte batzuk leku finko batean egon ondoren basoa agortu eta egur ikatza garesti bihurtzen hasten zenean lekualdatzen zirenak, esplotatu gabeko basoen bila. Ezartzeko kostuak, bestalde, burdinola tradizionalenak baino altuagoak ziren.

Horrek guztiak ez du esan nahi labe baxuak desagertu zirenik Europan: leku batzuetan burdina egiteko era tradizional hura luzaroan mantendu zen, arrazoi ezberdinengatik, Euskal Herriko kasuan bezala, baina normalean teknika tradizionalei lotutako eskualdeak garrantzia galtzen joan ziren burdinazko produktuen ekoizpen erdigune bezala: kostu txikiagoetan produzitzen zutenek merkatuaren zati handiagoak bereganatu zituzten; euskal siderurgiak, adibidez, atzerri merkatuak galdu zituen eta are bere merkatu tradizionaletan, Espainian eta Amerikan, zailtasunak izan zituen atzerritar burdinen sarrera oztopatzeko.

Izan ere, XVII. eta batik bat XVIII. mendean burdingintza zona berriak nabarmentzen hasi ziren Europan, adibidez Suedia eta Errusia, geroz eta burdina gehiago

esportatzen hasi zirenak; bertan basoak ugariagoak ziren eta, egur-ikatz, ondorioz, merkeagoa. Arazorik handiena, antza denez, erregaiarena izan zen; hori izan zen, adibidez, Ingalaterrako burdingintzari kalte gehiena egin ziona. Ingalaterran burdingintzaren hazkundearen ondorioz, baina baita beste jarduera batzuen ondorioz ere, badirudi Aro Berrian zehar basoen hedadura nahiko murriztu zela, erregaiaren kostuak igoz eta produktu bukatuen prezioak igoz. Merkatuengatik borroka areagotzen ari zen garai batean hori oso arriskutsua zen, batez ere baso eta burdina ugari eta hortaz merkea zuten herrialde horiek nazioarteko merkatuan agertu zirenean. Ingelesak ahalegindu ziren, hortaz, alternatiba bilatzen eta nahiko argi zegoen hura harrikitzaren erabileraren aldetik etorriko zela. Harrikitza, esan dugun bezala, beste erabilerara batzuk zituen jadanik XVII. mendean, baina arazoak zeuden burdingintzarako erregai bezala erabiltzeko: mearekin nahasterakoan oso kalitate eskaseko burdin landua ateratzen zen. Izan ere, arlo horren industrializazioa, ikusiko dugun bezala, harrikitzaren erabileraren zabalkuntzarekin lotuta egongo zen, XVIII. mendetik aurrera.

Itsasontzien eraikuntza ere industria inportantea bihurtu egin zen, hala basogintzatik, nola burdingintzatik (iltzeak), nola bestelako bigarren sektoreko jardueretatik (lihoaren ehungintza, sokagintza...) tiratzen baitzuen. Garai honetan eraikuntzaren hegemonia, XVI. mendera arte Mediterraneo aldeko eta Europa hegoaldeko herrialdeen lidergo teknologikoaren esku egon zena oro har (italiarrak, kataluniarrak, gaztelauak, portugaldarrak, euskaldunak...) Europako iparraldera lekualdatzen da, holandarren, britainiarren eta, neurri txikiagoan, frantsesen aldera, galeoi espainiarren dekadentziak erakutsiko lukeen bezala *fluyt* holandarren edo, gerra-ontzietz ari garela, lerro-ontziaren, fragataren edo korbetaren aurrean, Europako iparraldean garatu zirenak, handik zabaltzeko.

Garai honetan hasi zen, haatik, ekonomiaren mundializazioa edo globalizazioa, gaur ezagutzen dugun moduan: ekonomia gero eta nazioartekoagoa bihurtzen joan zen eta baita mundu mailakoa ere, hein batean behintzat, Amerika, Europa, Afrika eta Asiaren arteko merkataritza erlazioak estutzen joan ziren heinean. Baina bultzada hori ez zen soilik izan nazioarteko ekonomia batena: elkarrekin harremanetan jarri ziren espazioen arteko loturak ez ziren berdinen artekoak izan, mendekotasunezkoak baizik. Erdigune bat (Mendebaldeko Europa) eta Periferia bat (Amerika, Afrikako kostaldeak, Ekialdeko Europa...) eratzen joan ziren, eta gaur eguneraino iritsi den globalizazioaren lehenengo urratsak eman ziren. Urruneko merkataritzak rol garrantzitsua jokatu zuen prozesu horretan, baina ezin dugu ahaztu merkataritza horrek (gaur egun ez bezala) trukaturako produktuen oso ehuneko txikia barneratzen zuela, elkartruke gehienak tokiko mailan gauzatzen zirelako (%90a baino gehiago, kalkulu batzuen arabera, bost bat kilometroren erradio barruan): gogoan hartu nekazaritza-ekonomia tradizionalen autoaskitasunerako joeraz esan ditugunak, gai honetan eta aurrekoan.

Edonola ere, egia da mundializazio prozesuaren hastapenak aro honetan aurki daitezkeela. Hala, Amerika lehengaien esplotazio eta esportazio-gune bihurtu zen, behintzat espainiarrek XVI. mendean zehar konkistatutako lurraldeak, hots, Hego eta Ertamerikako zona batzuk, hiritarrenak eta antolatuenak alegia: horrekin, F. Braudel eta I. Wallerstein bezalako historialarien ustez, mundu-ekonomia [*economía-mundo, world-economy*] berriaren barneko lan-banaketa desberdinduari emango zitzaion hasiera. Amerikako kolonien produkzio nagusia, Aro Berrian eta batez ere hasiera batean, metal preziatuak izan ziren. Horretarako espainiarrei ezinbestekoa izan zitzairen lan-esku behartua erabiltzea, eta horretarako oso baliagarria izan zitzairen aurretik antolaketa maila altua zeukaten gizarteak menderatzea. Batzuetan, gainera, kolonizatzaileei nahikoa izan zitzairen gizarte horiek alde aurretik garaturako lan-sistemak erabiltzea, *mita incaica* delakoa bezala: Inka inperioarenak izandako lurretan erabilia, meategien inguruko indiar erkidegoei urtebeteko lan zerbitzuak egitera behartzen ziren mitak; indemnizazio txiki bat jasotzen zuten bidaia ordaintzeko eta elikatzen zitzairen, baina langileek oso bizi baldintza gogorak pairatzen zituzten (eta

zerbitzuak, edonola ere, zerikusi gutxi zeukan Inken garaietan zuen zentzu komunitarioarekin...). Horretaz gain *repartimiento* (erkidego indigenak bere partaideen zati bat hiru eta sei hilabeteren bitartean bidali behar zion, lan egiteko, espainiar buruzagi bati, soldata txiki baten truke, meategi batean adibidez) eta *encomienda* (horren arabera erkidego oso bat edo indigena kopuru bat espainiar jabe bati “enkomendatzen” zitzaion; indigenek berarentzat lan egin edo tributu bat ordaindu behar zioten; espainolak indigenak babesteko eta kristautzeko konpromisoa hartzen zuen) bezalako bideak erabili zituzten kolonizatzaileek.

Konkistaren hasieratik Penintsulara urre eta zilar kopuru handiak ailegatzen hasi ziren, ugariak eta lortzeko merkeak ziren heinean: hasiera batean batez ere urrea, gehiena harrapakinetatik lortutakoa (eta halaber Karibeko irletako ibaien ustiapenetik ateratakoa). Gero, XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, batez ere zilarra, meategi handien ustiapenetik lorturikoa: Mexikoko Zacatecas-ekoa eta Peru aldeko Potosí-koa (ustiategi horientzako, beharturiko lan-esku indigenaz aparte, oso inportantea izan zen merkurio nahaspilaren metodoaren garapena eta erabilera, gorago aipatu bezala). Hauek izango dira Amerikatik Europara esportatuko diren gairik garrantzitsuenak eta kopurutsuenak: XVI. mendean Amerikako esportazioen %80-90 inguru osatzen zuten. Metal preziatu kopuru handi horren ailegatzea Europak XVI. mendean bizi izan zuen inflazio handiaren (Prezioen Iraultzaren) eragiletzat jo zuten garaiko egile batzuek, eta egungo teoria monetaristaren oinarrietako bat da; ideia horiek garaiko builonismoarekin eta merkantilismoarekin lotu behar ditugu.

Horretaz gain, nekazaritza-abeltzaintza ekonomia “propio” bat garatzen joan zen Amerikan, *estancia* edo *rancho* delakoen inguruan, morroi motako lan-eskua erabiltzen zutenak eta pixkanaka kolonien auto-hornikuntza lortzen joan zirenak; horren helburu nagusia, azken finean, meatzaritza-ekonomia zerealez, haragiz eta bestelako elikagaiez hornitzea eta osatzea izan zen. Egitura horiek Latinoamerikako latifundismoaren sustraian egon ziren (kasu askotan gaur egunera arte iristen den latifundismoa, bide batez esanda).

Hala ere, metal preziatuekin batera beste produktu batzuk ere hasi ziren inportatzen Europara, hasiera batean oso portzentaje txikitian: “elikagai” autoktono exotiko batzuk (tabakoa, esaterako), margoak (Brasilgo makila, kotxinilla...), eta Mundu Zaharretik hara eramandako zenbait nekazaritza-produktuen emaitzak (kanaberatik ateratako azukrea bezalakoak); nahiko kontsumo mugatua zuten, gizarte-talde aberatsen baitakoa alegia, edo industria arlokoak. Horretaz gain, Amerika ere Europan egokitu ziren zenbait nekazaritza-produktuen iturburua izan zen, europar garapenarentzako garrantzi handia izan zutenak gainera: artoa eta patata batez ere, XVII. mendetik aurrera Europako eskualde batzuetan ezartzen eta landatzen hasi zirenak, bertako dieta aberastuz.

Amerika, gainera, europar produktuentzako merkatu bilakatzen hasi zen: europar artisautzarentzako eskari osagarri bat bihurtu ziren koloniak. Hala ere bere garrantzia, hasiera batean behintzat, ezin dugu soberetsi: europar produktu horiek, orokorrean, kolonoek kontsumitu zituzten, ez bertakoek. Kolono horiek, izan ere ez ziren asko hasiera batean: 100.000-200.000 inguru XVI. mendearen amaieran, kalkulu gehien arabera. Hasiera batean nekazaritza-produktuak bidali zitzaizkien (adibidez garia, abelburuak, olio, ardoa... horien inportazioa, ordea, gutxitzen joan zen koloniar nekazaritza-produkzioa berrantolatzen joan zen heinean), eta baita ehunak eta oihalak, armak, eta bestelako produktu manufakturatua ere. Azken eskari hori luzaroan mantendu zen, europar manufaktura jardueren onerako: metropoliek ez zuten normalean manufaktura koloniala bultzatu (maila batetik gora, behintzat); gehienetan, gainera, hura oztopatzen saiatu ziren, metropolietako eskulangintzaren mesedetan.

Trafiko garrantzitsu horren antolaketa Monarkia Hispanikoaren eskuetan geratu zen (zehazkiago, Gaztelako Koroarenetan), eta horretarako Sevilla erabili zen erdigune monopolistiko bezala: *Casa da Indiako* antzeko antolaketa batekin, Amerikarekin truketan aritzeko merkataritza matrikulatuen jarduera antolatzeaz (eta Koroarentzako zerga eta kuota

kopurutsuak kudeatzeaz) arduratzen zen Sevillako *Casa de Contratación* edo *Kontratetxea* delakoa. Amerikako kolonietarako trafikoa modu ezberdinetan antolatzen zen, baina 1561etik aurrera, itsaslapurren erasoen kalteak minimizatzeko, flota bakarraren sistema hasi zen hobesten, seguruagoa baina zurrun samarra gerta zitekeena: merkataritza horretan aritzen ziren galeoak ezin ziren solte eta nahierara abiatu, baizik eta Amerikara normalean joaten ziren bi ontzidietako batean (bat urtarrilean edo apirilean, eta beste bat abuztuan, baina data horiek oso teorikoak ziren eta aldaketa asko izaten zituzten), Sevillatik beti; бага Espainia Berrirantz zuzentzen zen (Mexikoko Veracruzera, gehienetan), eta bestea *Tierra Firme* delakora (Portobelo, gaur egungo Panaman edota Cartagena de Indiasera, Kolonbian), non feriak edo salerosketa-jarduerak gauzatzen baitziren. Ondoren, Amerikako produktuez kargaturik, flota biak La Habanan elkartzen ziren, eta Penintsularako itzulerari ekiten zioten, Sevillara (nahiz eta XVII. mendearen amaieratik, gero eta gehiago, Cadizen deskargatzeko baimena lortu zuten: Sevillaren monopolioa Cadizi eman zitzaion 1717tik aurrera). Garraio-sistema hau XVIII. mendea nahikoa aurreratua egon zen arte mantendu zen.

Baina trafiko horren onurak ez ziren bakarrik Espainian geratu: inportatutako metal preziatuen gehiengoa Europako beste erresuma eta lurraldeetara irten zen, XVI. eta XVII. mendeetan zehar espainiar monarkia aurrera bultzatzen saiatu zen politika inperialistari eusteko eta bere Penintsulako lurraldeek nozitu ohi zuten merkataritza-balantza negatiboa orekatzeko. Bestalde, Gaztela ez zen inoiz gai izan kolonietako produktu manufakturatuen eskari osoa asetzeko eta, hortaz, atzerriko produktuekin hornitu zen, nagusiki. Hots, XVI. mendean beste estatuak ezin ziren zuzenean trafiko horretaz aprobetxatu, baina zeharka hura menderatzea eta irabazi gehienak jasotzea lortu zuten. Eta XVII. mendetik aurrera, gainera, herrialde horiek zenbait base eskuratu zituzten Amerikan, eta bertako aberastasunen zati handiago bat bereganatu ahal izan zuten itsas-lapurgoaren, kontrabandoaren eta merkataritza zuzenaren bidez; bide horretan garrantzitsuak izan ziren, antza denez, espainiar itsas armadek izan zituzten zenbait porrot, nagusiki 1588ko Armada Garaiezinarena, eta holandarrek espainiar itsas-armadaren gain lortutako garaipena 1628an (Matanzas Badiako bataila).

Edonola ere, Europako ekonomiak jaso zituen ondorio orokor horiekin guztiekin batera ezin ditugu ahaztu Amerikak pairatu zituenak, batez ere zibilizazio konplexuenak garatu zituzten eskualdeetan: gizarte horien bilakaeraren haustura, kultura autoktonoen suntsipena, ekonomi eta lan-antolaketa eraldaketa eta, batik bat, jaitsiera demografiko izugarria. Katastrofe horren eragile bezala beti azpimarratu dira, alde batetik, konkistatzaileek eramandako germen patogenoen eta gaixotasunen eragin itzela, haien zat horren hilgarriak ez zirenak baina Mundu Zaharretik isolatuta bizi ziren Amerikako biztanleentzat guztiz suntsikorrak suertatu zirenak; bestetik, konkista militarrek berak eragindako sarraskiak; gainera, inbaditzaileek ezarritako lan-baldintzen gogortasuna, batez ere meatzaritzan; indigenen emankortasunean eragin negatiboa izango zukeen nolabaiteko guragabekeri orokor bat, derrotak eta gizartearen suntsipenak eragindakoa; eta indigenen lur erabileren haustura eta produkzio egituraren deuseztapena, batez ere europarrek inportatutako etxe-abereen eragin txarra izan zela medio, edo antzinako ureztapen sistemen hausturaren ondorioz, leku batzuetan gosea agerrarazi zuena. Izan ere, A.W. Crosby historialariak azpimarratzen duen bezala, eta gorago ohartarazi dugun bezala, Amerikako konkista ekologikoa izan zen: europarrek beren neurritan antolatutako gune ekologikoak (hein batean, “europa berriak”) ezarri zituzten Kontinente Berrian, Zaharretik, borondatez edo nahi gabe, ekarritako germen, animalia eta landare espeziei esker.

XVI. mendean, esan bezala, Espainiako monarkia izan zen Amerika ezagunaren gehiengoa konkistatu zuena. Portugalek, hala ere, lortu zuen bere zatia ere: Aitasantutzak Europaz kanpoko mundua Espainiako eta Portugalgo monarkien artean banatu zuen Tordesillasko Itunaren bidez (1494), zeinaren arabera itsasoan marraztutako balizko lerro batek banatzen baitzuen koroa bien eragin-eremuak, Cabo Verde-ko irletatik 370 legoa mendebaldera: ekialdeko zatia portugaldarren eraginpean geratzen zen, eta mendebaldea

monarkia hispanikoaren menpe; Brasileko ekialdeko “muturra” marra horren ekialdera geratu zenez, portugaldarrek Ameriketako kolonia bat izateko eskubidea lortu zuten. Hala ere portugaldarrek ez zuten aurrera eraman, hasiera batean, espainiarren antzeko kolonizazioa bat: ez zuten topatu ez urrerik, ez zilarrik, ez zibilizazio indigena konplexurik, lan-esku ugaria eskainiko zienik, eta bertan Asiarantz bidaiatzen ziren ontzientzako base batzuk ezartzearekin nahikoa izan zuten; XVII. mendetik aurrera beste garrantzi bat lortuko dute baina kolonia horiek.

Gainontzeko monarkia europarrek ez zuten, jakina, aita santuaren erabakia onartu eta ahaleginak egin zituzten penintsularren pausoak jarraitzeko. Gorago ikusi dugun bezala, Amerikako eta batez ere Ipar Amerikako kostaldeak esploratzen saiatu ziren, beraz, eta XVI. mendearen hasieran espedizio ezberdinak bidali zituzten; nagusienak J. Cabott-ena (1497, ingelesek antolatua) eta G. de Verrazano eta J. Cartier-ena (frantsesek bultzatutakoak 1524 eta 1534ean, hurrenez hurren). Ahalegin horien ondorioz, ordea, ez zen itxuraz lurralde aberatsik aurkitu, hots, ez espeziarik, ez urrerik, ez zibilizazio oparorik, eta XVII. mendera arte abandonatu zuten hedakuntza-bide hori, salbu eta bakailaoaren eta balearen harrapaketa gisa, Ternua inguruan (non, hala ere, euskaldunak izan baitziren nagusi XVI. mendean).

Amerikako “aurkikuntzarekin” batera, edonola ere, beste gertakari inportante bat gauzatu zen XVI. mendean: Europatik Asiako itsasbide zuzenaren aurkikuntza. Europarrak beti egon izan ziren kontaktuan Asiarekin; Erdi Aroan zehar, musulmanen bitartez, Mediterraneo Itsasoa zela medio. Baina kontaktu hori XVI. mendetik aurrera estutuko da, Afrika inguratzen zuen itsasbide zuzenaren ezarpenaren ondorioz, eta batez ere frogatu zenean Kolonek proposatutako mendebaldeko bidea, Amerikaren “aurkikuntzara” eraman zuena, luzeegia suertatzen zela Asiaratik iristeko.

Lan hori portugaldarrek bete zuten, eta haien nahi nagusia bertako espeziak eta bestelako luxuzko produktuak ziren. 1498an lortu zen helburua, Vasco da Gamaren bidaiaren bitartez. XVI. mendean portugaldarrek itsasbide hura finkatu, Afrika inguruan portu edo faktoria batzuk fundatu eta merkataritza musulmanen monopolioa hautsi zuten, Ormuz konkistatu ondoren 1507an (Pertsiar golkoaren sarrera, alegia). Portugaldarrek lurralde batzuk (portuak, gehienbat) bereganatu zituzten (Goa, Malaka, Ormuz bera...), beste batzuk bere erregearen babespean jarri zituzten itunen bidez (Kotxin –egungo Indiaren mendebaldean–, Zeilan...), eta beste batzuekin merkataritza-harreman finkoak ezarri zituzten (Bijainagar –egungo Indiaren iparmendebaldean–, Sumatra...). Txinarekin (Makao, 1557) eta Japoniarekin elkartrukean aritzera iritsi ziren. Edozein kasutan ez zuten aurrera eraman amerikar motako kolonizazioa bat, merkataritza-hedakuntza bat baizik.

Portugal eta Asia arteko espezien merkataritza monarkiaren monopolioa zen, eta horretarako estatuak Lisboako *Casa da India* erakundea sortu zuten; beste negozioetarako askatasun gehiago zuten portugaldar merkatariek. Negozio horien artean geroz eta maizago praktikatu zuten asiar herrialde ezberdinen arteko merkataritza. Ez da harriztekoa portugaldarrek lehenengo eta, geroago, gainontzeko europarrek, trafiko horretatik bertako beste merkataritza baztertzen saiatu izana (musulmanak, indiarrak, txinatarrak...), europar ontziteriaren indar beliko handiagotzat baliaturik. Izan ere, Europa eta Asia arteko trafikoa *defizitarioa* zen europarrentzako, asiarrei ez baitzitzaien interesatzen European produzitzen ziren gai gehienak, eta ordainketa gisa nagusiki urrea eta zilarra eskatzen zuten. Beste hitz batzuetan esateko, Europa eta Asia arteko merkataritza-balantza orokorra negatiboa zela esan daiteke. Horregatik ez da harriztekoa europarrak trafiko inter-asiatikoa sartzeko saiatzea, beren galeren zati bat kitatzeko helburuarekin. Joera hori, anglosaxoiar historialariek *country-trade* deitzen dutena, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar areagotu zen. Portugalen eskuetatik kanpo geratzen zen Asia eta Europa arteko merkataritzaren zati bakarra *Manilako Galeoia* izenekoak egiten zuten: 1565etik, Urdanetak ezarritako itsas-bidetik, galeoi bat edo bik urtean behin harremanetan jartzen zuten Manila, espainiarrek menderatutako Filipinetan, Mexikoko Akapulkoarekin: Manilatik, zer esanik ez, luxuzko

produktu asiarrak igortzen ziren (bizigarriak, laka, luxuzko ehunak, portzelana...), eta haietako askok, Akapulko ukitu ondoren, Veracruzetik ateratzen ziren Penintsularantz, Indietako Flotaren itzulerako bidaian; Akapulkok, trukean, zilar mexikarra bidaltzen zuen ordainketa gisa, ia eskusiboki, Filipinetara. Itsas-bide horrek XIX. mendearen hasierara arte iraun zuen, Mexiko independizatu arte alegia.

XVI. mendaren bukaera aldetik eta, batez ere, XVII.aren hasieratik aldaketa nabarmenak gertatzen hasi ziren gorago zirriborratutako panorama horretan. Armada Garaitezinaren derrotaren ostean (1588) nabarmentzen hasitako Monarkia Hispanikoaren itsaso alorreko ahulezia militar gorakorra izan zen kontuan hartu behar den lehenengo faktorea: horren ondorioz beste europar potentziek ahalegin serioagoak egin zituzten amerikar merkatuan parte hartze zuzenago bat eskuratzeko. Horrela, Amerikako lurralde batzuk bereganatzen hasi ziren, hala aurreko mendean esploratutako Ipar Amerikako ekialdeko kostaldeetan (1607an ingelesak Virginia kolonizatzen hasi ziren, 1608an frantsesak Quebec eta 1609an holandarrek Amsterdam Berria, gero New York; ondoren, 1620an, Ingalaterra Berria bereganatu zuten ingelesek, eta 1632an Maryland, guztiak populamendu koloniak bihurtu zirenak, denborarekin), nola espainiarrenak izandako Karibe aldeko zenbait irla eta lurraldeetan (ingelesek Barbados bereganatu zuten 1627an eta Jamaika 1655ean; frantsesek Santo Domingo 1659an; holandarrek Brasilgo zati bat 1624an, Curaçao 1634an eta Surinam 1636an; horiek guztiak ustiapenerako koloniak bilakatu ziren, ez populamenduzkoak). Kontinentean apenas sartu ziren, zuzenean, espainiarren eta portugaldarren defentsa-boterea finkoagoa zelako han (holandarrek Brasilgo zati bat kontrolatu zuten 1630 inguruan, baina 1654ean bertatik egotziak izan ziren; frantsesak, holandarrek eta ingelesak ezartzea lortu zuten Hego Amerikako espazio bakarra, esan bezala, Guyanako kostala izan zen, Karibe aldean). Kolonia europar berri horiek, halere, bi ondorio nagusi izan zituzten, orokorki: alde batetik, itsas-lapurgorako eta kontrabandorako oinarri ezin hobeak eskaini zituzten potentzia haiei, are gehiago kontuan hartuta XVII. mendeko espainiar guda-ontziteriaren ahulezia. Eta, beste alde batetik, kolonia horiei probetxua ateratzen nahian, eta bertan metal preziaturik ez zegoenez jada, europarrak nekazaritza bultzatzen hasi ziren, plantazio ekonomiak sortaraziz, batez ere XVII. mendearen bigarren erdialdean. Hasiera batean plantazioak ingelesek, frantziarren eta holandarren kolonietan zabaldu ziren (Antilletan); geroago portugaldarrek (Brasilen) eta espainiarrek (Karibe aldeko kostaldean) bultzatu zituzten, nahiz eta horien aitzindariak portugaldarrek XV. mendetik Cabo Verde bezalako artxipelagoetan bultzatutako esperientziak izan. Plantazioetan esportaziorako zenbait landare mota “exotiko” ustiatzen ziren, tankera tropikaleko klimetara ondo egokitzen zirenak, hala Mundu Zaharretik ekarritakoak nola autoktonoak. Hasiera batean tabakoa eta azukrea landu ziren, nagusiki.

Lan-esku ugariaren premia zuten plantazioek, eta hori arazo bat zen, Karibe aldeko indigena gehienak aspaldi izan zirelako suntsituak. Metropolitako langile libre zurien ekarrierak egin ziren arren, eta baita zorrez jositako sasi-morroienak ere (zeinak zorra kitzatzen baitzuten plantazioetan hainbat urtetako lana egin ostean), bide horiek ez ziren inoiz nahikoak izan; konponbiderik erabiliena, ondorioz, esklabo afrikarren harrapaketa eta “inportazioa” izan zen. Afrika, horrela, europar mundu-ekonomian *sarrarazia* izan zen, eta haren rola lan-eskuaren birsorkuntzara mugatuta geratu zen.

Trafiko hori XV. mendean hasi zen jadanik; ordura arte batez ere merkataritza musulmanen eskuetan zegoen, eta eskala txikian praktikatzen zuten, gehienetan lurreko bideetatik. Portugaldarrek Afrikako kostaldea ikertzen joan ziren heinean, ordea, musulmanak ordezkatzeko joan ziren, hots, esklaboak harrapatuz edota bertakoei erosiz, hasiera batean Portugalera eramateko eta ondoren Atlantikoan bereganatu zituzten irltako lehenengo plantazioetan (batez ere azukre-plantazioetan) erabiltzeko.

Esklaboen merkataritza XVI. mendean areagotu zen Amerikako konkistaren ondorioz: meatzaritza lanetan geroz eta urriagoak ziren indigenak ordezkatzeko, batik batik; despopulaketarik bizkorrenak Karibe aldean gertatu zirenez gero, hara izan ziren eramanak,

gehienbat. Portugaldarrak izan ziren trafiko horretaz arduratu zirenak, hasiera batean behintzat; espainiarren partehartzea, XIX. mendera arte, oso txikia izan zen eta ia beti beste herrialdeetako merkatarien eskuetan utzi zuten, *asiento* izeneko kontratuen bitartez. Arrazoa bikoitza zen: alde batetik, Tordesillasko itunaren ondorioz, hasieran Afrika portugaldarren eraginpean geratu zelako; gainera kontuan hartu behar dugu 1580tik 1640ra arte Espainiak eta Portugalek bat egin zutela, Monarkia Hispanikoaren baitan, Filipe II, Filipe III eta Filipe IV.aren pean. Bestetik, XVII. mendean *beltzen asientoa* geroz eta gehiago beste europar potentzien eskuetan utzi behar izan zen, espainiar ahulezia komertzialaren eta politikoaren ondorioz.

Plantazio ekonomia zabaldu zenean, XVII. mendean, lan-esku premia erabat areagotu zen, eta esklabo-trafikoaren eskala zabaldu egin zen. Europar potentziaiek faktoriak eta merkataritza-portuak ezarri zituzten Afrikako kostaldeetan, batez ere Mendebaldekoan. Abiapuntu horietatik esklaboen harrapaketa eta trafikoa zuzentzen zuten, Afrikara trukean kristala, bitxikeriak, armak, oihalak, eta balio gutxiko manufakturak esportatuz, batik bat.

Horren ondorioz uste da Afrikako bilakaera demografikoak geldialdi bat jasan zuela (nahiz eta ez dagoen akordiorik horren inguruko dimentsioan), batez ere kostaldetik gertu bizi ziren herrietan. Ez soilik eraman zuten jendeak ekarri zuen galera absolutuen aldetik; kontuan hartu behar da europarren eskaria zela eta bahitzen zituzten indigenak adin gazteetakoak zirela, batez ere, eta hortaz emankortasun galerak gertatu zirela, Afrika Beltzean orokorki, trafiko horren ondorioz. Esklaboak erabiltzen ziren jarduera ekonomikoen hazkundeak esklabo gehiago harrapatzera eta esportatzera eraman zuen eta, gainera, kontuan hartu behar dugu itsasbideko hilkortasuna izugarria zela (%30 eta %10 bitartekoa bidaia bakoitzean) eta esklabo giltzapetuen bizitza-itzaropena eta ugaltze-mailak, Amerikan, oso baxuak. Afrikan bertan trafikoak migrazio mugimenduak ere bultzatu zituela pentsa daiteke. Bestalde, Afrikako zenbait gizarte eta herrien garapen autonomoen geldiduna eta suntsiketa ekarri zuen trafikoak: herri osoak giltzapetuak izan ziren eta beste herri batzuek beren jarduera ekonomikoa esklaboen harrapaketara zuzendu zuten, haien ekonomi ekintzarik nagusia bihurtuz. Eta hori guztia europarren aldeko konkista zuzenik gabe: merkatarien ordezkariak faktoretatik negoziatzen zuten esklaboen harrapaketa xede zuten estatu indigenekin, eta oso gutxitan arduratzen ziren zuzenean giza ehiza hartaz. Hala, esklaboen hornikuntza geroz eta handiagoak posible egin zuen plantazio ekonomien zabalkuntza eta indarketa XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, eta, ondorioz, produktu “exotiko” gehiago eta merkeagoak produzitzea eta Europarantz esportatzea: azukrea (nagusia beti, garai honetan), tabakoa, kafea, kakaoa, zenbait margo mota...

Izan ere, XVII. mendean *merkataritza trianguluar edo birukoitz* bat antolatu zen, Europa, Afrika eta Amerikako hiru erpinen artean (*merkataritza hirukia, triangular trade*): Liverpool edo Bordele bezalako hirietako merkataritza-enpresa batzuk Europa-Afrika-Amerika itsasbidean espezializatu ziren. Lehenengoak produktu manufaturatuak ekoiztu (hots, balio erantsi handiagoko salkariak) eta beste bi erpinetara esportatzen zituen, batez ere Afrikara; Afrikak lan-eskua “produzitu” eta “birsortzen” zuen, aipatu ondorio demografiko sakonekin; eta Amerikak, balio handiko produktuak inportatzeaz gain, lehengaiak eta nekazaritza-produktu merkeak esportatzen zituen. Eskema hori luzaroan mantendu zen eta amerikar historiaren ezaugarri ekonomiko asko azaltzen ditu. Aldi berean, europar merkataritza-burgesiaren aberaste-iturri inportanteenetako bat bilakatu zen: esklaboen trafikoa, amerikar salkarien produkzioa eta inportazioa, europar artisautza produktuen esportazioak ekarri zituzten mozkinak alde batera utzi gabe. Garai honetan burgesiak klase bezala bizi izan zuen garapena eta igoera ezin dugu ulertu alderdi horiek kontuan hartu gabe.

XVII. mendea, bestalde, aldaketakoa izan zen Asiako trafikoari zegokionean. Portugaldar “inperioa”, 1580tik Espainiako monarkiarekin bat eginda, gainbeheran sartu zen eta indartzen ari ziren beste zenbait nazioek haren lekua hartu zuten Asiarekiko trafikoan. Portugaldarrak baztertu zituen itsas armada holandarra izan zen batik bat. Horretarako borrokatu behar izan zuen portugaldarrekin: XVII. mendearen lehenengo erdialdean zehar

portugaldarren faktoria eta eragin-zona gehienak bereganatu zituzten holandarrek: 1622an Ormuz erori zen, eta hurrengo urteetan Zeilan eta Indonesiako kostaldeak. Holandarrek, halaber, espezien trafikoaren gaineko kontrola areagotu zuten, ordura arteko bide bikoitzaren eskemarekin (Afrika inguratzen zuena eta Mediterraneo aldekoa) bukatuz. Holandar nagusigoa azaltzeko unean nabigazio arloan lortutako aurrerapenak hartzen dituzte kontuan historialariek, batez ere ontzigintza arloan, *fluytship* delako itsasontzia zela medio: karga handiagoak eta tripulazio txikiagoak eramateko gai zen, kostu-aurrezpen nabarmenak ekartzen zituena. Dena dela, gaur egun bereziki azpimarratzen da, holandarren garaipen hura azaltzen dituzten faktoreen artean haien merkataritza enpresen antolakuntza hobea. Izan ere, abentura hura aurrera eramateko, trafikoa eta itsasbideen kontrola estatu monopolio bati eman beharrean (*Casa da Indiaren* edo Sevillako Kontratetxearen kasuan gertatzen zen bezala), estatuaren babespean geratu zen merkataritza-konpainia pribatu bati eman zitzaien, VOC delakoari alegia (*Vereenigde Oost-Indische Compagnie*, 1602an fundatua). VOC-i Asiarekiko trafikoaren monopolioa eman zion Probintzia Batuen gobernuak, eta haren berrikuntza nagusia zen jatorri ezberdinetako kapital ugari batzen zuela, hots, akzio konpainia bat zen, eta horrela merkataritza askoren kapitalak fondo komun batean (*joint-stock*) biltzen ziren, politika komertzial bateratu bat jarraitzeko asmoz; kapital hori akzio negoziagarrietan zatiturik zegoen, hurrengo mendeetako enpresa kapitalista askok erabiliko duten ereduaren aitzindari izan zelarik. Eredu hori, ikerlari askoren arabera, malguagoa eta eraginkorragoa (etekingarriagoa) suertatu zen monarkia hispanikoei sustatutako estatu-monopolioarena baino, zeinaren baitan aritzen baitziren, muga askorekin, behin eta berriro sortzen, eratzen eta desegiten ziren merkataritza konpainia txikiagoak (kapital gutxiagokoak, beraz, eta merkataritza-estrategia ez horren sendo eta jarraituen jabe...).

Oso laster eredu hori Europako beste potentziek imitatu zuten beren merkataritza-konpainien sorreran: Holandan ere WIC sortu zen (*West-Indische Compagnie*), Sartaldeko Indiek aritzeko (1621); Ingalaterran 1600ean sortu baina 1672an berriro zen, eredu holandarrari jarraituz, Sortaldeko Indietako Konpainia boteretsua; Danimarkako Sortaldeko Indietako Konpainia 1616an fundatu zuen Kristian IV. erregeak; Frantziako Sortaldeko Indietako Konpainia 1664ean sortu zen Colbert ministroaren eskutik; austriarrek Ostendeko Konpainia sortu zuten 1717an, etab. (hemengo Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarrak, XVIII. mendean sortuak, eredu horri jarraitzen zion, adibidez).

Hori guztia alde batera utzita, XVII. mendearen bigarren erdialdean gauzatutako aldaketak ez ziren oso sakonak izan: Asiarekiko trafikoak defizitduna izaten jarraitzen zuen, funtsean, eta *country-trade* delakoa areagotu zen europarren itsasontzi eta armamentu nagusigoaren zela medio. Bestalde, azpimarratzekoa da ingelesen sarrera geroz eta nabarmenagoa, Sortaldeko Indietako Konpainia ingelesaren bitartez, holandarrak pixkanaka baztertzuz; daniarren presentzia ere aipatzeko beste datu bat litzateke. Europara inportatzen ziren produktu multzoaren osaketan ere aldaketak nabarmentzen ari ziren: espezien portzentajea jaisten joan zen, nahiz eta nagusia izaten jarraitu, eta beste gai batzuk geroz eta kopuru handiagoetan agertzen hasi ziren, hala nola ehunak (batez ere kotoizkoak), eta, kopuru txikiagoetan, tea, Txinako portzelana edo kobrea. Dibertsifikazio hori espezien merkatuaren nolabaiteko saturazio baten eta prezioen jaitsiera orokorraren ondorio izan zen.

XVIII. mendean aurreko joeren jarraipena gertatu zen Amerika kolonialari eta Afrikari dagokienez: bi gune horien eta Europaren arteko merkataritza eta mendekotasun harremanak estutu egin ziren Argien Mendean zehar. Izan ere, garai horretan Amerikako populazioaren hazkunde nabarmena izan zen, jaitsiera eta geldiene mende biren ondoren. Bestalde, metal preziatuen esplotazioa eta esportazioa mantendu eta, kasu batzuetan, areagotu zen, batez ere Brasilgo urre-meategien aurkikuntzaren ondorioz, eskualde horren garrantzia ekonomikoa handituz. Edonola ere, garai horretako fenomenorik ikusgarriena plantazio ekonomiaren zabalkuntza edo *booma* izan zen: plantazio kopurua biderkatu zen eta esportazioa hazi zen, baita espainiar kolonietan eta Ipar Amerikako hegoaldean ere, ordura arte plantazio asko izan ez zituztenak; Ipar Amerikako britainiar kolonien hegoaldean

hasiera batean tabako plantazioak ezarri ziren batik bat, baina ondoren, Ingalaterrako Industri Iraultzaren bultzadaz, kotoizkoak bihurtu ziren nagusi.

Horrek guztiak esklabo trafikoaren areagotzea ekarri zuen: kalkulatzen da XVIII. mendean zehar Amerikara 6.000.000 esklabo inguru eramán zirela (Antilletara %53a, Brasilerá %31a, Espainiar Amerikara %10a, eta Ipar Amerikara %6a, gutxi gora-behera). XVIII. mendean ingelesek menderatu zuten trafiko hori; haien ondoren portugaldarrak zeuden eta nabarmentzekoa da frantziarren parte hartze gero eta handiagoa. Hala ere, European trafiko horri egin zitzaizkion kritikak gero eta zorrotzagoak bihurtu ziren, eta areagotzen joan ziren, hala ilustratuen aldetik nola talde erlijioso berezi batzuen aldetik (adibidez, kuakeroen sekta protestanteko partaideenak).

Beste aldaketa bat izan zen Monarkia Hispanikoak lortu zuela bere amerikar merkatua hobeto kontrolatzea aurreko mendean baino, errege borboitarrek aurrera eramán zituzten neurri ezberdinak zirela medio, maila militar eta administratiboan alegia; hala ere, oso inportantea izaten jarraitu zuen atzerritarren eta batez ere ingelesten parte hartzeak espainiar koloniekiko merkataritzan.

Garaiko beste ezaugarri bat, iradoki bezala, Iparraldeko kolonia ingelesten garapena izan zen, lurralde horien populazio eta ekonomi hazkundera islatu zena. Bilakaera horrek XVII. mendeko kolonizazioan zituen sustraiak, baina XVIII. ean argiki areagotu zen. Nekazaritza-ekonomia oparo baten garapenean oinarritu zen, lur sail handiak bereganatu zituzten nekazarien familia independenteen (hots, lur jabeen) gizarte nagusigo batekin eta, orobat, “industri” jarduera batzuen garapen goiztiarrarekin, batez ere egurrarekin erlazionatutako jardueretan (itsas untzigintza, adibidez). Inportantea da gogoan hartzea koloniakuntza horren eta Amerikako beste eskualde batzuetan emandakoaren arteko desberdintasuna: kolonoen helburua, Ipar Amerikako koloniakuntzan, ez zen lur haietan aurki zitezkeen aberastasunez eta pertsoenez jabetzea, iberiarrek egin zuten bezala. Ingalaterratik Ipar Amerikara jo zuten kolonoek (*pilgrim* delakoek) gizarte berri eta “berdinago” bat eraiki nahi zuten, European ezagutzen zutenaren desberdina; *de facto*, horietako asko disidente erlijiosoak ziren, familiekin abiatu zirenak haien utopia erlijiosoa eraikitzeko asmoz. Lan egitera zihoazen, nekazari edo profesional autonomoak eta lur jabeak izatera alegia (Europa feudalean izan ezin zutena hain zuzen ere; gogoratu, bestalde, nekazari txikiaren egoera gero eta zailagoa bihurtuz joan zela XVII. eta XVIII. mendeko Britainia Handian), eta horrek ekarri zuen ezartzen ziren lekuen inguruko indigenen bazterketa eta suntsipena, horrela bakarrik jabetu baitzitezkeen inguruko nekazaritzarako lur “libre” oparoez¹¹. Mestizaiaren arloan gertatutako desberdintasunak, alde horretatik, oso esanguratsuak izan ziren: Hego Amerikan eta Ertamerikan, hots, espainiarrek menderatutako lurraldeetan oso ohikoa izan zen bitartean, apenas gertatu zen mestizaiarik Ipar Amerikan. Eduardo Galeanok azpimarratzen zuen bezala, Latino Amerikaren zoritxarra aberatsegia izatea izan zen; Ipar Amerika, printzipioz “pobreagoa”, populamendu kolonia bat bihurtu zen, bertara nekazari independente bezala lan egitera zihoazen kolonoek osatutako gizarte berri bat, eta hori izan zen haren garapen ekonomikoaren zutabeetako bat. Latino Amerikan, ordea, kolonizazio iberiarrak ezarritako aberastasun-diferentzia handiak, garapenerako oztopo izan ziren etorkizunera begira.

Izan ere, XVIII. mendean gero eta argiago geratu zen Amerikaren garrantzia handiagotu zela merkatu bezala, batez ere ingeles eta frantziar produktu manufakturatuentzako: potentzia bi horiek, haien merkatu kolonialak ondo babestuak edukitzeaz gain (neurri merkantilista eraginkorren bitartez), zuzeneko eta zeharkako parte hartze nabarmena zeukaten, esan bezala, espainiar kolonien trafikoan. Garai horretan zehar,

¹¹ Geroago Ipar Amerikako Estatu Batuak bihurtuko diren ekialdeko eta ipar ekialdeko lurraldeez ari gara, zer esanik ez. Hegoaldeko kolonietako ekonomiak (Florida, Georgia, Luisiana etab.) aristokratikoagoak ziren, eta zer ikusi gehiago zeukan Karibealdeko beste plantazio-guneetakoarekin, iparraldeko kolonienekin baino

gainera, merkataritza triangeluarraren sakontzea gertatu zen, eta horrekin lotuta zeuden merkataritza-enpresen irabazien hazkunde nabarmena.

XVIII. mendean, bestalde, nabarmen areagotu zen ingelesen eta frantziarren parte hartzea Asiako trafikoa. Ingelesak, aipatu bezala, holandarrak zokoratzea lortu zuten, eta frantsesekin lehia bizian aritu ziren, ez gutxitan armen bitartez. Edonola ere, Asiarekiko harreman komertzialen izaeraren muina apenas aldatu zen: merkataritza horrek funtsean defizitarioa izaten jarraitu zuen europarrentzat; horregatik sakondu zuten europarrek haien parte hartzea Asiako eskualde ezberdinen arteko trafikoa (*country trade* delakoan). Hala ere, aldaketa xumeak gertatzen hasi ziren harreman horietan: izan ere, mende horretan hasi zen Indiako konkista, Sortaldeko Indietako Konpainia ingelesak burutzen hasi zena. 1708an Indiako azpikontinentea menderatzen zuen Mogol Inperioaren boterearen azken aztarnak desegin ziren, eta ingelesak ahultasun horretaz baliatuko dira lurren kontrol geroz eta zabalago bat eskuratzeko, ez bakarrik merkataritzaren aldetik, baizik eta baita maila politikoan ere. XVII. mendetik kostaldeko zuitate inportanteak menperatzen zituzten (Madras 1639tik, Mumbai 1661tik, Kalkuta 1696tik), eta XVIII. mendean zehar barnealderantz sartzen joan ziren; frantsesek ere beren saialdia egin zuten, Txandernagor eta Ponditxery bezalako hiriak kontrolatuz, baina Indian zituzten posesio gehienak galdu zituzten ingelesen kontrako gudetan (batez ere Zazpi Urteko Gerraren ondoren, 1756-63). Ingelesak geroz eta produktu gehiago lortu zituzten Indian eta inguruan: kotoia (Surat-en), kotoizko ehunak edo *kalikoak* (Mumbai, Bengala), espeziak (Malabarko kostaldean, Indiako hego mendebaldean), opioa, azukrea (Bengala), kafea (Arabia), bizigarriak, arroza, eztainua (Indonesia), portzelana (Txina), tea (Zeilan)... hau da, Asiatik Europara inportatzen ziren produktuen aniztasuna handituz joan zen. Asia, eta batez ere Txina, merkatu nahiko itxiak suertatu ziren europar produktuentzat, nahiz eta Indiak, denborarekin, garrantzia irabazi zuen ingeles salkarientzat kontsumo-merkatu bezala, Industri Iraultzaren testuinguruan eta batik bat XIX. mendean gertatuko den zerbait, batik bat.

Nazioarteko merkataritzaz esan dugun guztiak, ordea, ez du ezkutatu behar, gorago aipatu dugun bezala, elkartruke gehien-gehienak, European, lekuko mailan gauzatzen zirela, oso kilometro gutxiren baitan, eta tokiko merkataritza horrek ere, ozeanoen artekoak bezala, hazkunde nabarmena jasan zuela XVI. eta XVIII. mendeen artean, gai honetako artisautza landatarreko atalean ikusi ahal izan dugun bezala. P. Kriedtek gogorarazten zigun bezala, feudalismo berantiarreko familiek batik bat erabilera balioak produzitzen jarraitzen zuten arren, gero eta truke balio ugariagoak ekoiztu zituzten Aro Berrian zehar, Europak kontrolatzen zituen merkataritza-bide gero eta luzeagoen eta konplexuagoen zehar zabaltzen zirenak. Horren adibide bikaina eskaintzen digu Baltiko itsasoa eta Mendebaldeko Europa lotzen zituen itsasbideak, zeinetatik jada Erdi Arotik salgai astunen trafiko bat zuzentzen baitzen (zerealak, arraina, larruak, egurra...), mendeotan zehar indartzen jarraitu zena. Produktu horiek merkataritza kapitalismoaren hiri-erdigunean egiten zuten topo hegoaldeetik zetozen produktuekin (luxuzkoagoak oro har: espeziak, italiar ehunak, ardoa, gatza, artilea...) eta, gero eta gehiago, amerikar jatorriko produktuekin (urrea, zilarra, plantazio ekonomien emaitzak: azukrea, tabakoa, kafea, kakao...). Merkataritza kapitalismo horren erdiguneak Anberes (XVI. mendean), Amsterdam (XVII. mendean) eta Londres (XVIII. ean) izan ziren, hurrenez hurren, baina baita bigarren mailako merkataritza hiri gehiago ere: Sevilla, Cadiz, Lisboa, Nantes, Bordele, Bristol, Liverpool, Ostende, Hanburgo.... Baina beti izan behar dugu oso presente, merkataritza horren distira oso handia izan arren, dokumentazio itzela eta, ondorioz, hari buruzko informazio asko dugun arren, eta bertan parte hartzen zuten merkatarientzat kapital metaketarako iturri izugarria izan zen arren, salerosketa guztien gehiengoa (agian %90 inguru) apenas egiten zela 5-10 kilometroko erradioan, hots, landa mailako merkatu eta azoketan, zeinei, batez ere XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, denda finkoa gehituko baitzitzaien, batez ere hirietan eta herri handietan ("*ultramarios*"). Agian elkartruke ikusgarrienak merkataritza *handiarenak* ziren,

baina eguneroko bizitzarako garrantzitsuenak, ez bairik gabe, hurbilekoak ziren, hots, trukerako balioak baino, erabilera balioak ekoizten zituztenen artekoak; testuinguru horretan irabaziak edo etekinak ezin ziren gehiegizkoak izan, parte hartzaileek balioaren katearen osagaien ezagutza zuzenagoa (eta egunerokoa) zeukaten neurrian.

Edonola ere, onartu beharra dago urruneko merkataritzaren eta kolonialismo berriaren eragina erabakigarria izan zela industrializazio aurreko kapital metaketaren prozesuan, baliabide berriak eta estrategikoak eskaini zizkietela herrialde europarrei, eta izan zutela zer ikusirik hala Europaren eta Asiako lurraldeen arteko dibergentziaren hazkunderan, nola Estatuaren aparatuen zabaltzean eta sendotzean. Bertan lortzen ziren, azken batean, irabazirik ikusgarrienak, eta antzinako metaketa kapitalistaren iturburu inportanteenetako bat izan ziren.

Estatu modernoa, gorago aipatu dugun bezala, nagusiki gerrarako prestatutako makina bat zen; bere helburu nagusiak ziren muga konkretu batzuen defentsa eta zabalkuntza, eta, jakina, guda bera. Estatu-aparatuen boterea Behe Erdi Arotik handituz joan zen bi arrazoi zirela medio, funtsean: alde batetik, guda kostuen igoera nabarmenagatik, hala lurreko gudaren testuinguruan (kanoiak, gotorlekuak, su-armak infanteriarentzat, mertzenarioez osatutako armadak... ez zeudenak jada jaun feudalen posibilitateen barruan) nola itsasoko gudarenean; erresumen arteko gudak, bestalde, luzatu egin ziren Aro Berrian zehar. Eta, bestetik, Estatu sistema feudalararen iraupenaren berme bilakatu zelako, Behe Erdi Aroko krisiaren aurrean (G. Bois, P. Anderson).

Estatuak, ondorioz, geroz eta ahalegin handiagoak egin behar izan zituen sarrerak eskuratzeko. Erdi Aroko erregeek zuten patrimonio propioa urriegia gertatu zitzaien, jadanik Erdi Aroan, haien gastuei aurre egiteko, eta laster beren menekoei zerga gehiago eskatzeko premian aurkitu ziren. Hasiera batean tributu horiek batez ere zerga zuzenak izan ziren, estamentu pribilegiadunetako partaideek ordaintzen ez zituztenak. Zerga zuzenekin batera, eta Behe Erdi Aroan batez ere, beste zerga mota batzuk joan ziren bultzatzen, zeharkako zergak alegia, batik bat salerosketen gain ezartzen zirenak hain zuzen ere; zerga mota horiek, muga-sariekin batera, merkataritzaren eta diruaren zirkulazioaren ugaltzarekin batera garatu ziren.

Izan ere, Erdi Aroko errege-ogasunen beste ezaugarri bat Gorteen, Estatu Orokorren edo Parlamentuen sorrera izan zen. Erakunde horietan erresumaren ordezkariak biltzen ziren, normalean gizartearen estamentu-banaketa islatzen zutenak (noblezia, eliza eta hirugarren estatua). Erakunde horiek XIII. mendetik aurrera sortu ziren eta estamentuen interesak defendatzen zituzten erregearen aurrean; hala ere haien helburu nagusia eta, ziurrenik, jatorri ohikoena, zergen eskakizunean datza. Erakunde horien eginkizuna erregearen premiak entzutea eta zerga berriak onartzea edo atzera botatzea zen; horren truke monarkia kontrolatzeko nolabaiteko boterea lortzen zuten erresumaren ordezkariak, monarkiari eskakizunak eta kexak zuzentzeko edota zenbait lege egiteko ahalmena adibidez. Aro Berrian, hala ere, eta estatu-absolutismoaren igoeraren ondorioz, erakunde horien botere-galera progresibo bat gertatu zen: Gaztelako Gorteen eta Frantziako Estatu Orokorren gainbeheraren adibideak nahiko adierazgarriak dira; Ingalaterrako kasua, ordea, oso ezberdina izango litzateke, bertako Parlamentua oso indartsua zelako eta, izan ere, XVII. mendeko Iraultza Ingelesaren muinean egon zelako.

Erdi Aroko eta Aro Berriko fiskoari buruz gogoratu behar den beste ezaugarri bat da banatuta zegoela, hots, konpartitua zela, zergak jasotzea ez zela bakarrik Estatuaren eskuetan zegoen eskubide bat: beste instantzia eta erakunde batzuek zergak inposatzeko eta jasotzeko boterea zuten, hala nola Elizak (hamarrenak, batez ere), nobleek, lekuko agintaritzek... Eta, ez gutxitan, noblezia berez Estatuarenak (edo Elizarenak) ziren zergez jabetzen zen. Zergak, bestalde, gutxitan jasotzen ziren administrazio zuzena zela medio: ohikoena enpresa pribatuei zerbitzu hori "alokatzea" izaten zen (eta hori, ez gutxitan,

abusuen eta ustelkeriaren iturri bihurtzen zen, zerga-biltzaileak nahiko pertsonaia gorrotagarri bihurtu ohi zituen zerbait).

Kontua zen Behe Erdi Aroaren amaieratik, eta are gehiago Aro Berrian zehar, erresumen gastuak ezin zirela soilik zergen bidez finantzatu, batez ere gerrak luzatzen ziren garaietan. Izan ere, gastuak zeintzuk izango ziren alde aurretik ezagutzea oso zaila zitzaien eta guden erritmoa jarraitzen zuten: gastuak bat-batean egin behar izaten ziren, askotan zergak jasotzen ziren lekutik urrun, eta zergak jasotzen ziren txanpon ezberdinetan gainera. Horren ondorioz, gero eta gehiago, Estatuak kreditura jo behar izan zuten funts horien bila, hots, merkatariegana edota bankariengana. Lehenengo, eta hasiera batean behintzat, lurraldeko bankari eta trukatzaileengana, baina, gero eta gehiago, premiak handitzen joan ziren heinean, baita nazioarteko bankari eta banketxeengana ere, F. Ruiz Martín historialariak “bankari kosmopolitak” deitzen zituen haiengana alegia.

Kreditua lortzeko joera ez zen kontu berria. Erdi Aroan erregeak behin baino gehiagotan maileguak eta aurrerapenak eskatu beharrean aurkitu ziren; izan ere, joera hori Behe Erdi Aroan indartu zen, guda-gastuen igoerarekin batera. Kontuan hartu behar da, gainera, normalean zergen jasotzeaz ez zirela Koroa edo bere funtzionarioak zuzenean arduratzen, aipatu dugun bezala, baizik eta errentatu ohi zirela, hots, partikular bati uzten zitzaiola zer egin hura ordainketa finko baten truke. Aro Berrian, guden eskala handiagotu zenez, erregeek geroz eta gehiago nazioarteko bankari espezializatuengana jo behar izan zuten, merkataritza-garapena handiagoa zen herrialdeetako bankariengana adibidez. Zer egin horretan famatuak egin ziren italiarrak (batez ere genoarrak), alemaniarak (Fugger familia, adibidez), herbeheretarrik.... Haiengana jo behar izan zuten, esate baterako, espainiar erregeek beren abentura militarrik finantzatzeko.

Bankari horiekin hartzen zen zorra, orokorrean, epe laburrekoa izaten zen, eta mailegu emailearentzat arrisku handikoa zenez, interes oso altua barneratu ohi zuen. Kontratu horiek gauzatzeko sistema ezberdinak erabili ziren, batik bat zergen errentapena eta zergen idazpena (edo *asientoa*). Zergen errentapena egiten zenean erregeak, diru maileguaren truke, mailegu emaileari zerga konkretu bat edo batzuk jasotzeko eskubidea ematen zion; esan bezala, estatuak ez zeukaten zergak zuzenean jasotzeko ahalmen handia, eta, ondorioz, bitartekari pribatuak erabili ohi ziren, errentariak alegia: mailegu kontratu horretan finkatzen zen hala erresumako hartzekodunak nola zergen errentariak bilakatuko zirela, azken batean. Zergen idazpenean edo *asientoan*, ordea, Koroak mailegua noiz, non, nola eta zein txanponetan jasoko zuen finkatzen zen, eta halaber mailegu-emaileari noiz, non, nola, zenbat, zein txanponetan eta zein zerga konkreturen emaitzaren gainean itzuliko zitzaien, interes-tasaz gain noski.

Mailegu horiek, esan bezala, epe laburrekoak ziren eta printzipioz urtean bertan itzuli behar ziren; hala ere, horrek ez du esan nahi Estatuak beti bere konpromisoak betetzen zituenik. Estatu-gastuaren igoera garai horretan, Estatuaren premiak beti sarreraren aurretik joan ziren, planifikazio bat egitea oso zaila zen, eta sarrerak gastuaren arabera ezarri behar ziren. Testuinguru horretan, maileguak kitzatzeko atzerapenak ohikoak bihurtu ziren; bankariek laster ikasi zuten atzeraketa horiek erabiltzen interesak igotzeko edo mailegu-eskaera berriak lortzeko. Batzuetan, ordea, erregeek ezin zituzten konpromisoak bete. Estatuak -erregeak-, orduan, ordainketa-etendura aldarrikatzen zuen eta banka-haustea edo bankarrota gauzaten zen. Horrek, noski, panikoa sortarazten zuen banka enpresen artean eta, ondorioz, katean ematen ziren banketxeen kiebrak, bankari handiekin lotutako maila apalagoko hainbat bankari eta lukurreruen artean adibidez. Halakoa izan zen, esate baterako Filipe II.ak 1557an dekretatu zuen Monarkia Hispanikoaren banka-hauste handia.

Arazo finantzario horiei aurre egiteko, edo bederen haien ondorio negatiboan leuntzeko, konponbideetako bat epe luzeko zorra erabiltzea izan zen. Hori geroz eta gehiago egin zen XVI. mendetik aurrera, nahiz eta aurretik izan ezaguna: Erdi Aroko hiri batzuek jadanik praktikatzen zuten eta Estatu batzuek hiri horien eredia jarraituko dute, ez bakarrik bankarroten konponbide bezala, baizik eta baita haien diru-beharrak asetzeko ohiko tresna

bezala ere. Epe luzeko mailegu horiek lortzeko tresna zor-titulu ezberdinak izango dira, herrialde bakoitzean izendapen bat jasoko dutenak: *juros* Gaztelan, *rentes* Frantzian, *partite* Italian... Estatuak emititu egiten zituen eta publikoari saltzen zizkion, normalean banketxeak bitarteko bezala erabiliz. Erosleak, *juro* edo *rente* bat eskuratzean, mailegu bat egiten zion Estatuari, eta horren truke Estatuak konprometitzen zen mailegu-emaileari interes bat ordaintzera, urtero; interes hori baxua izan ohi zen. Titulu horiek, bestalde, hiru motakoak izaten ziren, normalean: baituragarriak [*redimibles redeemables*], bizirakoak [*vitalicios, lifelong*] eta betirakoak [*perpetuos, perpetual*]. Hala, banka-hauste kasuan, Estatuak zorraren eta interesen zati bat (edo guztia) ezin zuela ordaindu aitortzen zuen, eta horren truke epe luzeko zorraren tituluetan ordaintzen zien hartzekodunei: horrela ordainketak atzeratu eta gutxitzen zituen, titulu horien interesa epe laburreko zorrarena baino dezente txikiagoa izan ohi zelako. Ariketa horri, eufemismo gisa, zorraren finkapena [*consolidación de la deuda, debt consolidation*] deitu ohi zitzaion, epe laburreko zor aldakorra (“zor flotatzailea” ere deitua) epe luzeko zor aldagaitzagoa bilakatzen zuelako.

Horrelako episodioak (zorren finkapenak, alegia) ohikoak izan ziren Aro Berriko Europan. Hala ere, errege-erreginek mailegu-kontratuak sinatzen jarraitu zuten bankariekin: arrisku handiak gorabehera, lor zitezkeen irabaziak oso handiak ziren eta, gainera, garaian ez zegoen inbertsioak egiteko aukera handirik; bestalde, Estatuarekin harremanetan aritzeak beste onura batzuk ekar zitzaizkeen: karguak, lurra, kaparetasuna eskuratzea, noblezia tituluak... Gainera, garaiko pentsamoldean errenta ziur batzuk jasotzea (juroek eman zezaketenak bezala, alegia) gizarte-igoera zeinu bat bezala ikusten zen, errentetatik bizitzea ekartzen baitzuen, nobleen antzera bizitzea alegia. Epe luzeko zorra, hortaz, orokortzen joan zen Aro Berrian zehar, eta nazio batzuetan Estatuaren sarreren oinarri bihurtu zen: azken finean, ziurragoak, jarraituagoak eta aurreikusgarriagoak ziren, epe motzeko maileguak baino; gero eta gehiago erabili ziren, baita bankarrotak ez zeuden garaietan ere.

Europar ogasunari buruz aipatu ezaugarriak, oro har, Aro Berri osoan zehar mantendu ziren: gastuek baldintzatzen zituzten sarreren gorabeherak (eta ez alderantziz, gaur eguneko aurrekontuen sisteman bezala); zeharkako zergek nagusi izaten jarraitu zuten; eta epe laburreko eta luzeko kreditura jo beharra zegoen gastuen eta sarreren arteko desorekak gainditzeko. Horrek guztiak, esan bezala, noizean behin ordainketa krisien agerpena ekartzen zuen, herrialde horretako eta batzuetan baita nazioarteko krisi finantzarioak eraginez ere. Halere, herrialde batzuetan egin ziren ogasun “orekatuagoak” lortzeko aurrerapausoak. Halako aurrerapausoak eman zituztenen artean Holanda eta Ingalaterra aipatzen dira batik bat, eta Estatuaren “finantza-iraultza” batez hitz egitera iritsi dira historialari batzuk.

Aldaketa ez zen egun batetik besterakoa izan, halere. Antza denez, ogasun orekatuago horiek lortzeko bidean funtsezkoak izan ziren, alde batetik, herrialdeko bertako bankarien talde eraginkor edo boteretsu baten existentzia edo eraketa; bestetik, sarrera jarraitu eta ziur batzuen kontrola Estatuaren aldetik, kontsumoaren gaineko zergen bitartez batez ere; eta, azkenik, Estatuaren zorraren zama epe luzeko maileguetan oinarritzea, epe motzekoena murriztuz. Izan ere, epe luzeko zorrak sarrera jarraitu batzuk ematen zituen, itzulketa atzeratu egiten zelako, interesak apalagoak eta epeak finkoak eta ezagunak zirelako, epe laburrekoarekin neurri berean gertatzen ez zena. Neurri horren arrakasta gauzatzeko interesen ordainketa ziur bat bermatu behar zen, eta hala egin zen: epe luzeko zorraren interesak Estatuaren gastuen lehentasuna bihurtu zen, mailegu zor horren erosle multzo finko eta fidel bat erakartzeko hain zuzen ere. Hori lortzeko erakunde bat fundatu egin zen Britainia Handian, Ingalaterrako Bankua (1693), zor publikoaren erosleek osatua eta epe luzeko maileguen bermea izan behar zuena; bankuari emandako eskubide eta pribilegio batzuen trukean, biztanleen aurrezkoa jasotzeko eta “erabiltzeko” aukera eman zion horrek estatuari, eta Europan hurrengo mendeetan sortuko ziren banku zentralen eredu izango zen.

Hori guztia posible izan zen, alde batetik, Ingalaterraren garapen ekonomikoaren ondorioz, erresumaren aberastasuna handitu zuena eta zerga kopuru hazkorrak jasotzeko

aukera eman zuena. Baina, bestalde, kontuan izan behar dugu XVII. mendean Ingalaterra monarkia parlamentarioa bihurtu zela, Iraultza Ingelesa delakoaren ondorioz (1640-88), eta horri esker merkataria, bankaria eta lurjabe handien interes ekonomikoek ordezkari politiko zabalagoa lortu zutela Estatuaren aurrean, Parlamentuaren bitartez hain zuzen ere. Ez da harrizkoa, hortaz, epe luzeko zorraren interesen ordainketa finko eta hazkorrari eman zitzaion garrantzia, hartzekodunak Parlamentuan bertan esertzen zirenez gero, nolabait esateko. Prozesu horretan aitzindari, edonola ere, Holanda izan zen XVII. mendean zehar: ez kasualitatez, burgesiaren botere politikoa oso eraginkorra zen beste herrialde bat (batzuentzat, izan ere, Probintzia Batuek errepublika burges bat osatzen zuten...). Horrek guztiak ez du esan nahi estatuak krisi finantzarioak betirako saihestu ahal izango zituenik (1710eko hamarkadan Ingalaterran eztanda egin zuen Hegoaldeko Itsasoetako Konpainiaren burbuila espekulatiboaren eskandaluak frogatu zuen bezala), baina bai estatuaren insolentzia geroz eta gutxiagoetan izango zela krisi finantzario horien sortzaile nagusia.

Garai honetan garatu ziren burbuila espekulatiboek gero eta antza gehiago izango zuten gaur egungo krisi finantzario kapitalistekin; halakoen adibide ona izan zen XVII. mendean Herbehereak jo zituen *Tulipanen Mania* delakoa. Mende horretako Herbehereen hazkunde ekonomiko komertzialak ekarritako aberastasun oldearen testuinguruan, loreen eta batez ere Holandan sartu berriak ziren tulipanen inguruko interes ekonomikoa biziki piztu zen: 1620ko hamarkadan diru-kopuru itzelak ordaintzen hasi ziren kolore exotikoenak prometatzen zituzten erreboiloengatik [*bulbos*], zeinek denbora dezente behar baitzuten hazteko; haietako batzuk etorkizuneko salgai gisa erosten hasi ziren, hots, erreboiloak uzatu aurretik, etorkizunean (ustez) izango zuena baino prezio baxuago bat finkatuz alde aurretik, modu gero eta espekulatiboegian alegia (erreboilo bat 24 tona gariren prezioraino iritsi zen behin). Erosleak zordundu egiten ziren erreboiloak eskuratzeko (edo are uzatu gabeko erreboiloen gaineko erosketa-aukerak lortzeko), eta sukarrak espekulatiboa are gehiago joan zen zabaltzen 1630eko hamarkadan zehar: tulipan erreboiloak erostea beti zen etekingarria, beti saltzen zirelako garestiago, eta prezioak gehiegi igo ziren. 1637an prezioen igoera gelditu egin zen eta erosle guztiak arrapaladan hasi ziren saltzen: burbuilak eztanda egin zuen eta diru-galerak itzelak izan ziren, ekonomia holandarrean krisi txiki bat sortaraziz.

Aipatutako *Hegoaldeko Itsasoetako Konpainiaren burbuila espekulatiboa*, ordea, XVIII. mendean hasieran gertatu zen: 1711an izen horretako merkataritza sozietate anonimoa sortu zen, Britainia Handiko gobernuaren ekimenez, zor publikoa murrizteko asmoz. Konpainiari Amerika Hispanikoarekin merkataritzan aritzeko eskubide eskusiboa ematen zitzaion Ingalaterran, eta horren trukean Konpainiak estatuaren zorra aldatzen zien estatuaren hartzekodunei, Konpainiaren akzioen truke; “publikoa” konpainiaren akzionista bihurtzen zen, eta Konpainia estatuaren hartzekodun, eta haren zorraren nolabaiteko kudeatzaile. Baina merkataritza-negozia ez zen uste bezain oparoa suertatu: lehenengo merkataritza-espedizioak, 1717an, ez zuen mozkin handirik eman. Hala ere, Hegoaldeko Itsasoetako Konpainiaren inguruko giro espekulatiboa handitu zen burtsan, eta haren akzioen prezioak etengabe igotzen jarraitu zuen; 1717an eta 1719an, gainera, gobernuaren zor gehiago erosi zuen Konpainiak, interes-isuri jarrai bat (nahiko baxua dena den) ziurtatzeko asmoz. Konpainiaren akzioen prezioak izugarri igo ziren 1720ko lehenengo hilabeteetan zehar (128 libera urtarrilean, 550 maiatzean, 890 ekainean, 1000 libera abuztuan). Baina Espainiarekiko harreman geroz eta txarragoak zirela eta, Konpainiaren negozioa Ameriketara gero eta okerrago zihoan, ez zuen irabazirik lortzen, eta enpresarekiko konfiantza apurtu zen. Ondorioz, jendea akzioak saltzen hasi zen eta burbuilak eztanda egin zuen: inork ez zuen erosi nahi, eta akzioaren prezioa 150 liberara jaitsi zen irailean; gainera, krisiak antzeko beste eskandalu batzuekin bat egin zuen, ia aldi berean sartu baitzen bankarrotan Frantziako Mississippiko Konpainia, antzeko xedeekin eratua. Krisiak kostu handiak izan zituen, hala publikoarentzako nola estatuarentzako, eta akzioen bidezko konpainia anonimoen jardura zorrozki mugatzen zuen Burbuilaren Legea [*Bubble Act*] onartu zuen Parlamentuak 1720an bertan.

Halako egoerek frogatzen dute zein zaila izan zen, are Britainia Handikoa bezalako gobernuentzat, zor publikoaren arazoa konpontzea; hala eta guztiz ere, Britainia Handiak lortu zuen, XVIII. mendean zehar, eta Ingalaterrako Bankua erabiliz nagusiki, gero eta zor publikoko sistema seguruago bat finkatzea. Beste erresuma batzuek, edonola ere, ez zuten Herbehereen edo Britainia Handiaren etsenplua hain gertutik jarraitu, ez zituzten antzeko aldaketak aurrera eraman, eta haien ogasunen desorekak kronikoak izan ziren: horixe izan zen Monarkia Hispanikoaren edo Frantziaren kasua. Banka-hauste egoerak konpontzeko ahalegin anitz egin baziren ere, politika erabakitzeke orduan merkatari klaseek zuten parte hartze eskasak eta klase feudalaren oposizioak ezinezkoak egin zituzten aldaketa sakonak (noblezia espainiarrak gogor egin zuen, XVIII. mendean, lurjabeagoa gehiago zamatuko zuen zergen erreforma handiaren aurka); izan ere, ogasunaren arazoek protagonismo berezia izango zuten, XVIII. mendean amaieran eta XIX.aren hasieran, hala Frantziako nola Espainiako iraultza burgesen prozesuetan.

Dena dela, Estatua ez zen dirua maileguan hartzen zuen bakarra Aro Berriko ekonomietan. Gizartearen beste talde batzuk ere zordundu beharrean aurkitzen ziren, premia bat zutelako edo, gutxiagoetan, inbertsio bat egin behar zutelako. Talde horiek premia ezberdinak zeuzkaten eta, hortaz, maila ezberdineko kreditura jotzen zuten. Kreditua, aipatu dugun bezala, soberakina xurgatzeko gero eta bide ohikoagoa bihurtu zen Feudalismo Garatuaren aroan.

Lehenengo maila batean kreditu “txikia” egongo litzateke, nekazari batek edo hiritar soil batek lor zezakeena, arrazoi ezberdinegatik. Nekazaritza arloan Europa osotik zabaldua zegoen kreditu mota *rentes constituées* zen (“rentes constituées” deituak, Frantzian): bakarrik lurjabeek lor zitzaizkaten; interes baxuak barneratzen zituzten eta printzipala ez zen itzuli behar, interesak ordaintzen ziren bitartean. Ez baziren ordaintzen, ordea, mailegu emaileak zordunaren lurra bereganatzeko eskubidea zuen.

Lurrik ez bazuen, nekazariak mailegu lukurrerura jo behar zuen; esaterako, alean ematen ziren maileguetara. Hirian gauza bera gertatzen zen, estualdietan, kontsumorako maileguak eskatzen zuten herritarrei dagokienez, askotan “prenda” baten trukean lortzen zirenak. Kasu horietan, noski, interesak handiagoak ziren, eta mailegu emaileen eskuetan erortzea, errazagoa.

Kontsumorako mailegu horien merkatua babesteko, eta batez ere behartsuen kopurua biziki hazten zenean, Europako eskualde batzuetan *bahitetxeak* [*montes de piedad, mount of pietyon*] fundatu ziren (ikus 1. gaia), normalean karitatezko erakunde erlijiosoei lotuta, eta funtsak amoinetatik lortzen zituztenak. Lehenengoak (eta famatuena) italiar *monti di pietá* delakoak izan ziren, Holandan ere zabaldu zirenak Aro Berrian; ildo horretan kokatu beharko genituzke Espainiako aletegi edo *pósito* delakoak ere, urritasun garaian aleak eskaintzen zituztenak maileguan (interes baxuetan, nahiz eta askotan ez zuten baldintza hori betetzen).

Kreditu “txikiaren” arloan ibiltzen ziren mailegu emaileen artean, beraz, lukurreru profesionalak, nekazari aberatsak, merkatari txikiak, dendariak, eliz erakundeak, eta eliz erakundeekin edo estatuarekin erlazionatutako bahitetxeak aurki zitezkeen.

Kreditura jotzen zuen beste gizarte talde bat merkatariena zen, bere eragiketarako diru askoren beharrean aurkitzen baitziren merkatariak, edo txanpon-truke eragiketarako ezinbestekoa zutenak, edo haien dirua gordetzeko erakunde ziurrak behar zutenak, edo truke-letrak erabiliz nazioarteko ordainketak egin behar zituztenak, etab... Horiei zerbitzuak eskaintzeko Erdi Arotik ferietako bankuak sortu ziren, aipatu bezala: merkatarien arteko elkartrukeen kontuak eramaten zituzten haien kontu-liburuetan, eta eragiketa horien emaitzen zuriketa edo *clearing* delakoa egiten zuten, truke letrak baieztatu, igorri eta deskontatzen zituzten, etab... Erdi Aroko bankari horiek, jakina, ibiltariak ziren, feriatik feriarara ibiltzen ziren. XVI. mendean horrelako ordainketa edo diru-feria inportante batzuk zeuden oraindik, adibidez Beçanson-ekoak Italian edo Medina del Campo-koak Gaztelan,

baina haien garrantzia geroz eta txikiagoa egiten joan zen, merkataritzaren eta bankagintzaren geroz eta sedentarizazio handiagoarekin batera.

Izan ere, Aro Berrirako bankari eta banketxe iraunkor asko sortu ziren herrialde ezberdinetan. Enpresa horiek pertsona batek edo familia batek osatzen zituen, edo pertsona gehiagoren arteko elkarte batek; haien tamaina eta negozio bolumena oso desberdina izan zitekeen, eta hirietan kokatzen ziren, merkataritza-gune inportanteenetan batik bat. Bankari horien jatorria oso ezberdina izan zitekeen, baina normalean merkataritzarekin erlazionatuta zeuden: asko merkataria izandakoak ziren, eta gehienek finantza eta merkataritza-jarduerak konbinatzen zituzten. Beste batzuk trukalariengan zuten jatorria; hala, Londreseko bankari askok bitxigile jatorria zuten, eta Sevillako bankariak, ordea, Amerikako negozioekin erlazionatuta zeuden... Banku horiek pribatuak ziren arren, Erdi Arotik Estatuak haien jarduera arautzen saiatu zen, lege desberdinen bitartez. Eskaintzen zituzten zerbitzuak merkatariek behar ohi zituztenak ziren: gordailuak onartzea, truke-letrekin aritzea, epe laburreko maileguak egitea...

Krisialdi garaietan, banku pribatu askok porrot egiten zutenean, botere publikoek banku publikoak fundatzen zituzten, finantza eragiketa ziur batzuk bermatzeko asmoz. Hala gertatu zen Behe Erdi Aroan, adibidez: gehienbat hiriek edo udalek fundatutakoak izan ziren; esate baterako, Bartzelonako hiriak 1401ean *Taula de Canvi* delakoa sortu zuen. Aro Berrian gauza bera gertatu zen, baina orduan, hiriak baino, Estatuak izan ziren erakunde horien fundazioaren bultzatzaileak: banku “nazionalez” ari gara. Kapitala pribatua izan ohi zen, baina fundatzeko baimena eta araudia Estatuak ezartzen zuen; gehienek eredu Veneziako *Banco della Piazza di Rialto* izan zen (1587). Geroago antzekoak Europa osotik fundatzen joan ziren, geroz eta funtzio gehiagorekin: Amsterdameko *Wisselbank* edo Truke Bankua (1609), oso bideratuta merkatarien eragiketetara; Stockholmeko *Riksbank* delakoa (1656), banku-billeteak jaulki zituen lehenengoa (nahiz eta Txinan diru-papera ezaguna izan lehenengo milurtekotik); aipatu Ingalaterrako Bankuak (1694), banku batek zituen ohizko jardueraz gain, zor publikoaren emisio bat bermatzeko eratu zena. XVIII. mendean eredu hori hedatzen joan zen, arrakasta ezberdinaz, Europa osotik; izan ere, horiek izan ziren, askotan, egungo banku zentralen aitzindariak.

Aro Berrian gertakari ekonomikoei buruzko pentsaera konplikatzen joan zen, mende horietan gertatzen ari ziren ekonomi aldaketekin batera. Ordura arteko ekonomiari buruzko hausnarketa batez ere Elizaren partaideek egin zuten, erlijioarekin lotutako beste hamaika gairekin batera alegia. Helburu nagusia, noski, arimaren salbazioa zen, eta eskolastikoei (Akinoko Tomas eta enparauek, XIII. mendetik batez ere) maileguen interesei eta prezio zuzenaren kontzeptuei buruz eztabaidatu zuten, bereziki, diru-ekonomiaren garrantzia handitzen joan zen neurrian alegia.

Aro Berrian ekonomi gaiei buruzko interesa handitzen joan zen, eta eliz gizonez gain beste era bateko pentsalariak aurkituko ditugu ekonomiaren inguruan hausnartzen: mota ezberdinetako funtzionarioak, merkataria, enpresariak, unibertsitateko irakasleak... Horrek guztiak zer ikusia izan zuen Estatuaren eraginaren handitzearekin, merkataritza-burgesiaren garapenarekin, kulturaren laiotze progresiboarekin, etab.

Normalean, XVI.-XVIII. mendeen artean garatu ziren ideia ekonomiko nagusiak merkantilismoa delako korrontearen barnean kokatu ohi dira, eta mende horiei, bestalde, *merkantilismoaren garaia* deitu ohi zaie. Halere ezin da esan merkantilismoa pentsaera osotu eta bakar bat izan zenik; agian zehatzagoa litzateke merkantilismoez hitz egitea, merkantilismo bakar batez baino. Merkantilismo desberdinen defendatzaileen helburu nagusia erresumaren aberastasuna handitzea zen, erresuma hori (militarki) indartsu bihurtzeko alegia; aberastasun hori, normalean, erresuman zegoen metal preziatu kopuruak baldintzatzen zuela uste zuten, eta urre eta zilar hori erresumatik atera ez zitezen, ondasunen eta zerbitzuen esportazioan superabitu bat lortu behar zen, hots, inportazioak gainditu behar zituzten esportazioek. Izan ere, nazioarteko ekonomia “zero batuketako” jokotzat jotzen

zuten merkantilistek: munduko aberastasunen multzoa finkoa zen eta herrialde batek galtzen zuena beste batek irabazi behar zuen, halaberrez.

Merkantilismoak, bestalde, izan zuen, alde teorikoaz gain, bere alde “praktikoa” ere, hots, Estatuak aurrera eramane zituzten eguneroko politika ekonomikoak ere merkantilistatza jo ditzakegu; hala, XVII. mendeko Frantziarako *colbertismoa* hitz egin da, politika interbentzionisten bultzatzaile nagusi izan zen J.B. Colbert ministroaren eragina aitortuz, eta Ingalaterrarako *merkantilismo parlamentarioa* bezalako esapide bat ezarri da, Parlamentuak merkataritza-politikan izan zuen eragina gogorarazteko (adibidez, britainiar merkataritza babesteko helburua zuten Nabigazio Lege famatuen kasuan, edo hildako ingelesak Ingalaterran manufakturatutako artilezko hil-oihalekin lurperatzeko betebeharra, legez). *Kameralismoa*, Alemaniako estatuetan eta Inperio Austriarrean garatu zena (Philip Wilhelm von Hornick edo Johann Heinrich Gottlob von Justi bezalako egileen bitartez), merkantilismoaren aldaera germanikoa litzateke, estatuaren kudeatzearekin, administrazioarekin eta finantzekin lotura handiagoa izango lukeena, eta unibertsitateetan (non burokratak hezten baitziren) presentzia nabarmena lortu zuen joera horrek.

Pentsatzaile horiek jorratu zituzten gaiak oso ezberdinak izan ziren eta, esan bezala, ez zeuden guztietan ados, baina lerro edo gai orokor batzuk aurki daitezke. Adibidez, metal preziatuen oparotasunari ematen zitzaion garrantzia, herrialde edo erresuma baten aberastasunaren adierazle nagusi bezala: ikuspegi horren muturreko adibidea *builonismoa* litzateke, urre eta zilar kopurua herrialdearen aberastasunarekin identifikatzen zuena bete-betean, eta metal preziatuen esportazio oro debekatzera heltzen zena.

Horrekin lotuta hitz egin beharko genuke prezioen aldaketaz eta batez ere XVI. mendeko igoeraz gogoetak egin zituztenei buruz, *teoria monetarista* edo *koantitatibistaren* lehenengo azalpenak edo formulazioak egin zituztenak, ordurako jada Amerikatik iritsitako metal preziatuekin lotuz. Horien artean Salamankako eskolakoak (Martin Azpilkuetakoa nafarra guztien buru), Jean Bodin frantziarra eta Bernardo Davanzati italiarra egon ziren.

Beste gai oso maitea merkantilisten artean merkataritza balantzaren positibotasunaren garrantzia izan zen, batez ere XVI. mendearen bukaera aldetik, hots, merkaturia estutu eta nazioarteko konkurrentzia areagotu zenean, produktu manufakturatuen kasuan batik bat. Herrialde batek aberatsago izateko egin behar zuena balio erantsi handiagoko produktuak esportatzea zen, eta inportazioak ahalik eta gehien gutxitzea, batez ere produktu manufakturatuenak: horrela urre gehiago sartuko zen erresuman aterako zena baino. Eraitza horretara ailegatzeko merkantilistek neurri ezberdinak proposatzen zituzten: inportazio batzuk debekatzea (batez ere luxuzko produktuenak); inportazioei muga-sari altuak ezartzea; esportazio batzuk bultzatzea muga-sarien jaitsiera zela medio (gogoan hartu Erdi Aroan, muga-sariak ezartzen hasi zirenean, berdin zamatzen zituztela, gehienetan, hala produktu inportatuak nola esportatuak, hots, politika fiskalaren tresna ziren soilik: Aro Berrian, pentsamendu merkantilisten bultzadaz hain zuzen ere, hasi ziren erabiltzen orobat politika ekonomikoaren tresna gisa...); lehengaien esportazioa mugatzea eta produktu manufakturatuen areagotzea; herrialdeko manufakturi laguntzak ematea edo are estatuak berak sortzea manufaktura horiek, etab. Honi buruz Espainian arbitristak aritu ziren, Frantzian Antoine de Monchrestien, Barthélemy de Laffemas, Ingalaterran Thomas Mun, Josiah Child, edo Charles Davenant bezalako egileak, eta abar.

Horrekin lotuta bazegoen erresumako artisautza jarduerak eta merkataritza bultzatu behar zirela defendatzen zuenik, kanpoko inportazioak geldiarazteko: Estatuak parte hartze nabarmena eduki beharko zukeen bultzada honetan. Berriz ere arbitristak aurkituko ditugu mota horretako ideiak proposatzen, eta Colbert izan zen Frantzian mota horretako ideiak praktikara eramane zituen agintaririk ezagunena, berak fundatutako errege manufaktura (*Manufactures Royales*) bitartez batez ere.

Ez dugu ahaztu behar normalean merkantilistek, esan bezala, Estatuaren esku hartze ekonomikoa defendatzen zutela, hots, estatuaren interbentzionismoaren aldekoak izan ohi zirela. Merkantilisten izkribuak, normalean, agintariei zuzentzen zitzaizkien eta,

azken finean, teoria multzo hori Printzearen eta Merkatarien arteko nolabaiteko itun baten gisa ikusia izan da. Estatuak erresumako merkataritza, koloniak eta manufakturak defendatu behar zituen zerga gehiago jaso ahal izateko eta zerga horien emaitzarekin gerra hobeto egin ahal izateko, eta gerra horrek, geroz eta gehiagotan, erresumako merkataritza sendotzeko eta zabaltzeko balio behar zuen, Ingalaterraren eta Holandaren arteko merkataritzaren inguruko hiru gerrek frogatzen duten bezala (1652-54, 1665-67 eta 1670-74), eta baita 1672-78 bitarteko Frantzia eta Holandaren artekoak ere.

Politika ekonomiko merkantilisten eragin praktikoa ezberdina izan zen Europako herrialdeetan. Espainiar monarkian, adibidez, corpus teoriko merkantilista zabal bat eratu zen, L. Ortiz bezalako idazleen edo arbitrista delakoen eskutik; monarkiak, bestalde, metal preziatuak esportatzeko debekuak promulgatu zituen zentzu builonista argiarekin, baina ez zuten arrakastarik izan, eta, izan ere, proposamen merkantilista gehienak horretan geratu ziren, proposamenetan, XVII. mendeko hispaniar monarkia ahulduak ezin izan zielako aurre egin Europako gainontzeko potentzien presio komertzialei.

Frantziako politika merkantilisten ezaugarria, aipatu bezala, Estatuak barne-manufaktуреi eman zien babesa izan zen. Helburua buruaskitasun “nazionala” eta esportatzeko gaitasuna lortzea izan zen, batez ere luxuzko produktuen arloan. Neurri ezberdinak hartu ziren horretarako: monopolioak ematea, errege-konpainia babestuak fundatzea eta batez ere errege-manufakturen fundazioa Colberten aginte garaian; itsas-flotaren hazkundera ere bere lehentasunen artean egon zen. Historialari liberalenek uste dute ekimen horiek ekarri zuten gehiegizko arauketak hazkunde ekonomikoari mugak jarri zizkiola, azkenean.

Ingalaterran, ordea, nabarmengarria izan zen merkataritzari eman zitzaion babesa Nabigazio Akta edo Lege delakoen bitartez [*Navigation Acts*]. Bi promulgatu ziren: lehenengoan (1651) agintzen zen europar merkataritza-produktuak ingeles itsasontzietan edo produktuaren jatorrizko herrialdeko itsasontzietan inportatu behar zirela; eta gauza bera egin behar zen Afrikatik, Asiatik edo amerikar kolonietatik zetozen produktuekin (bertakoek edo ingelesek inporta zezaketen); bigarrenean (1660) lehenengo legearen zenbait atal zehaztu nahi izan ziren: zer zen zehazki itsasontzi ingeles bat, adibidez (kapitainak eta marinelen hiru laurdenek ingelesak izan behar zuten), birresortazioak ingeles ontzietan egin behar zirela, etab. Lege horien helburu nagusia, argi geratzen denez, holandarrek nazioarteko bitartekaritza trafikoa zeukaten lehentasuna murriztea zen.

Holandan, ordea, ez dirudi politika merkantilistari erabili zenik, eta, izan ere, truke askearen aldeko nolabaiteko jarrera bat defendatu zuten Probintzia Batuek, XVII. mendearen lehenengo erdialdean lortu zuten merkataritza-nagusiagoarekin lotu behar dena ziurrenik. Denbora asko falta zen, ordea, estatuaren interbentzionismoa kritikatzeko zuten liberalismo ekonomikoaren ideiak inposatzen hasteko: hori ez zen gertatu XVIII. mendearen bigarren erdialdera arte, Frantziar fisiokraten eskola eta Britainia Handian Adam Smith trukeen askatasuna eta estatuaren neutraltasun ekonomikoa aldarrikatzen hasi zirelarik.

Kontzepzio ekonomiko berri horiek ez zuten jada finkotzat hartzen munduko aberastasun kopurua, eta hura handitu zitekeela pentsatzen zuten, hots, hazkunde ekonomikoaren ideia mamitzen hasi ziren (nekazaritza eta industri iraultzak posible egingo zutenak, hain zuzen ere, aldaketa horietaz jabetu ez baziren ere, oraindik). Fisiokrazia izeneko pentsamendu ekonomikoaren ildoak edo “eskola” Frantziar garatu zen XVIII. mendearen erdialdetik, batez ere François Quesnay errege-medikuaren eskutik, zeina, merkantilistek ez bezala, nekazaritzaren garrantzia ekonomikoa azpimarratzen baitzuen merkataritzaren eta artisautzaren gainetik (haien buruei “ekonomialari” izendapena eman zieten lehenengoak izan ziren fisiokratak); Quesnayz gain Mirabeau, Turgot eta Du Pont de Nemours bezalako egileek osatu zuten eskola hau, eta denek Ilustrazioan parte hartu zuten, batzuek oso era zuzenean (Diderot eta D'Alembert-en *Encyclopédierako* artikulua idatziz, adibidez). Haientzat nekazaritza zen, ekoizpen prozesuaren ondotik, produktu garbi edo

neto bat sor zezakeen jarduera ekonomiko bakarra, eta hori dela eta, nekazarien eta lur jabeen klaseetatik aparteko beste langile talde guztiek *klase antzu* bat osatzen zuten, nekazaritzak sortutako aberastasun erreala eraldatzera mugatzen ziren heinean (nekazaritza litzateke birproduktzioarako beharrezkoa zena erabili ondoren soberakin bat utziko zukeen jarduera bakarra; artisautzan aritzen zirenek, ordea, soilik jardueraren birproduktzioarako behar zutena lortuko zuten): herrialde baten aberastasuna ez zegoen, beraz, eduki zezakeen urre kopuruaren baitan, baizik eta urtero sortzeko gai zen nekazaritza-produktzioan. Horretaz gain, fisiokratek, nekazaritzaren garapena ziurtatzeko, merkataritzaren askatasunaren alde egin zuten, estatuaren esku hartzea arbuiatuz, lur jabeek eta nekazariak produktioa hazteko pizgarriak merkatu aske batean topatuko zituztelakoan, eta, alde horretatik, liberalismo ekonomikoaren aitzindari suertatu ziren; haiek izan ziren “laissez faire” esapidearen lehenengo erabiltzaileak, egun daukan zentzuan (berez, “laissez faire, laissez passer”, Turgok ministro eta fisiokratak Vincent de Gournayri egotzi ziona: botere publikoek ekonomian eta, batez ere, merkataritzan ahalik eta gutxien esku hartu behar dutela alegia; orduz geroztik liberalismo ekonomikoaren ikur edo fetitxeetako bat bihurtu da). Eta haiek izan ziren, bestalde, ekonomiari buruzko ikuspegi osotu eta zirkular bat eman zuten lehenengotarikoak, gaur egun ekonomia deskribatzeko erabiltzen diren eredu makroekonomikoen ildoan: produktioa eta kontsumoa prozesu biribil bat bezala ikusten zuten, eta, jakina, prozesu horretan nekazaritza-produktzioa salgai guztien iturburu zen.

Ez da harritzekoa, edonola ere, merkantilismoaren kritikarik pisuzkoenak Britainia Handian sortu izana, hots, XVIII. mendean garapen kapitalistan murgilduko zen lehenengo herrialdean: Adam Smith-i buruz ari gara alegia (1723-1790). Filosofia irakasle eskoziar honek, fisiokratekin kontaktuan egon ondoren, ekonomiari buruz idaztea erabaki zuen, eta diziplina horren fundatzailetzat jotzen da. Bere ideia nagusien artean azpimarratu daiteke pentsatzen zuela historian zehar pertsonak geroz eta gehiago espezializatzen joan zirela bere jarduera ekonomikoetan, lan zatiketa handiago baten bitartez, eta horrek, ondorio orokor bezala, elkartrukeen eta elkarmenpekotasunaren garrantzi progresibo bat ekarri zuela (hots, merkataritzan aritzeko beharrarena). Bestalde, Smithen uste zuen jarduera horiek aurrera eramatean gizakien helburua guztiz berekoa zela (norberaren irabazia, alegia), baina emaitza, bakoitzari bere interesa lortzen saiatzen uzten bazitzaion, gizartearentzat onuragarri litzatekeela. Hori lortzeko, fisiokratek bezala, Smithen merkatuari aske jokatzeko utzi behar zitzaiola defendatzen zuen: jendea bere helburu berekoiak lortzen saiatuko litzateke, baina guztien ekintza indibidualak, nolabaiteko *esku ikusezin* batek zuzenduta, gizartea emaitza onuragarri batetara eramango zuketena (merkatu askearen esku ikusezina metafora famatua bihurtu da orduz geroztik).

Horrek, zer esanik ez, egundoko kritika suposatzen zuen merkatuaren eta elkartruke libreen garapenari oposatzen zitzaizkien tradizio, ohitura eta, batez ere, Estatu merkantilistaren esku hartzei (berak “merkataritza-sistema” deitzen zuena); halere, ez zuen susmatu ere egin industria-jarduerak irabazi behar zuten garrantzia, nahiz eta fabrika-sistema bere hastapenetan egon Britainia Handian berak *Nazioen aberastasuna* liburu famatua idatzi eta argitaratu zuenean (1776), hots, ez zen industri iraultzaz ohartu (fenomeno iraultzaile eta bat-batekoa baino progresiboa izan zela erakutsiko zukeen zerbait). Edonola ere, merkatu ekonomiaren lehenengo teorikoa izan zen, eta XIX. mendetik aurrera nagusi bihurtuko zen liberalismo ekonomikoaren aita. Bere jarraitzaileek, hala eta guztiz ere, maiz ahazten dute Estatuaren esku hartzeari egin zizkion kritikak ez zirela guztiorokoak izan, eta onartzen zuela interbentzionismo maila bat; bestalde, uste zuen aberatsenek gobernu-boterea aprobetxa zezaketela pobreen kontra, eta horren aurrean kontuz ibiltzeko aholkatzen zuen; izan ere, enpresa handien boterearekiko eta batez ere sozietate anonimoen iruzurrekiko mesfidantza handia aurkeztu zuen.

XVIII. mendearan amaieran, beraz, Europaren ekonomiak feudala izaten jarraitzen zuen, neurri handi batean, eta lurretik eratorritako aberastasunarekin zegoen lotuta. Baina zelula

kapitalistek aurrera egin zuten testuinguru horretan, zabalduz eta ugalduz, hala hiri munduan (han ikusgarriagoak ziren) nola landakoan (protoindustrializazioak edo nekazari txikien botere-galerak adieraziko ziguketen bezala). Mendebaldeko Europak, gainera, finkatua zuen kolonia-sistema konplexu bat, Amerikan batez ere, eta nazioarteko merkataritzaren gainean kontrol-maila handi bat zeukan horrezkeru, itsasoan zeukan nagusigo militarari esker. Zona batzuetan, gainera, nekazaritza-produktibitatearen pixkanakako baina etengabeko igoerak ekonomia-egituretan aldaketak gauzatzeko aukera eskaintzen zuen: bigarren sektoreko lantegi batzuetan gertatzen ari ziren aldaketak Industri Iraultzaren atarian geundekeela iragartzen hasiak ziren, Britainia Handian. Eta, mudantza horiekin batera, bestelako aldaketa batzuk gauzatzen ari ziren gizartean eta politikan, ikusiko dugun bezala.

Ekialdeko Asia ere, Europaren antzeko maila ekonomikoa zeukana Aro Berriaren hasieran, hazi egin zen mende honetan zehar, baina, E. Llopisek dioen bezala, “1800 aldera, eskualde haietan ekonomiaren etorkizuna ez zen Europako herrialderik aurreratuenetako berbera: 1) Yangzi-ren deltako, Gujrat-eko (Indiako ipar-mendebaldean) eta Japoniako garapen-eredua langileen aldetik zen intentsibo samarra, eta Europako mendebaldekoa, berriz, kapital aldetik; 2) teknologiaren eremuan, Europak Asiari kentzen zion aldea handiago egin zen nabarmen XVIII. mendean; eta 3) Europak nazioarteko merkataritzan zuen nagusitasuna, hein batean armadan eta itsasontzietan zuen ahal handiagoan oinarritua, areagotu egin zen XVIII. mendean”¹². Desberdintasun horien aldea hazi baino ez zen egin XIX. mendean, nekazaritzan eta bigarren sektorean metatzen ari ziren aldaketekin eta, berehala, Industri Iraultzaren zabalkuntzarekin Europan eta europar jatorriko lurraldeetan.

¹² E. Llopis, “Europa Westfaliaren eta Waterlooren artean, 1648-1815: uztaro baino gehiago, ereinaro”, *Munduaren historia ekonomikoa. X.-XX. mendeak*, Bilbo 2013.